

TXOMIN GARMENDIA



**BELZAK ETA ZURIAK
MENDIAN ARDIAK**

**BELTZAK ETA ZURIAK
MENDIAN ARDIAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA

188

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María 2, – Tolosa Gipuzkoa
Tfno. (943) 67 12 82

TXOMIN GARMENDIA

**BELTZAK ETA ZURIAK
MENDIAN ARDIAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA
1985

Azalean: Goldaratz'ko erria (A. Z.'ren argazkia)

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipúzcoa)

Fotokonposatzaile: Lente – Estella

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)

ISBN 84-7158-134-5

Depósito Legal: NA. 1.566-1985

ARKIBIDEA

Arantzabe	9
Bixitaria	11
Erabakia	21
Arantzazu'ra	29
Eskutitza	37
Ireun-sugea	45
San Antonio'ra	53
Seme biurria	65
Lantoki berria	71
Lizarreta'ko jaiak	75
Erreka	83
Uste gabeko deia	95
Afrika'ra	115
Lazoan	121
Berriz ere zer pentsa	127
Meza berria ta ezkontza	135
Negarrez	139
Basarri berria	143
Erramon eskean	159
Erramon gaixo-etxera	163
Erramonen ezkontza	177

ARANTZABE

Tolosa'tik urruti gabe dagon Lizarreta, erri polita degu benetan. Erritar danak euskaldunak. Zelai ederrak. Mendian baso bikañak pagoz, aritzez ta gaztaiñez. Baita belardi ederrak ere, ta ez ardiak bakarrik ibiltzeko. Ollagorrak ere gustoko larreak dituzte Lizarreta'ko belardietan.

Eliza ta Udaletxea, ikustea merezi dutenak. Zenbat argazki atera ote du jendeak, etxe zar oiei begira?

Basarri alai-paketsuak ugari. Geientsuenak ardi-mordoska bat inguruan dutela, neguan beintzat. Oietako bat degu Arantzabe basarria.

Basarri dotoretua gaiñera. Kale-etxe askoren inbiririk gabekoa. Etxeko sukaldean zuten naiko ur ere, kanilla irikitzearekin batera.

Bertako nagusi jauna, Juan Antonio,

Ameriketan urte-mordoska pasea da. Andik ekarri zitun txanponai esker txukundu zuten aitona zanak erositako basarri au.

Lizarreta'n baziran indiano geiago ere. Baiña nagusi onen suerterik etzuten danak izan. Ala zion sarritan:

- Arjentina'ko diru guztiakin baño, konpormeago ta trankillago bizi nauk Arantzabe'n. Patrikan errebolbera ta gerrian labana asko dabillen nazioan, etzegok lasai bizitzetik. Nere semeren batek nik artu nun bidea pentsatuko balu, neroni izango niñukek aurrenengoa galerazten. Amerika emen zegok, emen, ala jokatu ezkeru.

Etxekoandre Anttoni langillea ta garbia zan. Baita elizkoia ere. Meza nagusi ta bezperik etzun utsegingo. Ezta Ama Birjin edo San Joseren bederatziurrenik ere. Ate ondora eskera zetozen praile ta mojak ere, etziran utsik joango.

Gizona etzan orrelakoa. Elizara joango zan, bai, bearbada etxeko pakearengatik.

Beren iru semeak ere jator ari ziran azitzen. Txomin zaarrenak bazitun amasei urte; Erramonek, amalau; ta gazteenak, Juan Marik, amabi.

BIXITARIA

Juan Antonio bi seme zaarrenakin garotan zan udazkeneko egun zoragarri batean, Arantzazu'ko praile eskalea etorri zan Arantzabe'ra, urtero bezela, bazkal orduan. Frai Kasimirok jo du atea *dan-dan!*

Etxekoandre Anttonik, atea zabalduz:

– Zer degu, Frai Kasimiro? Emen al da? Zer berri Arantzazu'n?

– Ondo gera, ondo gera, Ama Birjiñari eskerrak. Ta zuek bizkor al zabilzate?

– Osasuna badegu ta ala esan bearko. Pasa, pasa barrura, gure sukalde zaarra len ere ezagutzen dezu-ta.

– Bai, bai; ta urte askoan ezagutu dezagula.

Ala, exeri ziran sukaldeko mai ederraren jiran.

Praileak:

– Orain ere bazkari gozoa badago emen. Ori da lurriña botatzen duna eltze orrek!

– Gose-egarririk ez daukagu. Lan geiegiak asarretzen gaitu sarritan.

– Ja, ja, ja! Nun degu nagusi jauna?

– Mendingarotan. Txomin, Erramon da irurak egun guztirako joanak dira, giro ederra dagola-ta.

– Egoaize onekin usoak pasako dira?

– Bai. Txomiñek eskupeta ere eraman du. Aitak ezetz esan dio, baiña alperrik. Izañ ere, eguna motza dago orain; da, usoen atzetik ibillita, ezin garo-meta aundirik egin.

– Egia. Baiña giza-indarra badira ta egingo dute zerbait.

– Orain, giroak laguntzen dula, urte guztiko azpi-gaia jartzen degu ta lasaitu ederra artzen da negurako.

– Ederki, ederki. Orduan, etxeko lan guztiak zuen gain.

– Juan Marik eta biok oraintxe gobernatu ditugu ganaduak.

Ama Juan Mariri oska asi zan bazkaltzera etortzeko, etxe atzean baitzan jolasean. Mutikoa, prailea ikusi dunean, piska bat lotsatu da; baña praileak agurtu du ta andik aurrera lagun.

Amak:

– Babarrunak egosi dira ta bazkaldu egin bear degu. Jarri, Frai Kasimiro, jarri. Babarrun berriak dira, gaiñera.

– Ori da suertea, ori. Izan ere, aurtengo egoaize auekin ederki gozatuko ziran.

Etxekoandreak maiera atera du eltzekada

ederra. Juan Marik azkar luzatu dio eskua; eta amak, puska bat gorrituta:

– Baiña Juan Mari! Kanpotarrik maiean baldin bada, ari esaten zaio artzen asteko; ta, danak etxekoak badira, berriz, zaarrenari utziko zaio lenengo. Nik ez dakit oraingo eskoletan zer erakusten dieten ume auei.

– Lasai, etxekoandre, lasai. Zer egingo du, ba, goseak egongo da-ta? Artu, Juan Mari, artu.

– Artu, zuk, Frai Kasimiro, artu. Oraingo ume auek...

– Umeak len eta orain beti berdiñak, Anttoni. Eltzekada au dana bi lagunentzako al zendun? Arraioa!

– Ez. Aita ta bi semeak puska legorrarekin joanak dira egun guztirako; ta, illuntzean etortzen diranean, gustora jaten dute eltze-kia.

– Orixe! Babarrun auek soroan ondo gozatuko ziran; baña eltzean obetoago. Txerria il berria al dezute?

– Ez. Auzoan il zuten joan dan astein da aren puskak dira. Gurea oraindik arin samarra dago.

– Ez da ain ariña egongo.

– Eguberriak alderako itxuratuko balitz, orain arto berria ta gaztaiñak asi dira-ta... Birtartean, sardin zarrak izango dute ixtimazioa.

– Sagardoarekin ez dira txarrak. Gaiñera, aurten sagar-urtea da ta sagardo berriarekin asiak izango zerate.

– Barrika pare bat beteta dauzkagu, bai.

Baiña oraindik ere biltzeko badira. Ez dakit lanak bukatuta noiz jarriko geran.

– Lanak bukatzerik ez da komeni, etxe-koandre. Ta nik sagardo berria pozik edango nuke.

Amak mutikoari ekarri arazi dio txarroan sagardoa ta etzan asarre gure prailea. Sabela puska bat berdindu zutenean, onela asi zan gure Frai Kasimiro:

– Bai al dakizu zer pentsatzen nagon, etxe-koandre?

– Zer dezu ba?

– Eskolan zer moduz dabil Juan Mari?

– Ezin kejatu gindezke alde ortatik, gaizto samarra da baiña. Gaur ez da joan, besteak garotan diralako. Onelako estuasunen bat izan ezean, egunero joaten da. Guk ez gendun ikasteko aukerik izan, da naiko parrigarri ibiltzea gertatu zaigu munduan. Au esaten diet beti gure semeai: Ikas zazute al dezuten guztia, ori dote ona baiña ohea dek eta. Erramon, bigarrena, amalau urte bete zitunean geratu zan, joan dan urtean. Zaarrena, Txomin, berdin: orain bi urte, amasei dauzka-ta.

– Zuek, Juan Mari gabe ere, bazerate naiko emengo lanak egiteko; ta nik mutiko au Arantzazu'ra eramango nuke ikastera. Onen antzekoak baditugu eundik gora. Puska bat estudiatu, naiko jolas egin... Udazken aldera bai gozatu ederrak, inguru aietan urre biltzen da abar. Perretxikutan zer esanik ez.

– Eun mutiko da geiago? Gure Jaungoiko

maitea! Ni irurekin armoni bizian jarduten naiz askotan, da an ez da giro izango, gureen antzekoak badira beintzat.

– Umeak leku danetan berdiñak dira, etxekoandre.

– Eltzekada ederra jarri bearko du bateonbateg, alajaiña. Ta esan dezun ori gustatu zait. Baiña ez dakit aitag zer esango dun. Bearrena, berriz, mutikoaren erabakia izango litzake.

Amak semetxoari begiratu:

– Zer derizkiok, Juan Mari? Joango al aiz Arantzazu'ra Frai Kasimirorekin? Agidan, ire moduko pranko bazegok an.

Juan Marik, irriparezka, galdera au egin zion praileari:

– Kolejioko maisua gaiztoa al da?

– Ez, motiko, ez. Ni baiño praile doto-reagoa ta jakintsuagoa. Oiartzun'go basarri bateko semea. Gozoa ta ume-maitea, gaiñera. Professore izateko aproposa. Orain ondo zabilta, Juan Mari, jan da jolas. Baiña aurki eskolatik geratu ta lanean gogor asi bearra daukazu. Arantzazu'ra joanda, berriz, gizon aundi ta jakintsua atera zindezke.

– Arantzazu'ra joan ezker, praile egin bear al da derrior?

– Ez, motiko, ez. Derriorrik ez dago iñorentzat. Jaungoikoak gizonari emandako gauzik aundiena askatasuna da; ta zu ere, Arantzazu'n konforme ez bazaude, etorri ziñezke edo joan nai dezun lekura. An ez degu iñor katez lotzen.

– An dauden mutil danak euskaldunak al dira?

– Geienak bai, Erribera'ko eta Araba'ko banaka batzuk kendu ezkeru.

– Zozo ta birigarrorik bai al da?

– Ori da galdera, ori! Eiztaria al zera?

Amak:

– Onentzako, jostallurik onenak zepoak dira. Joan dan neguan ere, jan gendun kazuelkada ederrik.

– Ba Arantzazu'n ere badira zozo ta birigarroak. Baita katagorri, lepatxuri, azkonar da azariak ere ugari. Oietakoren bat arrapatu ezkeru, artzaiak ixtimatuko dizute. Baita propinatxo ederra eman ere.

Mutikoari barrena pil-pil jarri zitzaion da Arantzazu-zaletzen ari zan.

– Ta mixiolari joateko zer egin bear da?

– Mixiolari joateko, praile egin da meza ematea onena. Mezik gabekoak ere joan litezke baiña.

– Nora joan liteke mixiolari?

– Mundu guztira, seme, mundu guztira: Amerika'ra, Txina'ra, India'ra, Afrika'ra ta abar. Nere lagun aundi bat oraintxe etorri da Kuba'tik, amar urte pasata.

Etxekoandreak:

– Ekarriko zun zer kontatua.

– Bai, amar urte itxasoz arunztik pasa ezkeru. An bero izugarriak egiten omen ditu. Otzik, sekula ez. Etxe ta jantziak, ala moduzkoak.

– Erropak erosten, ez dute guk ainbeste gastatuko.

– Azukrea ta tabakoa izan bear du erruz. Gozatu ta erre ibiliko dira, beraz.

– Guk ere izaten degu sarri gozatu-premia.

– An ere ez dira danak gozo ibiliko.

Mutikoak:

– Orduan, elur tiraka ibiltzen ez dute izango lanik.

Praileak:

– Ori dek ateraldia, motell! Ja, ja, ja! Otzik gabe ez dik noski elurrik egingo.

Juan Marik irriparrezka jarraitzen zun, galdera xebreak egiñez. Ala zion berekiko praileak:

– Au seguru diat.

Ta onela jarraitu zun:

– Beste zortzi edo amar egun barru erri ontara etorri bearra daukat eginkizun batekin, da bixitatuko zaituztet. Ea orduan ikusten ditudan aita, Txomin eta Erramon.

Juan Mari jolasera joan zan; da, utsunea aprobetxatuz, praileak onela esan zion amari:

– Zuen mutikoak badu Jaungoikoaren deia, ta ori galtzea pekatu izugarria izango litzake. Itzegin zazu aitarekin. Nik semerik ez dizutet lapurtu nai. Baiña ori laguntzaren paltan emen gelditzea, kontzientziko karga aundi bat izango zenduteke. Gaiñera, gura-soentzat zer poz aundiagorik, seme bat praile eta Jaungoikoaren ministro izatea baiño? Nai

duten guraso danak ez dute izaten orrelako aukera. Azken orduan bera izan liteke zuen salbazioa. Zer gauza oberik?

Etxekoandreak:

– Ori da arrazoia, Frai Kasimiro. Ori izango litzake zorientasunik aundiena. Baiña badet kezka bat: aita ez da ama bezin elizazalea ta Jaungoiko-zalea. Badakizu: Amerika alde ortan urte batzuk pasa ezker...

Praileak:

– Dana ulertzen dizut. Baiña ez geiegi kezkatu, Anttoni. San Agustiñek ere aita fedegabea zun. Baiña ama, Santa Monika. Ta semea, Elizaren santurik eta jakintsurik aundienetako bat izatera iritxi zan. Jaungoikoa-rentzako ez da gauza zailik.

Etxekoandreak:

– Ondo diozu, ondo diozu. Etorri berriz ere ta ikusiko degu.

Praileak:

– Bai. Etorriko naiz ta ea zer berri degun. Laister arte. Agur.

Onela aldendu zan gure prailea. Anttonik dozena bat arrautz eman zion. Da sagardoa edanez bazkal ondoan sobratu ziran intxaurrak ere bai.

Praileak aldegin zunean, bazun zer itzegiña Juan Marik:

– Ama, nik Arantzazu'ra joan nai det.

– Bai, Juan Mari, bai. Egon adi lasai, oraindik bazegok naiko denbora pentsatzeko-ta.

– Ni Arantzazu'ra joaten banaiz, zuek ere noizik bein joango zerate. Ez da?

– Joango ez gaituk ba? Aita ez dek Arantzazu-zale aundia; baiña, semea ikustearren, ez dik atzera egingo. Balitekek Ama Birjiñaren mirariren bat gertatzea ere.

– Aitak ez badu nai ere, nik Arantzazu'ra joan nai det, ama.

– Bai, Juan Mari, bai. Baiña lasai egon adi.

Amari bi malko mardul erori zitzaizkion begietatik beera; ta, aiek gorde eziñik, bazeukan naiko lan.

ERABAKIA

Gora-beera auek Arantzabe'n ziran bitartean, aita ta bi semeak gogor zebiltzan Olantze aldean garotan. Aitak ebaki ta semeak bildu, alakoxe giroa ere zegon-da.

Txomiñek, erdi erituta zebillen uso bat ere bota zun. Ala zion berekiko:

– Datorren igandean onelako giroa egiten badu, besteren batzuek ere erori bearko ditek.

Illunarekin batera etorri ziran etxera, lau meta eder egin zituztela-ta. Pozik etorri ere. Anttonik gazta ta sagardoa jarri zizkien maiean; da, barrena pixka bat piztuta, ikulluko lanak egitera joan ziran, bitartean aparria prest izango zala-ta.

Etxekoandreak bazeukan naiko buruauste, etxeko nagusiak zer nolako arrera egingo ote zion, prailearen berria ematen

zitonean. Baiña Juan Mari asi zan gauzari bi-dea jartzen. Ikullura joanda, ala esan zion aitari:

– Aita: ez dakizula zein etorri dan gaur gure etxera...

Aitak:

– Nik nola jakingo diat, ba?

Juan Marik:

– Ezetz asmatu...

Aitak:

– Begira, Juan Mari: gaur etzeukeat berri-
ketako gogorik; ta, nai badek, esan zak azkar
zein izan dan.

Juan Marik:

– Eskalea, aita, eskalea.

Aitak:

– Pentsatzen nin emalea etzala etorriko.
Tira, tira: apaltzen jartzen geranean, esango
dizkiagu kontuak, ta ganaduai janak ematen
lagundu akiek Txomin da Erramoni, gu bai-
ño gutxiago nekatua egongo aiz-ta.

Juan Marik:

– Gaur kontu asko dauzkat, aita.

Aitak:

– Esan diat, arraio ori...

Aita naiko pentsakor jarri zan. Ala zion
berekiko:

– Zein arraio izan ote da, ba, etxe santu
ontan?

Beiak jetzi ta ijarak betetzen jarri zituzte-
nean, sukaldeko mai-jiran exeri ziran aita ta
iru semeak. Iñoiz baño gustorago gaiñera.

Eguna garotan pasatzea ez baita dantzan ibiltzea.

Gutxi gora-beera, egunero bezela zuten aparia. Eguerdiko potajea ederra zegon. Baita patata egosiak ere. Ondoren, urdai-xerra bana, arrautz prejituakin.

Etxekoandreak:

– Aizeak utzi badizute, giro ederra izango zan garotan.

Nagusiak:

– Bai; sail geiena aurreratu degu. Eguraldi onek jarraitzen badu, biar edo etzi bukatuko ditugu garo-lanak, ta lasaitu ederra negurako.

Etxekoandreak:

– Orain metan ondo jarri ezkerro, gero ekartzea errex egingo dezute. Baiña beti garo-kontuakin ezin jardungo degu. Gaur bixitaria bagendun.

Nagusiak:

– Ona baldin bazan...

Etxekoandreak:

– Arantzazu'ko Frai Kasimiro.

Nagusiak:

– Guk aiñako eguna pasako zun ark gaur ere.

Etxekoandreak:

– Beti besteak ondo.

Nagusiak:

– Bai; guk egin baiño errezago biltzen dituzte arraio oiek babarrun, arrautz ta gaiñontzekoak.

Etxekoandreak:

- Arantzazu'ko Amak ere lagunduko digu.

Nagusiak:

- Gaur garo-metak egiten ez digu asko lagundu...

Etxekoandreak:

- Tira, tira! Zu beti berdin. Egoaize ederra, bero geiegi gabe, eguna joan da eguna etorri, basarritarrak, eiztariak, danak pozik, laguntza gutxi al derizkiozu? Beste berri bat ere badegu, Juan Antonio.

Juan Antoniok:

- Zer degu, ba? Apustu egingo nuke, Arantzazu'ko praile motz orrek ekarri dula nobedaderen bat.

Etxekoandreak:

- Juan Marik Arantzazu'ra joan nai dula ikasketak egitera, ta Frai Kaximirok pozik eramango lukela.

Aitak, semeari begiratzuz:

- Arantzabe'n baiño obetoago biziko aiz, praile oiek eskean ezer biltzen badute beintzat.

Etxekoandreak:

- Zu onuzkero etzera aldatuko. Amerika alde ortan ez dakit zer dotriñ ikasi zendun.

Nagusiak:

- Dotriña? Norberak lan eginda jatea ta zintzo jokatzea, ezer izan nai badu beintzat.

Etxekoandreak:

- An ere eskean ibilliko dira.

Nagusiak:

- Bai lanik egin nai ez duten alprojak.

Batzutan eskean da urrena lapurretan, estazio edo geltokietako aulkietan lo egiñez. Emen, ordea, jantzi dotoreakin ibiltzen da eskean, oi ederrean etzaten dirala.

Etxekoandreak:

– Eskale *Beltxa* ez da ba, ederki jantzita ibiltzen; da etxeordeko garo-pilla gaua pasatzeko izan ezkerro, kontentu.

Nagusiak:

– Eskale *Beltxa* ta aren antzekoak bai; baiña emen eskale zuriak dabiltz geiegi, ta oiek ez dira obeak. Gu bezelako tontomordo bat gauden bitartean, ondo ibilliko dira.

Etxekoandreak:

– Gu ez gera iñor besteak juzkatzeko, ta goazen lengora. Zer iruditzen zaizu Juan Mari praile edo ikastera joatea?

Aita-amaren alkarrizketa Juan Marik austen du ta onela dio:

– Aita: nik Arantzazu'ra joan nai det. An nere moduko asko omen dago. Ikasi ta oso gizon aundi jakintsuak ertetzen omen dira. Gaiñera, udazkenean garotara joan bearrik ere ez. Naiko urre ta perretxiko ere izaten dala esan du Frai Kasimirok.

Erramon anaiak:

– Bai, bai; joan intekek. Emengo eze-igarrak guk manejatuko dizkiagu. Baiña ez dek denbora asko pasako. Etxean bezela libratuko aizela uste al dek?

Juan Marik:

– Besteak etsitzen duten lekuan, nik ere zerbait egingo diat.

Aitari biotza samurtu zaio. Au dio bere seme gazteenari:

– Egitan al diok Arantzazu'ra joan nai dekela, Juan Mari?

Semeak:

– Bai, aita. An arkaitz-tarte izugarriak omen dira. Kolejio ta eskolak ere oien gainean egiñak. Sapelatsak egingo dituzte seguru asko kabiak, eta nik billatuko ditut. Arantzazu'ra joan nai det, aita.

Aitak:

– Ire gogoia badek, joan adi. Leku txarrera ez oa beintzat eta. Iñoiz aspertuko baintzake, emen izango gaituk. Lanaren palatik ez dek izango gure etxe ontan.

Txomin anaiak:

– I baño zintzoagoa bearko dik praile izateko.

Juan Marik:

– Ori gero ikusiko diagu.

Ta amari begiraturuz:

– Ama: Frai Kasimiro urrena datorrenarako, prestatu neri erropak.

Ama ezin sinisturik dago aitaren konformidadearekin. Ala dio berekiko:

– Arantzazu'ko Ama Birjiñak ez dula miraririk egiten? Ara: gure etxeko au zer da, ba?

Beste galdera asko zeuzkan mutikoak. Ara batzuk:

– Prailearekin nik bakarrik joan bear al

det? Zenbat diru eramán bear det? Bixitatze-
ra noiz joango zerate, ama? Aita: nik idatzi-
ko dizutet. Zuek ere erantzun, e?

Aitak:

- Bai, seme, bai. Gaiñera, zer uste dek:
Ameriketán dagola Arantzazu? Ni, bai, joan
niñun Ameriketara, eskuan maleta zar bat
artuta. Ik, segurú asko, arrio obea eramango
dek gaur, Arantzazu'ra joateko. Ia illabete
pasa genin barkuan ere. Dakar'en, Afrika'n,
egin genizkin zortzi egun, ontzia matxuratu
zala-ta. Ura konpondu arte, jendillaje ederrik
ikusi genin. Erropa-saltzalleak ez ditek nego-
zio aundirik izango lurralde artan.

Amak:

- Tira, tira! Zu beti kontu berdiñakin.
Onuzkero milla aldiz entzun ditugu.

Aitak:

- Nere bizimodua eramán izan bazendu,
esango zendun zuk ere. An, lenengo, lau urte
erri bat ikusi gabe pasa nitun, da gaiñontze-
koak.

Juan Marik:

- Pake-pakean orduan.

Aitak:

- Etsaiak eta lapurrak ez pentsa erri aun-
dietan bakarrik diranik. Gogoratzen nauk,
gau batean, goizeko irurak alde ortan-edo,
lapur bat nola etorri zan ate joka, geneuzkan
diru guztiak emateko esanez. Nagusiak erre-
bolbera bazin, baiña kartutxo bat bakarrik.
Arekin lepoan jo zin da laster uan diru bea-
rrik gabe. Lagunak izango zizkin edozein

modutara ere. Baiña uso aldegin ziteken.

Amak etzeukan Ameriketako kontu-gogorik. Arantzazu'ra zijoan semetxoarekin zitun poz eta buru-auste danak.

Ala, apaldu zuten Arantzabe'tarrak ta oeratu, berriz ere eguna zabalduko zula-ta.

Urrengo eguna argitu zunean, etzan alda-ketarik: bakoitza bere eginkizunetara.

Juan Mari bakarrik joaten zan erriko eskoletara. Amabi urte zitun da, egokiera au etorri ez balitzaio, laister zan eskolako lanak utzi bearrean. Baiña ara aurrera jarraitzeko bidea aukeran.

Andik bi egunera joan zan Anttoni erriko maixtrarengana. Esan zion zer asmo zituzten da mutikoa etzala geiago eskolara joango.

Andereñoak, oso ondo zegola-ta, zorionak eman zizkion.

Urrena, erriko erretorearengana joan zan gure etxeoandrea.

Don Brauliok irriparezka ta pozik artu zun beren erabakia. Onela esan zion:

– Nai duten guraso guztiak ez dute semea izaten Jaungoikoaren ministro. Oraindik ikuskizun aundia dago. Baiña asi egin bear da beintzat lenengo, edozein gauzetan ere.

ARANTZAZU'RA

Zortzi-amar egunera etorriko zala esan zien praileak, ta ordurako erropak eta gauzak prestatzen asi zan ama.

Juan Mari, berriz, munduko motikorik zoriontsuena zan. Aren irriparra! Aren geldi egon eziña! Goma baño biguiñagoa zirudin. Etzan nai orduko Frai Kasimiro etorriko.

Bitartean, alkarrizketa luzeak izan zituzten gurasoak eta seme gazteenak.

Juan Marik:

– Ama: praile egindakoan, mixioetara joango naiz, Ameriketara edo India'ra.

Amak:

– Orain estudia zak beintzat, eta gero ikusiko dek. Balitekek, baiña ik uste bezin samur ez dituk gauzak izango.

Juan Marik:

– Beste batzuk an omen dabilta, ba; ta ni zergatik ez?

Aitak:

– Alegiña egin zak beintzat. Bizitzak jira-bira asko ematen dizkik gero.

Txomiñek:

– Lanean baiño gogo geiago ez badek...

Erramonek:

– Alperrak joaten dituk praile, alperrak!

Amak:

– Orain zuek burla asko egin, da gero babilitekek onek zuei egitea.

Juan Marik:

– Ikusiko dezute, praile jantzita etortzen naizenean.

Aitak:

– Zintzotu bearrean izango gaituk orduan.

Amak:

– Badaukazu premi ederra, bai. Eliza eroriko dan bildur edo ez dakit zer zeran zu.

Aitak:

– Elizara asko joaten diran oiek obeak dirala uste al dezu?

Amak:

– Elizara ez balira joango, ez lirake obeak izango. Besteak jotzen ditugu guk pekatariak; baiña gerok ez gera santuak.

Orrela igaro ziran zortzi egun, da bederatzigarrenean or dator Frai Kaximiro, goizeko amaikak aldera.

Zakurra zaunkaz asi orduko, ertetzen da Juan Mari. Arpegia gorritu zaio. Ala ere irri-parra du berekin.

Praileak:

– Kaixo, Jaun Mari! Zer moduz?

Juan Marik:

– Ondo, Ta zu?

Praileak:

– Gu ondo. Ta prestatu al zera?

Juan Marik:

– Bai, bai. Zuk nai dezunean.

Ama ere laister zan atarian. Onela zion:

– Aurrera, aurrera, barrurako giro ohea dago-ta.

Praileak:

– Bai orixe! Egoaizeak bukatu zaizkigu. Arantzazu'n elur lipitxa zegon gaur goizean.

Etxekoandreak:

– Elurra? Arranea! Negu luzea izango dezute an.

Praileak:

– Ama Birjiñak lagunduko digu.

Amak, Juan Mariri begiratzuz:

– I beti, elurra noiz egingo ta elur eske jarduten aiz. An izango dek naikoa. Ea bein asetzen aizen.

Praileak:

– Leengoan esan zenidan, bai, eiztari ta elurzalea zala.

Amak:

– Bai. Zozo ta birigarroak lagun txarra dute au negu aldean.

Juan Marik:

– Eiz asko al da Arantzazu aldean?

Praileak:

– Eiztaria geiago, eiza baño. Ala ere, beti

dago zerbait. Katu-jineteak, berriz, artzaiak nai baiño ugariago.

Juan Marik:

– Zer da katu-jinetea?

Praileak:

– Azaria baiño txikiagoa da, baiña oso gaiztoa arkumeetan da oilloetan.

Amak:

– Azariak baditugu emen ere. Oraintxe urte bete, pikardi ederra izan zuten gure auzoan. Amar ollanda ondatu etzizkien, ba? Ta etxe azpiko soroan gorde itota. Olakorik!

Praileak:

– An artzaiak azari-arrapatzallea ekartzen dute, soldata ordainduz. Ala ere ez dira bukatzen.

Etxekoandreak:

– Kasta txarra beti ugaria.

Praileak:

– Ta nun dituzute besteak? Aitak zer moduz artu zun Juan Mariren erabakia?

Etxekoandreak:

– Mendan dira barrutia garbitzen. Basarrian beti dago zer egin. Da Juan Mariren erabakia, berriz, nik uste baiño obetoago. Badakizu ez dala elizak azpian artuko dun oietakoa. Baiña arritu nintzan esan zunean: «Arantzabe'n baiño lan gutxiago eginda biziko aiz».

Praileak:

– Arantzazu'ko Amaren miraria da ori. Zenbat onelako egin ote du euskaldun biotzetan?

Etxekoandreak:

- Bai; zerbait esan dezu. Egia esan, orrelako arrera onik ez nun espero. Ta Juan Mari, dana prestatua dago. Bear ditun edo esan zenizkidan traste danak, or dauzka. Ta aita, esan dedan bezela, oso pozik dago. Anai zaarrenak ala esan zion lengoan: «Ik ez dek an denbora askorik pasako». Juan Marirekin, berriz, oraingoz ez dirudi olakorik gertatu bear dunik.

Praileak:

- Etorkizunaren berri Jaungoikoak baka-
rrik daki. Asiera da guk eman bear deguna.

Etxekoandreak:

- Tira: jarri maiean. Aiek laister emen
dira ta bazkaldu egin bear degu. Juan Mari:
ganbel aurrean dagon pilletik bota ganaduari,
azkenengo aldiz izango da-ta.

Praile-gaia saltoka dijoa. Ganbelak bete
dizkie.

Or datozte aita ta bi semeak. Ongi-etorri
beroak alkarri eman ondoren, aulkietan exeri
dira maiaren jiran.

Etzan aparteko gauzik bazkaritarako. Bai-
ña poza ta tristura batera zirala esan bear.
Poza, Arantzazu'ra praile-gai zijoalako. Tris-
tura, Juan Mari andik aurrera etxean palta
izango zutelako. Baiña Ama Birjiñarengan
zuten itxaropena. Baita Juan Antoniok ere.

Praileak:

- Juan Antonio: gaur iñoiz baño ixillago
ikusten zaitut. Ez al dezu semea praile izate-
rik nai?

Juan Antoniok:

– Praile egiten bada, bai. Baiña nolabai-
teko pranko ertetzen ikusiak gera gero ortik.

Gutxi gora-beera, alkarrizketa auekin
bazkaldu zuten. Ondorenean, denborik galdu
gabe, mutikoa prantatzen asi zan ama. Bai
dotore asko antolatu ta moldatu ere.

Prailea onela asi zan itzegiten:

– Begira: esateko guztiak esan ditugu, ta
illuntzerako Arantzazu'ra joatea komeni zai-
gu. Gaiñera, zertako zaudete ain goibel?
Juan Mari bakarrik ikusten det alai, ta danak
egon bear zenduteke.

Amak:

– Arrazoi dezu; baña etxeko jostallua
gendun-da...

Praileak:

– Etxeko gazteena beti izaten da maitea-
go. Baiña sinistu nik esaten dizuedana: nai-
gabe onen ondorenean, poz izugarriak izango
dituzute. Arantzazu'ra joaten zeratenean, da
zuen semea aldarean edo koruan kantari
ikusten dezutenean, pozezko malko gozo
pranko ixuri bear dezute. Ori guraso danai
gertatu zaie, eta zuei ere gertatuko zaizute.
Gaiñera, gaizkitu edo ezbearren bat izango
balitz, esateko, atariko atean dezute Arantza-
zu.

Aitak:

– An ere izango dituzte oporrak, ta
etxean noiz ikusiko degu berriz Juan Mari?

Praileak:

– Ori an esango diote. Estudiatzen nola

dijoan da abar, nik orain baiño obetoago esango dizute berak lenengo kartan.

Arritzekoa ez danez, malko batzuk tarteko zirala agurtu zan Juan Mari bere guraso ta senideengandik. Azken besarkadak etziran motzak izan. Beren semea bistatik galdu arte, begira egon ziran Arantzabe'tarrak.

Prailea ere gustora zijoan, San Prantzisko zirudila, arrantza polita bereganatu zula-ta.

Illuntze aldera iritxi ziran Arantzazu'ra. Arritu zan Juan Mari ango arkaitz-tontor ta mendi-zuloakin. Baita alako etxe-pilla paraje artan izatearekin ere. Ala zion praileari:

– Ama Birjiña etorri zan, ba, onera!

Praileak:

– Ama Birjiña ez da erri aundi ta ederzale. Gaiñera, orduan euskaldunak alkarrekin burruka bizian zebiltzan. Bestetik, legortte izugarri bat zegon Euskalerrian, da arantza oiek danak kentzera etorri zan elorri gaiñera. Bai pakeak egin da euri-zaparrada ederrak erori ere.

Juan Marik:

– Nork ikusi zun lendabizi?

Praileak:

– Errodrigo artzai mutikoak auntzen bat galdua izan bear zun. Beraren billa zebillen arkaitz ta sastraka-tarte guztietan. Alako batean, txilin bat entzun zunean, auntza zala uste ta Ama Birjiñarekin topo.

Juan Marik:

– Zintzarria nork jotzen zun, ba?

Praileak:

– Ama Birjiñak kanpai txiki bat zeukan zintzilik, ta aizearen bitartez mugitu ta otsa ateratzen zun.

Juan Marik:

– Au auntzentzako leku ohea izango zan, bai.

Praileak:

– Begira: emengo ixtoriak luzeak dira, ta denborarekin danak jakingo dituzu. Orain goazen kolejioko zuzendariarengana, aurki aparia izango dezute-ta. Logelak-eta nun dituzun, orain erakutsiko dizute.

Onela izan zan Juan Mariren Arantzazu'ko sarrera. Naiko tristetu zan. Danak ez-ezagunak. «Au nai det eta ura ez det nai» esaterik ez. Baiña lenengo eguna izan zan okerrena. Laister egin zitun lagunak, eta be-realaxe egin zan bertako.

Bere kideko mutikoak baziran dexente. Etorri berriak ere bai, bera bezelaxe; ta euskaldunak geienak. Gipuzkoa'koa mordorik aundiena, bizkaitar ta arabar batzuk izan ezik.

ESKUTITZA

Kolejioko zuzendariak zintzo ta gozo esan zion Juan Mariri nola portatu bear zun da abar. Bai mutikoak arretaz entzun ere. Auxe ere esan zion:

Komeni zala lau edo bost egunean etxera ez idaztea; karta, zer jarririk gabe, gauza tris-tea zala-ta.

Bitartean, Arantzabe'tarrak lan da lan zebiltzan, Arantzazu'ko eskutitza noiz iritxiko.

Amak:

– Gure Juan Mari nola ote dabil? Gizarajoa!

Txomiñek:

– Guk aiña lan egin gabe ibilliko da, bai.

Erramonek:

– Ez dakit neroni ere aruntza joan edo...

Amak:

– I ez aute ametituko, motell. An ez dittek etsai bearrik.

Aitak:

– Praileak santuak dirala uste al dezu?

Amak:

– Obeditu bearko du beintzat gutxienez.

Aitak:

– Or ikusiko da zer pasatzen dan.

Amak:

– Guk ere ikusiko degu, denbora asko baiño len. Urrengo udarako erromes-egunera arte ezin egongo gera semea besarkatu gabe. Gaur edo biar etorriko dira aren berriak, ta orduan itzegingo degu.

Azaroko egun biurri batean, or dator kar-teroa Arantzabe'ra. Atea jo du *kas-kas*. Zein izango ta Pello Enkargu.

Antonik:

– Sartu, sartu barrura, kanpoan ez da giro-ta.

Karteroak:

– Kazkabar-jasa ederra bota du, ta berrizko ere... Au zuen motikoaren karta izango da. Erremitean Arantzazu jartzen du beintzat.

Kanporako girorik etzegola-ta, aita ta ama ta bi semeak sukaldean egokitu ziran. Loteria tokatu balitzaie ere, etziran geiago poztuko.

Juan Antoniok:

– Jarri, Pello, jarri, gazta ta ogiarekin zaitoa ere obetoago estutzen dek-eta. Ta karta ori irakurri zak, Txomin, danak entzuteko moduan, orrek ez dik sekretorik edukiko-ta.

Amak, ordurako, irikia ta dexente letua

ere bazeukan. Onek etzun karteroari arrantxoak eskeintzen denborik galdu; ta, karta guztia bukatu arte, etzion iñori eman nai.

Karteroak ikusi zun naiko lan bazeukate-la karta orrekin, da bi trago eginda agurtu zan.

Alako batean, artu zun Txomiñek karta ta irakurri zun danak entzuteko moduan. Ara zer zion:

«1949'ko Azaroaren 30'an, Arantzazu'n. Arantzabe'ra.

Guraso ta senide maiteak:

Badakit nere onen zai irrikitzen egongo zeratela. Saiatuko naiz alegiñean emengo berririk ematen.

Zumarraga'raiño trenean etorri giñan. Gero, andik autobusean Oñati'raiño. Emen beste automobillera aldatu giñan, da Arantzazu'ra illuntze aldera iritxi giñan.

Treanean, Frai Kaximiro bere ezagun batekin egokitu zan. Egundoko kontuak bazituzten alkarrekin. Beasain'en jetxi zan trenetik; eta neri orduan esan zidan, Arantzazu'n praile estudiantzen ibillitakoa zala ta gaur pabrika aundi batean ofizinista dala. Nik orduan galdetu nion, ea zergatik erten zan. Da, praileak zionez, jenio txarrekoa ta petrala zalako. Kontuak kontu, atxurreko bizimodua ez daramala beintzat.

Zumarraga ta Oñati erri aundiak dira. Arantzazu'ko menditarte au, berriz, ortik onerakoa. Zuek len ikusiak zaudete; baiña beiñere ikusi gabekoentzat arrigarria da. Le-

patxuriak eta azkonarrak ibilliko dira emen dotore.

Atzo, kolejiotik erten giñanean, Urbi aldera abiatu giñan. Ez giñan iritxi, elurra zezgolako. Au udaran omen da polita, artzai guztiak emen daudela. Mendi-zaleak ere ugari etortzen omen dira. Orain oso aize otza dabil.

Egunero, goizeko zazpitan jeikitzen gera. Garbitu-lanak egin eta meza entzutera. Nai dunak, Jauna artzen du. Ta, ondorenean, gosaria ta gero ikastera.

Zer ikasten jarduten geran? Esango nizuteke, baiña ez dezute ulertuko ta zertarako? Lizarreta'ko eskolan ere nik errex ikasten nitun lezio danak; baiña emen latiña daukagu ta ori inpernuko demonioa da. Orrekin ibiltzen gera gaizki. Besteak ere ortik pasako ziran da zer egingo degu?

Gosaria ta bazkaria ez dira ain txarrak. Lo egiteko ere, oe ederrak. Lagunak, berriz, bi azpeitiar ta lazkaotar bat. Auek ere, aurtten etorriak.

Pelotan aritzeko ere prontoi ederra dago. Osasunez ere oso ondo nabil. Ontaz aurrera ez dakit zer jarri, ondo nabillela besterik. Urrengo eskutitzean izango dituzute kontu geiago.

Zuek zer moduz zabilzate?

A! Ia aztu zitzaidan, da zuek asko poztuko etzaituzten berria: Emen ikasketak egiten asten geranak, lenengo iru urteetan ez daukagu etxera joaterik, gaitz gogorren bat etorri

ezean beintzat. Baiña zuek onera etorriko zerate ta orrek ez dauka ainbat garrantzi.

Besterik etzait gogoratzen. Eskumiñak danai. Ondo izan, ama, aita, berdin Txomin eta Erramon. Ea eiz asko egiten dezuten aurtengo neguan.

Iñoiz aztutzen ez dan seme ta anai: Juan Mari.

Oarra: Nere seña jakiañak dira, Arantzazu'ko Kolejioa jarri ezkeru.»

Amak:

– Ori da karta, ori! Ondo dala alajaiñetan, da latiña ere asita gure Juan Mari...

Aitak:

– Praile egin bear badu, ikasi bearko du.

Txomiñek:

– Ori ere bada-ta: iñork entenditzen ez dun izkuntza ikasten, denbora berean probetxu geiagoko gauzak ikasi leizkenak.

Amak:

– Legeak lege izango dituk, ba.

Aitak:

– Arrazoi du Txomiñek. Baiña danak, berak dakizkiten gauzak ikasiko balituzte, ez luteke orrela luzituko praileak. Sermoi egiten asten diranean, ederki esaten dizkitek latiñezko itzak. Tontotik ez ditek ezer ere.

Erramonek:

– Bera pozik eta ondo baldin badabil, dana egiña dago.

Amak:

– Iru urtean an egon bearra gogorra da orratio, ori ere legea izango da-ta. Amabost

edo ogei bat egunera, aita-amak joan bear degu tasis bat artuta, trenean da autobusetan sartu ta erten ibilli gabe. Dirua gero ere izango da.

Aitak:

– Tasista oiek, guk ainbat neke egin gabe irabaziko dute ogia.

Amak:

– Beti besteak ondo. Egun itxurazkoa igitzeak guretzat ere ez du gutxi balioko: airtortu ta Jauna artu, meza-diruak eman da abar. Ordurako Juan Marik jakingo ditango txokoak. Zuek, Txomin da Erramon, egingo dituzute etxeko lanak.

Bi anaiak:

– Bai, bai.

Aitak:

– Zu asi zera orain ere Jauna ta meza. Ori pentsatzeko, gero ere badago denbora. Ta beste gauza bat: Frai Kasimiro zarpallu arek jakingo zun, ba, lendabiziko iru urteetan etzeukala etortzerik Juan Marik. Baiña etzun orrelako askorik esan. Arraio oiek badakite eiza nola egin.

Amak:

– Bakoitzak bere manejuak, Juan Antonio.

Onela bukatu zan eskutitz orren festa ere. Lasaitu ederra artu zuten Arantzabe'tarrak.

Egun asko baiño len erabaki zuten noiz joan Arantzazu'ra nagusi-etxeoandreak.

Eguberri aurretik gauza egokia izango zala-ta, Abenduaren 17'an joan ziran gure

erromesak, kotxe polit bat alkilatuta.

Juan Mari, jakiñaren gaiñean zegonez, zai zegon aita-amak besarkatzeko. Ura poza, semeak kotxeko atea iriki zienean.

Amak:

– Baiña, Juan Mari! Gizendu egin zera! Asko jaten al dezu?

Aitak:

– Alperkeria.

Juan Marik:

– Ni gustora nago estudiatzen, pixka bat nekatzen naiz baiña.

Ala, pasa zuten irurak eguna, txoriak baiño kontentuago. Aitak ere, sekula platera bat autsi gabeko santua zirudin. Orrelakorik!...

Nai baiño lenago etorri zitzairen etxera abiatzeko ordua. Ordu garratza izan zan; baiña pozak askotan du orrelako ondorena. Alkarri Eguberri zorientsuak opatuz, ta malko batzuk tarteko zirala, izan zan agurra.

Etixeratu ziranean, bi semeak zintzo billatu zituzten, lan guztiak eginda. Etzan asarre Juan Antonio. Gauz aundia baita basarritar batentzat, eguna pasa ondoren etxera etorri ta lan danak eginda billatzea.

Arantzazu'tik erregaliak ere ekarri zituzten bi semeentzat: Ama Birjiñaren irudiarekin medalla ta kartera bana. Etziran asarre. Baiña Erramonek:

– Kartera bai; baiña dirurik ez.

Amak:

– Motell, motell, dirua izango dek.

Aitak:

– Arantzazu'tik dirua ekartzea nai al uan? Andik etzegok dirua ekartzerik.

Erramonëk:

– Morroi-edo, norabait joan bearko degu.

Amak:

– Oraindik ez daukak presik beintzat.

Txomiñek:

– Joan adi Arantzazu'ra.

Erramonek:

– An Juan Mari naikoa dek, ta ikusiko diagu zenbat urte pasatzen ditun.

Amak:

– Gure Juan Mari oso gustora dago. Ari burla asko, baiña ea berak egiten dizuten.

Aitak:

– Bai; ura ez da arta-jorrara etorriko.

Amak:

– Tira, tira! Lan guztiak eginda dauden ezkerro, apaldu dezagun da oiera.

Aitak:

– Ta iñor ez al da etorri?

Txomiñek:

– Aguazilla, kontribuzioa pagatzeko eguna noiz dan esanez.

Aitak:

– Oiek ez dituk aztuko, ez.

Amak:

– Praile ta mojak aiñean iñor bizi ote da? Tira: jarri apaltzen.

Oeratze zoriontsua izan zuten apalondoan. Nola ez? Ikusi zuten Juan Mari oso ondo zegola. Bere profesoreak argia ta bizkorra zala esan zien. Zer geiago bear zuten?

IREUN-SUGEA

Negu artan, zurrumurru xelebrea zabaldu zan errian da inguruetan. Bildurgarria ere bai askorentzat: Ireun-sugea zebillela Lizarreta'ko mendietan. Batzuk sinisten zuten; besteak ez.

Ipui-sortzailleak ere izaten dira errian. Oietako bat zan Ermentari'ko Pedrotxo. Onek ala zion:

Kaaño'ra akullu-gai billa joan zala igande batean, da burua jo ez jo pasa zitzaiola pizti zar ori.

Akulluak eta aizkora txikiak ederki aztu omen zitzaizkion. Garai bateko Aia'ko Txikia baiño azkarrago korrika egiñez, noski, etxera. Pozik bizia salbatu zunean.

Etzan beste konturik orduko alkarrizketetan. Baziran mendira joatea bildurtzen ziranak. Beste batzuk, berriz, arrokeriz-edo zer ikusiko joaten ziran.

Arantzabe'ko etxekoandreak onela zion, meza nagusitik etorri zan batean:

– Zumitzeta'ko Erramonarekin egon naiz, ta ireun-suge kontu ori egia omen da. Mendi ortan ardi asko dabil nonbait, eta bapo suge zar ori. Oiek or dabiltzan arte, ondo. Baiña, jaten ditunean, gizonetara asiko omen da, ta orduan komeriak. Zer ikusteko ote gaude? San Migel aingerua etorri liteke onera ere bere ezpata ta guzi.

Txomiñek:

– Zer ikusteko dauka San Migelek?

Aitak:

– Badik bere ixtoria.

Txomiñek:

– Esan, aita, esan!

Aitak:

– Aralar mendian, aspaldi batean, pizti gaizto ori ibiltzen omen uan. Egunean gizon bat bear izaten zin mantentzeko, ta inguruetako guztiak bildu illuntzero erriko plazan, da zozketa edo suertea egiten ziteken, da egokitzen zana urrengo goizean joaten uan ireun-suge orrengana edo bera gordetzen zan zulo ondora. Gizon ori jaten zunean, egun guztirako pakean. Bestela, gizon guztiak egun gutxitan marraskatuko omen zizkin, da ura ez uan ohea izango.

Erramonek:

– Tonto galanta bear du, suertean egokিতuta ere, ireun-sugearengana joateko. Nik beintzat aldegingo nun norabait, bizia galdu baiño len.

Aitak:

– Orduko gizonak zuzenak ta ematen zuten itza il arte betetzen zutenak itun.

Txomiñek:

– Bizia gauz serioa da gero...

Erramonek:

– Oiek sorgin-kontuak izango dira.

Amak:

– Sorgin-kontuak? Ikusiko dek, Belabieta aldean dabillen ori etortzen bazaik! Jaungoikoak gorde gaitzala!

Aitak:

– Gaurko eskupetak izan balira, beste zeozer pentsatuko ziteken. Baiña garai artan...

Txomiñek:

– Etzan bizimodu ederra etorri inguru aietarako. Ta zein erritan biltzen ziran zozketarako?

Aitak:

– Lekunberri'tik asita erri-mordo ederra dek or: Baraibar, Astiz, Oderiz, Alli, Albiasu ta orain gogoratzen ez naizen beste asko. Baiña seguru Lekunberri'n, aundiena danez.

Erramonek:

– Zenbat denboran jarraitu zuten orrela?

Aitak:

– Nik etzekiat zenbat denboran; baiña gure aitona zanak beste konturik etzin.

Amak:

– Migel Goi-aingerua etzan nai ordurako etorriko.

Txomiñek:

– Nola gertatu zan ori?

Aitak:

– Esan bezela, suertean egokitutako gizon bat sugearengana joan zanean, da pizti ori atera, gure gizonak «San Migel! San Migel!» otsegiten omen zin laguntza eskatuz; ta orduan Goi-aingerua etorri ta ezpatarekin lepoa moztu ireun-sugeari. Orduan egin itun ango pakeak.

Txomiñek:

– Ai zer lasaitua inguruetako jendeak!

Aitak:

– Bai, motell! Gaur ere San Migel'en an zegok suge ori ateratzen zan zuloa. Bertan burua sartu ta Salbea esaten dik sinistunak.

Amak:

– Alakoren batean joan bear degu.

Aitak:

– Bai, bai; danak batera ez daukagu joa-terik baiña.

Amak:

– Al dan azkarrena joatea ez legoke gaizki. Iñoiz bada-ta, oraintxe gaude premian. Ireun-suge ori errira asten bada, aztuko dira berriketak.

Erramonek:

– Zozketan sartu baiño len, nik aldegingo det beintzat.

Txomiñek:

– Bai nik ere.

Aitak:

– Joan bearko degu, bai, San Migel'era, emen berriketan jarduten gera baiña.

Len esan dedanez, Juan Antonio etzan santu-zale oietakoa. Baiña semea Arantzazu'n zeukan ezkeru, gauzak aldatzen zijoazten.

Lizarretarrak kontu ta kezka oiekin zebiltzan bitartean, joan zan negua. Gauz guztiak izaten dute beren bolara, ta ireun-suge kontu ori ere ixiltzen ari zan. Urrengo piztu-aldian izango ziran komeriak.

Maiatzaren laua zan. Eguraldi ederra. Ala, Juan Antonio bi semeakin erramolatz-azia ereiten ari zan, siesta pixka bat egin ondoren.

Laurak inguru ortan, or dator estu ta larri Uranga'eneko Patxi errira. Uranga au, ireun-sugea zebillen mendi aldeko basarri bat da.

Ireun-sugea etorri zala bere etxebururaino! Ain zuzen, Galardita'n gelditu zala sastroka baten ondoan.

Lizarreta'n dozen erdi bat eiztari pamatu izango ziran, da aien billa gure gizona.

Egia zan. Etzegon galdetu bearrik. Ura estuasuna eta larria! Joateko azkar, beren esku-petak artuta...

Ala zion:

– Aiek begi-zulook!

Danak sinistu zuten. Pentsatu besterik ez dago, zer iskanbilla sortuko zan errian. Eiztari danak beren armen billa. Garai bateko erromatarrak sartu balira ere, etzan ainbestekorik sortuko.

Juan Antonio ere ezin zitekean etxean gelditu, eskupeta ta kartutxoaz bapo osatua

zegon-da. Besteak nor ziran? Etumeta'ko Karlos, Ibarmin'go Periko, Zarate'ko Eloi, ta abar.

Muniziorik onenak artuta, or dijoaz danak estu ta larri, Patxi buru dutela.

Emakume ta gaiñerako asko, kezketan zer gertatuko ote zan. Eiztarien emazteak ez gutxiena. Juan Antonioren andre Anṭtoni San Migeli otoitzean, bi eskuak buruan jarrita. Besteren bat ere ez piatu.

Mutil koxkorrak, eta ain koxkorrak etziranak ere, mendi-tontor batera igota. Galar-dita ondo ikusten zan lekura, ain zuzen. Danden aotan itz auek loratzen ziran:

– Zer gertatuko ote da? Ilko ote dute? Iges egitea ere gerta liteke. Zer ikusteko edo entzuteko ote gaude?

Gertutzen ari dira gure eiztariak. Izerdi ederra ere atera dute. Alako batean bistatu dute. Onela dio Patxik:

– Ara, ara nun dagon! Nola mugitzen zaion gaiñeko larrua ere!

Eiztariak, danak batera begiratu dute. Mutu gelditu dira momentu batean. Arriturik daude. Onela zion batek:

– Zekor bat aiña badek!

Besteak:

– Oiek dituk koloreak, oiek!

Tirabidera nundik inguratu pentsatzen daude. Azkar erabaki dute, bestela iges egin lezake-ta. Alakorik balitz, lotsagarri geldituko lirake erriaren aurrerako.

Arrimatzen ari dira. Gero ta nabarmena-

go ikusten dute larru-azalen mugimentua. Olako trantzerik!...

Beren ustez tirabidera jarri dira. Geiago arrimatuko lirake, baña bildurrez daude. Danak batera tiratzea erabaki dute:

– Bat, bi, iru esandakoan, *danba!*

Iru esanarekin batera, *tarraaaaaa...* Ura deskarga! Posta, bala, perdigoi, danetatik baitzan.

Beren ustez txikitu zuten. Ez baitzan mugitu ere egin. Danak laisterka batean:

– Onek ez dik geiago arnasik!

Iritxi dira ta... olako teatrarik! Ireun-sugearen partez globo zar bat, alajaiña! Ango algarak eta parrak etzuten azkenik. Beren buruak iñuxente ere jo zituzten. Zer esan bear zun orain jendeak? Momentu aiek pelikula batean artu izan balira, ez al zan irabazbide ederra izango?

Ondorengo egunetan bazan zertaz itzegin, Lizarreta'n ez-ezik, urrutitxoan ere.

Nundik etorritako globoa edo zer zan? Seguru asko, Andoain'dik, Santa Kruzetan botatakoa. Egun ortan baidira erri ortako auzo bateko festak.

Gertatuak gertatu, komeri arek bukatu zitun ireun-sugearen kontuak, Aralar'ko San Migel etorri gabe.

SAN ANTONIO'RA

Arantzabe'ko ikulluan naiko suerte txarrarekin zebiltzan. Iru bei bikain, ernaritu eziñik, zezenetatik jiraka zebilzkiten. Basarrian, berriz, ganaduan suerterik ez bada, ez dago ezer. Alako beiak arategira kentzea, berriz, pena zan. Berriak ez dira musu-truke ekarriko; ta nolakoak ertengo diran da abar.

Juan Antoniok:

– *Urdin* orain ere susaa dago.

Anttonik:

– Jesus, Maria ta Jose! Olakorik!... Zenbat aldiz izan ote dezu lenago?

Juan Antoniok:

– Lau aldiz bai. Oraindik ere saiatu egin bearko da, ba. Iru urte ta irurogei erralde bada gutxienez, ta onela ibilli bear! Orrelako beia gaur ez dago bost kuarton ekartzerik. Ta, ori gutxi balitz bezela, *Erko* ta *Luxea* ere zalantzan.

Anttonik:

– Zezen bikaiña dago, ba, Iturbide'n.

Juan Antoniok:

– Bai. Baiña nik ez dakit zer esan. Etxeko idixko ori aundiexeagoa balego sikira...

Anttonik:

– Etzaitez asi etxeko idixkoarekin, min artzeko arriskua besterik ez da-ta. Bestetik, berriz, biziatu ta ezer irabazten ez dutela jartzen dira, marrua ta ixtillua dariotela. Ori baiño obe zenduke, San Antonio'ra joango baziña. Datorren illaren amairuan izango da eguna. Ez da laguntzalle txarra olako gauzetarako. Gaiñera, biok izen berekoak geranez, fede bizi batekin joaten bazera, lagunduko digu.

Juan Antoniok:

– San Antonio gizarajoa! Ainbeste neska-mutillen eskariak izango ditu. Ikullutakoak ere bai. Izango du lanik asko danen gustoak egiten.

Anttonik:

– Santuak zerutarrak dira ta oientzat ez dago gauza eziñik, nagusi. Fedea bear, fedea!

Juan Antoniok:

– Ainbesteko sermoia egin dezun ezkerro, San Antonio egunean, ondo banaiz, an izango naiz. Meza-dirua ere emango diot. Ikusiko degu zer porru-azi ateratzen degun.

Iritxi zan santu aundiaren bezpera ere. Etxekoandreak janari goxorekin prestatu zion pardeltxo. Zatoa ere ardoz bete zun.

Urrengo goizean etzegon logurerik. Goi-

zeco zazpiretan zan autobusa, Tolosa'ko San Prantzisko aurretik. Ortarako aurrez izena emanda zegonez, etzegen zalantzik. Bi semeak egingo zituzten etxeko lanak eta bapo.

Zintzo bildu zan jendea Tolosa'ra. Gurdia bete-betea zala abiatu ziran Bizkai alde-
ra. Eguraldia ere ederra zegon da danak po-
zik.

Iritxi dira San Antonio'ra. Ura jende-pi-
lla! Bizkaitarra bezela gipuzkoarra. Lenengo
gosaldu, ta ondoren meza nagusira. Ezin ka-
bitu elizan. Zer zan ura? Ala zion berekiko
Juan Antoniok:

– Beste lekutan ere bazeudek arazoak eta
premiak. Bestela, nola ainbeste jende etorri?

Neska zar batzuk ere ikusi ditu, ezpaiña
bapo luzatuta, otoitzean.

– Oiena, nerea baiño okerragoa dek.

Meza-dirua eman da elizatik ertenda-
koan, ura lasaitua! Ipar-aizea ta eguzkia jola-
sean zebiltzan. Ura eguraldiaren zoramena!

Ordua ere bazan da Juan Antonio pago
zar baten oiñetan bazkaltzen jarri da.

Bere moduko asko da itzalpe zoragarrian.
Azkoitiar aiton zimel bat du aldamenean zu-
gaitz enborraren kontra, bere zaiñak eta be-
lar gozoa aulkitzat ditula.

Alkarri ezaupidea eman diote zatoa eske-
ñiz. Juan Antoniok garbi esan dio zer moti-
borekin etorri dan; ikulluko gora-beerakin,
alegia. Ganaduan suerterik ez bada, basarria-
rena egiña dagola ta abar.

Juan Antoniok azkoitiarrari:

– Zu ere zerbaitek ekarri-arazi zaitu, ba, andik oneraiño.

Azkoitiarrak:

– Nik San Antoniorekin fede izugarria det. Askotan izandua naiz emen. Ez da gutxi lagundua santu au. Baiña nik ere ekarri det nere arazoa. Zuk ikullukoa bezela, nik pamilikoa. Iru urte da alaba etxera ezkondu zitzaigula, ta oraindik ez dute aingerutxorik, ezta izateko arrastorik ere. Ta guk ere ondo-renak nai genituzke.

Juan Antoniok:

– Ori nerea baño okerragoa izan liteke...

Azkoitiarrak:

– Bai; baiña santu onekin nik badet itxaropen. Onek ez balu miraririk egingo, uste al dezu ainbeste jende etorriko litzakela?

Juan Antoniok:

– Poz ematen didazu. Baiña onera, egun eder bat pasatzeagatik ere etorriko da jendea, San Antonio aitzakitizat artuta.

Azkoitiarrak:

– Danetik izango da emen ere, beste leku guztietan bezela. Baiña oraintxe ere, elizara sartzen bazera, billatuko dezu jendea pranko errosarioa esaten. Bakoitzak jakingo du bere barruko berri.

Lagun aundiak egin ziran bi baserritarrak, kontu pranko esanez. Bazkal ondoan, ostatuan artu zituzten bina kape beren kopatxoekin. Sudur luzeetan brillo ederra jarri zitzaien.

Autobusa bostetan zun Juan Antoniok.

Besteak ere, mugitu bearra zeukala esan zion. Alkarri suerte onak oparo ta urrengo urtean ere, Jaungoikoak nai bazun, gaurko leku berean jarriko zala bazkaltzen esan zion azkoitiarrak.

– Ea urrengo urtean ere alkar ikusten degun –erantzun zion Juan Antoniok.

Bostak jo ta laister abiatu zan Tolosa'ra zetorren autobusa. Durango'n ordu beteko geldi-aldia zeukaten. Erri au ere ederra baita, ta merezi du ikustea.

Etixerakoan bazan kanta ta bertsoa, autobus guztia aidean jarri bear zutela. Ala dio Juan Antoniok berekiko:

– San Antonio orrek egin dik naiko mirari: goizean ez uan orrelako zalapartarik.

Garai ederrean etxeratu zan gure nagusia. Aparia prest zeukan etxekoandreak. Semeak ere beste lan guztiak eginda zeuzkaten.

Anttonik:

– Zer moduz ibilli zera, ba?

Juan Antoniok:

– Oso ondo! Oso ondo! Bazan jendea! Santu orrek badu zerbait aparteko. Seguru asko, gu bakarrik ez gera izango ikulluko arazoakin gabiltzanak.

Anttonik:

– Orixe! Ikulluan edo sukaldean, emen beti badago zerbait.

Juan Antoniok:

– Bai... Bi neska zar ere ikusi ditut, ur bedeinkatu-ontzia baño geiago ezpaiñak luzatuta, errezoan. Aien marmarra! San Anto-

niori etzioten begirik kendu ere egiten.

Anttonik:

– Zuk ekarri dituzu orain ere ipuiak!

Juan Antoniok:

– Aiek etzeukaten ipuirik.

Anttonik:

– Neska zar gelditzea ere azkenengo da; ta Durango'n egin al dezute itxogin-aldirik?

Juan Antoniok:

– Bai. Zerbeza batzuk edan ditugu ta Tolosa'ra arte bazan berritsua pranko.

Anttonik:

– Ondo da! Ondo da!! Egun bat pasatzera joan ezkerro, zer gutxiago? Lan egiteko garaiak etorriko dira berriz ere.

Juan Antoniok:

– Bai; emendik aurrera izango degu naikoa. Belar bikaiñak badaude bazterretan. Bizkai alde orrek ere baditu paraje zoragariak. Azkoitiar bat ere lagun egin det, eta urrengo urtean biltzekoak gera, Jaungoikoak nai badu.

Anttonik:

– Azkoitiar orrek ere izango zun, ba, arazoren bat-edo...

Juan Antoniok:

– Bai; guk ikullukoa bezela, ark familiakoa. Alaba etxera ezkondua zeukala, ta urteak badijoaztela, ta naiko kezkatu zegon, biltzarrik ez ote zun etxean ikusiko.

Anttonik:

– Orduan arek ere badauka fedea San Antoniorekin.

Juan Antoniok:

– Gizon elizkoi ta zuzena ematen zun.

Orrelako kontu pranko esanda oeratu ziran Arantzabe'tarrak.

Urdin da *Erko* zezenetara eramán zituzten, da ogei-aldia igarota etzan susaa-itxurarik.

Anttonik:

– Ernari balira sikira, urrengo urtean San Antonio'ra biok joango giñake.

Juan Antoniok:

– Etzazu geiegi kontatu, berrogei-aldira jiratzen ere badakite-ta.

Anttonik:

– Bai; baiña seguru asko zure biaje ori ez da alperrik izango.

Juan Antoniok:

– Ikusiko degu, ikusiko degu!

Denbora aurrera zijoan da Arantzabe'ko beiak itxura onean. Pozik zebiltzan beren lanetan, nola guraso ala seme.

Illabeteak zijoazten bezela, uma-aunditu ziran bapo. Etzegon kezkek alderdi ortatik beintzat. Garaia iritxi zanean, txekor ederrak jaio ziran *Urdin* da *Erko*'rengandik. Gaiñerako beiak ere arrastoan sartu ziran da etziran asarre nagusi-etxeakoandreak.

Anttoni len San Antonio-zale baldin bazan, emendik aurrera ez dago esan bearrik. Juan Antonio etzan Eliz-kontrakoa; baiña ez-ta bero oietakoa ere. Orain, ordea, len esan degunez, gauzak aldatzen zijoazten.

Urrengo San Antonio eguna ari zan ger-

tutzen. Senar-emazte biak joan bear zuten oraingoan. Ortan etzegon zalantzik.

Utsegiñik gabe eman zitun Anttonik ize-nak, autobusa nun da nola zan jakin zunean.

Juan Antoniok:

– Joan dan urteko azkoitiar ura egokitu-ko ote zaigu?

Anttonik:

– Esan zendun, bai, lagun aundiren bat eginda etorri ziñala; ta, guk ikullukoa bezela, ark familiko arazoa zula.

Juan Antoniok:

– Bai jatorra gizonal Ark, bere gora-beerak esateko, entzun kezkek. Basarritar asko gera zorro ta gezurtiak. Txekorra ogei ta amarrean saldu badute, ogei ta amabian eman dutela esan. Arakiñak ez dira gaizki ibilliko, gu onela gabiltzan bitartean. Oiek guk baiño obetoago artzen dute alkar.

Anttonik:

– Orixe! Basarritarrak ezjakin batzuk bes-terik ez gera, ta geuren buruari arrika asko-tan. Da, esan zendunez, azkoitiar orrek eta biok arazo berdintsuak eramanezenituzten, anima salbo. Guri bezela San Antoniok es-kua bota badio, pozik bazkaldu bearrean izango gera.

Juan Antoniok:

– Aingeru txikirik etxean sortu bazaio, ez da giro izango aiton arekin. Ixtori ederrak esango ditu, joan dan urtean esan zitun-da. Gaztetan, pelotari izateko gogo izugarria omen zun. Baiña morroi bialdu omen zuten

gurasoak, bederatzi senide ba omen ziran-da. Lana galanki egiñez, besoetako nerbioak iltzen omen zitzaizkion; da jaiean ezin gozatu pelotik bear bezela. Nagusiak, berriz, astelenero sermoi berdiña: «Atzo ler egingo uan pelotan, da gaur pulamentu ederra daukak...»

Anttonik:

– Ezagun da, bai, azkoitiarra dala. Ea alkarrekin bazkaltzeko zoria izaten degun.

Iritxi da egun zoragarria ere. Or dijoaz txukun asko senar-emazteak. Ezagun asko dute autobusean; baña azkoitiarra gogoan.

Mañari'tik gora oiñez ere badijoa jendea. Danak izango dute zerbait eskatu ta eskerrak eman bearra santu aundiari.

Gain zoragarri artara iritxi dira. Beste mundu bat dirudi: neska-mutillen begi dizdilariak, nekazarien itxaropena, trikitalarien biribilketak, eguzkia danak besarkatu naiean, da kanpai-otsa, an goien zerbait badala esanez.

Meza nagusi ederra entzun dute gure Arantzabetarrak. Ondoren errosarioa esan ere bai. Meza-diruak emanda, erten dira eliz zoragarritik, bazkaltzeko asmotan. Ondoko pagadiak «atozte onera!» deitzen diela dirudi. Bazuten ollo-puska ederrik beren parde-latxoan.

– Ara joan dan urteko azkoitiarra! Zer berri, gizon, zer berri?

– Ondo esan bearko, ondo! Emaztea al dezu?

- Bai, Jaungoikoari eskerrak.
- Urte askotarako.
- Berdin zu ere.

Alkarri eskuak luzatu ondoren, badute itz-jarioa. Joan dan urteko pago ondoan ez daukate jartzerik. Beste batzuk baidaude. Baña billatu dute, aparte gabe, leku aproposa. Laister zan galdera:

- Ta ganaduak suerte onean-edo?

- Bai, gizon. Etortze probetxuzkoa egin nun joan dan urteko ori. Bi beiak egin zituzten txekor bikaiñak, ta bat berriz ere ernari dago. Beste iru, berriz, aurki umatzeko daude. Sinistek ere lanak ditu. San Antonioz ez naiz aztuko, bizi naizen arte. Ta zuen sukaldean, bai al dezute landare berririk?

- Gizona, gizona!... Marka pasa zaigu! Ainbeste jende zan orduan ere, ta gaizki ulertuko zidan San Antonio gizarajoak. Familia alaba ezkonduak izan bearrean, ezkongai dagonak izan ez digu, ba? Badira komeriak gure etxe ortan!

Pixka batean mutu gelditu ziran Arantzabe'ko senar-emazteak.

Ondoren, Anttonik:

- Ori baiño gaitz okerragoak ere izaten dira...

- Bera bada naikoa! Kanpokoa errez pasatzen da! Etxera etortzen danean, komeriak! Ori ere gurean bear zun!

Juan Antoniok izketaldia beste bide bate-tik asi zun, azkoitiarra lepoko zaiñak atera bearrean jarri zan-da.

Arritzekoa ez danez, aurreko urteko umorerik gabe bazkaldu zuten, da orrekin asko tristetu zan Juan Antonio ere.

Ala zion Anttonik:

– Gurea pasako da errezena.

Juan Antoniok:

– Bai. Baiña nik beste zeozer itxaro nun. Gizarajoa goibel dago. Joan dan urtean, beste gizon-klase bat zan.

Egun artako jira ere bukatu zan. Autobuseko umorea ta abar, aurreko urteko antzera, gutxi gora-beera.

SEME BIURRIA

Txomiñek bazitun emezortzi urte, ta amasei Erramonek.

Zaarrena, langille jator oietakoa zan. Akats bat zeukan: begietako bista baju samarra. Sendagilleak betaurrekoak agindu zizkion, da oso ondo ibilliko zala. Gaiñera, soldaduzkatik libratu zeikela ta paperak egiten astea komeni zala. Orrela asi ziran, erriko sekretarioarengana joanda.

Erramonekin zeuzkaten buru-austeak. Au, akerraren adarrak baño biurriago zetorren. Mutiko argia ta azkarra zan; baiña... Banku batek eman-ala diru gastatuko zukean, bere amak zionez beintzat. Aita-amak emandakoak, berriz, etzitun aintzakotzat artzen. Festa ta dantza izan ezkeru, konporre zan gure mutilla. Baiña poltsatik ibiltzen zan antzu.

Etxe aldean etzegola arekin karrerik eta morroi bialdu zuten Amezketako basarri ba-

tera. Urte bete iraun zun orratio. Izan ere, denbora ori pasatzen etzun morroiak, pama txarra artzen zun.

Etxera etortzen zan bakoitzean, naiko keja ekartzen zun. Baiña tira: etxerako ere etzioten aurrerabiderik ematen, eta aita ta amarentzat etzun xentimorik ekarriko. Gutxiegi zitun danak beretzako.

Amak onela zion sarri:

– Kartzelan ez dago beintzat. Eta gure Txomin aingeru bat da. Juan Mari, berriz, pozik dago Arantzazu'n. Beste ori erten da, ba, orrelakoa, erdian. Amasei urte ere txoroak dira ta, urteak dijoazten bezela, pixka bat zuzenduko balitz...

Aitak:

– Artalde danetan izaten dira ardi beltzak.

Urte bete pasa ondoren, etorri zan morroia bere jaiotetxera, an etzegola irauterik-eta. Baiña aitak, urrengo astelenean Tolosa'ra perira joan zanean, Amezketa'ko nagusia-rekin topo egin zun, da onela izan zan beren alkarrizketa:

Juan Antoniok:

– Gure Erramoni zer gertatu zaio? Etzegola irauterik eta etzan goxoa etorri. Badakit bera ere santua ez dala.

Amezketarrak:

– Santua? Zu aita zera ta badakit ez dezula errurrik. Zure semea, etxerako baiño, kanporako ohea da, ordea. Alde egin zula

esango zizun; baiña bialdu egin nun. Au da egia. Lenago bialdu bagendu, berriz, obe izango gendun.

Juan Antoniok:

– Zer egin du, ba?

Amezketarrak:

– Txarretik, egin litezken guztiak. Berak nai zunean bakarrik zan langillea. Indarrez ere osatua dago. Baiña illekoa kobratzen zunean, nork burutu? Alegi'ra edo Larraitz'a jokora. Gure andreak seme bat bezela maite zun. Egun batean ala esaten dio: «Baiña, Erramon!... Diru guztiak orrela gastatu gabe, Kaja Ahorros'era-edo eramaten asi bearko dezu, ba!» Ba al dakizu zer erantzun zion?

– Zer?

– Kaja Ahorros'en, len ere nik aiña edukiko dute.

– Egunen batean gogoratuko zaio.

– Ori da gutxienekoa. Joan dan San Permiñetan, Azkarate'ra joan da iru egun pasa zitun. Begi-ondoa ederki aundituta ekarri zun. Ez dakit nola ibilliko zan. Galdera pranko egin arren, ez gendun jakin. Mezeta-ra zintzo joaten zan; baiña meza luzeak izaten ziran arentzat. San Juanetan, Abaltzisketa'n ere, naiko xelege ibilli izango zan, ango alkateak esan zidanez.

– Festa guztietako komeriante izan al zan-edo?

– Komerianteak beren komeritik biziko dira; baiña zure semea bere buruaren kontrako komeriantea da.

– Jarrai, jarrai!

– Zera: dantzan ibilli bear izaten du de-
rrior. Ori ondo dago. Baiña neskaren bati es-
kua sartu dio aurreratxo, ta neskaren amak
ikusi. Baita bi belarrondoko eman ere. Ta
orduan komeriak. Emakume orri, etxera-
koan, arrika eman omen zioten. Au, berriz,
urrengo goizean alkatearengana, Erramon eta
bere lagunak zirala esanez. Alkatea gizon ja-
torra da. Onek tapatu omen zun ango ixkan-
billa. Bestela...

– Festetan olakoak len ere izaten ziran.

– Okerragoa dana, joan dan udaberrian,
bi arkume paltatu zitzaizkion gure auzoko
artzai bati, ta Erramonen errezeloa egin zun.

– Etzan, ba, goseak egongo.

– Ez, ez! Gure etxean ez dago goserik. Ez
da bakarrik. Bere moduko lagunak bazitun
Alegi alde ortan. Kartak izan ezkerro, alkarri
galtzak kendu arte jokoan ibilli bear dute-
nak. Erremediorik ez dago-ta, zertan jarraitu-
ko det geiago esaten? Nere partetik suerte on
bat izan dezala, ta beste bat arte.

– Agur, agur!

Onela izan zan feriko alkarrizketa. Juan
Antonio naiko triste etxeratu zan. Au zion
berekiko:

– Zer ikusi bear ote degu gure kankallu
orrekin?

Apaltzen jarri orduko, ekin zion aitak
Erramoni:

– Aizak: jakin dizkiat ire berriak. Gezur

ederrak sartu izkiguken; baiña denbora gutxi-ko.

Erramonek:

– Apustu egingo nuke, Amezqueta'ko nere nagusi izanarekin itzegin dezula.

Aitak:

– Orixe.

Erramonek:

– Zer zion anka-aundi, alper arek? Gezur pranko esango zizkizun.

Aitak:

– Egiak ere esango zizkin, i nolakoa aizen ezagutzen aut-eta. Irabazitako xox guztiak jokoan gastatuta, bapo konturatuko aiz egunen batean. Parranderoa ta jokalaria izatea baiño, okerragoa dek, berriz, esku-zikiña. Aldegin ez; baiña berak bialdu omen iñun, etxerako baiño kanporakoa ohea intzala-ta.

Erramonek:

– Esku-zikin orrekin zer esan nai zendun?

Aitak:

– Zera: bi arkume paltatu zirala ta i izango ote intzan.

Erramonek:

– Ori ere bai al degu? Pentsatzen nun, bai, txori-malo arek nere aitzaki egingo zula. Aiek, seguru asko, Alegi'ko erdi ijito baten lanak izango dira. Ni ortik libre naiz. Etxe artan ez omen du oraindik urte bete iñork pasa morroi, ta ni pasata etorri naiz.

Aitak:

– Gizon serioa ematen dik arek.

Erramonek:

– Arek mingaiña du leguna, ta biotza garratza. Ez al dizu esan, jai-illuntzero ikulluko lanak egitearren, soldata aunditu zidala, ta gero etzidala eman?

Aitak

– I jai-illuntzetan etxean?

Erramonek:

– Bai. Bi illabetean egin nitun ikulluko lan danak bakarrik, jai-illuntzero bera tabernan lasai egotearren. Da gero, agindu zidana eman ez. Ortik asi giñan asarretzen.

Amak:

– Asko dezute ta apal zazute pakean, platerakada bana patata badegu-ta.

LANTOKI BERRIA

Andik egun pare batera, onela mintzatu zitzaien Erramon:

– Orain fabrikari asi bear det. Papelerako zuzendariarekin izketatu naiz gaur, ta ama-bost egun barru deituko didala esan dit.

Aitak:

– Fabrikara zuzen joan bear dik gero...

Erramonek:

– Besteak ibiltzen dira ta ni ere ibilliko naiz.

Andik amar egunera, Papelerara joateko deia Erramonentzat.

Amak:

– Errendituko balitz sikira...

Aitak:

– Berak aterako ditu kontuak.

Zuzen asi zan gure mutilla, kobratzen zuzenean parranda ederrak egiten zitun baiña.

Udara artan etorri zan praile-gaia ere le-
nengo aldiz oporrakin, iru urte Arantzazu'n
igaro ondoren. Mutiko jakintsua gaiñera.
Euskeraz bezelaxe jarduten zan gazteleraz.
Ura erreztasuna ta jakinduria! Ao zabalka
egoten ziran berari entzuten.

Pozik ziran aita ta ama. Erramonek ema-
ten zizkien naigabeak, Juan Marirekin go-
zatzen zituzten.

Udara bete-betea zan. Nunai festa ta
erromeria. Etorri ziran San Tiburtzioak ere.
Naparro'ko Leitza'n ez da giro izaten egun
oietan.

Erramonek bizikleta zar bat erosi zun, da
etzegon etxean egoteko. Erri ortara joan ba-
zan joan, iru egun pasa ez ditu, ba? Lauga-
rrean etorri da etxera ta fabrikara. Atetik
jira bear izan zun. Arentzako sarrera galera-
zia zegola atezaiak esan baizion.

Erramonek:

– Zu etzera iñor, ta nik nagusiarekin itze-
gin bear det.

Atezaiak:

– Ez naizela iñor? Nik nere eginkizuna
bete det, ta nagusirik ez dago emen; da, nai
badezu, zoaz bere etxera. Ta esatekoak esan
ditut.

Goibel etxeratu zan gure Erramon. «Fes-
tak aurrea ohea ondorena baiño».

Aitak:

– Zer uste uan: Amezketatik Azkarate'ra
joanda bezela libratuko intzala? Fabrikako

bizimodua ez dek orrela izaten, da beste iñungoa ere ez. Irekin aruntza joan ziranak etorri itun, ba, lanerako ordurako. I beti bes-teak ez bezela. Abillen bideak arrapatuko au.

Amak malko pranko botako zun ixilka; baiña alperrik. Erramon ezin ziteken denbo-ra askoan Arantzabe'n izan. Dirua bear zun bere bizioetarako, ta orrekin izaten zitun komeriak. Anai zarrari eskazen zion; baiña au ere aspertua zeukan ematen. Amak semerik biurriena ere maite izaten du-ta, eman zion aitaren ixillean eskupeko pranko. Baiña zer ziran, ba, arentzako?

Batzutan basoan, da urrena al zun le-kuan, ibilli zan soldaduzka joan arte, egoai-zearen mende dabillen osto igarra bezela.

Udazken artan, Txomin Donosti'ra erre-konozimentura joateko deia etorri zan. Zintzo asko joan zan esandako ordurako. Sendagille militarrek ikusi zuten da etxera bialdu zuten, zer gertatzen zan deituko zute-la-ta.

Urrengo deia etorri arte naiko kezkatu zeuden; baiña amabost egunera orra erriko aguazilla Arantzabe'n ate joka.

Anttonik iriki zion atea:

– Zer degu, gizon?

– Notizi ona, etxekoandre, notizi ona! Txomin libre dala soldaduzkatik!

– Jesus! Au poza! Guk ere noizbait suer-tea bear gendun! Sartu, sartu barrura, intxaur batzuk eta tragoxka bat ardo artzera!

– Eskertuko dizut, gaur edan-giro dago-
ta.

Poz bat geiago bazuten gure basarritarrak.
Osasuntsu ziralara, etzuten zalantzik. Erra-
mon, berriz, alde batera utzia zeukaten.

LIZARRETA'KO JAIK

San Agustiñak ere asi ziran inguratzen. Belar ontzeak aurreratuak zituzten Arantzabe'n. Lasaitu ederra lan oiek bukatu ezkerro.

Praile-gaiak ere etzien gutxi lagundu, beatzetan azal-arrotze batzuk egin zitzaizkion baiña.

Erramon ere lan puska bat egiña zan auzoko basarri zar bat berritzen kontratista batekin, da festak ondo pasatzeko moduan zan.

Jende-pilla ederrak biltzen ziran, zorioneko dantza lotu ori ere jotzen zan-da. Ingu-ruetako errietan etzegon orrelakorik. Don Brauliok itzaldi bikaiñak eta gogorak egingo zitun; baiña alperrik.

Urte batean, polita gertatu zan. Ostegunarekin zan San Agustin. Lau eguneko jaiak Lizarreta'n. Soiñu-jole pamatu bat etorri zan ostegun-eguerdiz, ta urrengo astelena arte etzun aldegin.

Igandean, beste erritar geienak bezela, amarretako meza nagusira soiñu-jolea ere. Elizkizun-denboran, artarakoa izanda, or di-joa gure musikoa organo-jotzaillearengana baimena eske, berak joko dula-ta.

Asi da *fuuu* ta *faaa*. Leku ederrean! Lais-ter jira zan Don Braulio, meza ematen ari zala, ta:

– Aldegin zak ortik!

Soiñu-jolea lengo exerlekura buru-makur, erritar danen lotsagarri. Ala ere, dantza lotu-koa jotzen etziztaion aztu.

Egun artako bazkari-denboran bazan zer-taz itzezin. Apaizaren jokera batzuk ontzat artu zuten; beste batzuek, berriz, «zenbat buru, ainbat aburu».

Amak Erramoni:

– I ere ibilliko intzan baltsean?

Erramonek:

– Festak ortarakoxe dira.

Amak:

– Don Brauliok jakiten badu, Kongrega-ziotik botako au.

Erramonek:

– Ederki gaude, apaizaren esanari kaso eginda!

Juan Marik:

– Orrela ez dik bear, Erramon. Zintzo ta txukun ibiltzea, animarentzat ez-ezik, gor-putzarentzat ere osasungarria dek.

Aitak:

– Sermoia entzun degu goizean, da orain bazkaldu dezagun.

Amak:

– Kontuak esanez ere bazkaldu liteke, Juan Antonio. Lengo San Agustin eguneko sermoia ere bikaiña zan, ba. Ura etorria ta egokiera gauzak esateko! Ez da praile makala izango ura.

Juan Marik:

– Bai; praile jakintsu ta azkarra da. Gaiñera, pulpituan sutu egiten da. Ori, batetik bestera atsedetik artu gabe dabil. Garizuma izaten da, berriz, ortik onerakoa. Deia andik eta deia emendik, danetara ezin iritxi.

Txomiñek:

– I izango al aiz ainbeste?

Erramonek:

– Leku ederrean! Oraindik jan bearko dituk bi talo...

Juan Marik:

– Zer uste dek: besteak jakintsu jaio zira-la? Ori pixkana-pixkana izaten dek.

Amak:

– Orixe!

Aitak:

– Ik jarraitu ikasten, da denbora izango dek testigu. Gauz baterako balio ez dunak, besterako izaten dik.

Erramonek:

– Kafea artzen degunean, jokatuko diat lengo osteguneko sermoia zeñek obetoago berritu, i estudiatzen ibilliko aiz baiña.

Juan Marik:

– Ikusiko diagu.

Erramonek bezperako alaitasunak bukatu

gabe zeuzkan, da berriak artzen ari zan, maatsaren zumoa edanez. Bestetik, berriz, oso buru onekoa ta argikoa zan. Manetofonak bezela artzen zitun gauzak. Lastima griña xelebrea asko zitula.

Esan bezela, bazkalondo alai ori iritxi zanean, onela asi zan Erramon, Erroma'ko Aita Santua zirudila:

«Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Aldareko apaiz jaun agurgarriak, erriko agintari zintzo ta gaiñerako entzule biotzekoak: Gaur San Agustin aundiaren eguna degu. Egun zoragarria benetan Lizarreta'rrontzat. Ez baita txantxetako gauza ain santu aundia zuen zaindari izatea.

Ez naiz asiko *ipi* eta *apa* Agustiñen txetasun guztiak esaten. Nik bezin ondo dakizkizute lenago ere. Baiño au bai: Afrika aldeko mutiko onek ere sentitu zun bere biotz-muiñean zorionaren egarria. Izan ere, gizonak berekin baitu zorionaren gose ori. Ta Agustin, egarri ori ase naiean, erririk-erri abiatu zan. Gazte lirain dotorea, eder-begira bazter danetan.

Ama, Santa Monika; aita, fede gabea zun. Ama gaixoa, semearekin kezkatua otoitzean. Ondo baizekin bide txarretan zebillela. Garai artako apaiz batek esana:

– Ainbeste negarren semea ez da galduko.

Ta alaxe gertatu. Zer ikasbide ederra gaurko ama askorentzat! Badakit zuen semeak ondoan ez daukazitela edukitzerik.

Baiña otoitzik egiten al dezute, zuen semeak zintzo ibilli ditezen edo erretiro ona izan dezaten?

Zuen seme edo alabaren bat ezkongaiarekin asten danean, zer galdetzen dezute? Nun-go da? Zer opizio du? Dirua asko irabazten al du?

Seguru asko, ez dezute galdetuko: Zintzoa al da? Mezetara joaten al da? San Luis edo Maria-alaben Kongregaziokoa al da? Dantza lotu nazkagarri ortan ibiltzen dana al da?

Begira: Agustin ere ibilli zan zorionaren billa, baiña Jaungoikorik gabe, gaurko gazte asko dabiltzan bezela, ta ezin billatu zorionik.

Oraindik orain, bere burua trenari jarri aurretik, Suiza'ko gazte batek aitorketa au egin zun:

- Danak probatu ditut eta ez det zorionik arkitu, ta bukatzera noa.

Izan ere, Jaungoikorik gabe ez dago zorionik. Ezur bat bere lekutik ertetzen danean, bere lekuan sartu arte ez dauka zorionik. Jaungoikorik gabeko gizona ere olaxe da.

Agustiñek ere, Jaungoikoarengana biurtu zanean, zoriona arkitu zun. Bere ibillera oker guztiez damutu zan. Asmo sendo bat artu ere bai, ta gaur Elizaren santurik aundienetako bat degu.

Ta, zorigaitzean, ainbeste mundutar zorionaren billa bide okerretik. Badakit gizonak erorkorrak gerala; etsaia ez dagola lo.

Argi, zuen erriko festa zoragarri auetan ere! Jaungoikoaz oroitu! Otoitz egin! Eskatu laguntza San Agustiñi! Alaiak izan, baiña garbiak zuen itzetan, zuen ibilleretan da artu-eman guztietan. Bestela, arrantzale gizarajo aiei gertatu zitzaiena gertatuko zaigu:

An daude, itxas bazterrean, goibel da triste, ta Jesus inguratzen zaie, esanez:

– Bota itzazute sare oiek eta asi zaitezte arrantzan.

Pedrok esaten dio:

– Jauna, gau guztian ortxe ibilli gera ta txitxarro txiki bat ere ez degu arrapatu. Baiña zure izenean asiko gera.

Zer gertatuko ta txalupa guztia arraiez bete zutela, ta ondoratzeko arriskuan iritxi zirala kaiera.

Gure mundu au itxaso zakar bat da. Jaungoikoaren izenean bota ditzagun gure bizitzako sareak, ta egunen batean arrai goxoz beteta arkituko ditugu, zoriontsu izateko betikotsun guztian. Ala izan dedilla. Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, amen.»

Arritu ziran guraso ta senideak. Gaiñera, sermoilariaren gatza ta piperra ematen zion Erramonek. Bazirudin ogei ta amar urtean ortan zebillela. Olakorik!...

Amak:

– Jesus! Juan Mariren lekuan egon bear ukek ik!

Aitak:

– Esango nitek!

Txomiñek:

– Urrengo urteko San Agustiñetarako nik esango zioat Don Brauliori zeñek egingo dun sermoia.

Juan Marik:

– Bai; soiñu-jotzaillea bezela bialtzeko.

Danak:

– Ja, ja, ja, ja!

Diru-puska bat patrikan izan ezkerro, mutil polita zan Erramon; baiña ortan izaten zintun komeriak. Ala ere, urte artako San Agustiñak ondo zeramazkin, sermoiak eta guzti egiñez, alajaiña.

Aitak:

– Alakoren batean praile joaten baaiz, eskean jarriko aute. Ez meza ematen da sermoilari.

Erramonek:

– Eskerako ere norbaitek bear du. Zuk ere ez dezu eskatu gabe ematen.

Aitak:

– Arraioa! Eskatutako guztia eman ezkerro, ez intzake gaizki ibilliko. Zer uste dek: guri zerutik etortzen zaigula?

Erramonek:

– Jesukristok esan omen zun, ba: «Eskatu ta emango zaizute». Baiña Arantzazu'ko praileak ere gugana etortzen dira. Aleberri'ko atsoak emanda ez dute asko izango orratio.

Amak:

– Bai; ura ere ire modukoa dek.

Aitak:

– Onen modukoa? Ez, ez. Arek ez du dirurik propinetan botako, Erramonek bezela. Irabazi bai, lana galanki egiñez.

Amak:

– Tira: aurtengo festak ondo dijoaz, ta Erramonek billatuko du zer egin. Juan Mari, zure garaia ere badator. Pozik al zaude edo?

Juan Marik:

– Pozez, Arantzazu'ra estudiantzera joan bear dedalako. Pena, zuek emen utzi bearra. Baiña txapel batekin bi buru ezin tapatu.

ERREKA

Festak pasa ziran. Juan Mari Arantzazu'rako prestaketetan asi zan. Aita-amak, seme zaarrenarekin etxeko lanetan zintzo. Erramon, berriz, Iparragirre'k esan zun bezela: Egun batean pobre, besteetan jauna.

Arantzabe'tik urruti gabe bada errekatxo bat, amorraitan aberatsa. Ur otza ta garbia izaki ta ango arraiak badute ixtimazioa.

Erramon arrantzalea zan; baiña kañaz etzun geiegi arrapatzen. Saldu ta dirua artzeko moduan ez beintzat. Ta onek xoxa bear nolabait ere.

Negu artan burutazio xelebrea izan zun gure mutillak: zakukada bat kare eskurazeko modua egin zun, da erreka erretzea pentsatu. Amorraiak nora saldu erabakia zeukan: Tolosa'ko Alkarte edo Soziedade batera.

Auzoko mutil koxkor Pellori aurrez esanda zegon, alkarrekin zer egin bear zuten. Au

pozik zan, naiz oera joateko itxurak egin da leiotik salta bearra izan. Gurasoak ez baizio-ten utziko bestela.

Illargi betea zegon gau bat aukeratu zuten, beren asmoak aurrera eramateko. Artu dituzte kare, parol, balde ta tresna guztiak.

Iritxi diranean pentsatutako lekura, or bota dituzte zakuko kare danak ur-salto batean. Laister ziran ango bizidunak, Hiroshima'n bonba atomika bota zutenean bezela. Tripaz gora danak, alajaiña! Ura zoramena bi auzokoak baldea betetzen, gaiñez egin arte! Beren ustez zakua naikoa bete zutenean, etxera.

Ala zion Erramonek:

– Itxasoan ere barkuren bat etorriko uan gutxiagorekin. Au dek mauka, au!

Auzoko mutikoari emango zion pozik mordoska bat; baña ortaz etxekoai pekatua agertu bearra zegon, da ori etzan komeni. Erramonek esan zion, saltatu zan leiotik ixilixilik sartzeko, ortarako urdare-zugaitz bat oso egoki baitzegon, iñori ezer ez esateko, ta propinatxoren bat noizbait emango ziola.

Amorraiez pardel ederra eginda, or dijoa gure Erramon Tolosa'ko jauntxo aiengana. Diru gozoa artu zun da pozik gure mutilla.

Erritarrak bereala konturatu ziran gertatu zanarekin. Ura zan ilketa! Nunai amorraia tripaz gora, txiki ta aundi, bereizketarik gabe. Etzan nolanaikoa zenbaiten asarrea. Erriko arrantzale jator batek:

– Au egin dunak, lepoa moztea merezi

dik. Eskuz edo sarez amorraiak arrapatzea, ori ez dek pekatu. Baiña erreka erre? Berak bear ditunak eta ez ditunak! Ori ez dago ametitzerik! Puska bateko arrantzak egin dizkiagu!

Beste batek:

– Au egin dunak, berak merezi du beste ainbeste.

Beste batek:

– Batere ez nitxokek arrituko Arantzabe'ko Erramon izatea. Ori inpernuan ere ez ditek artuko. Gaiñera, beti dirua badik, ta nundik?

Tolosa'ko sozio-zaleak bapo apaldu zuten, naiko amorrai janez. Ala zion batek:

– Erreka ziztorretako amorraiak grazi aparta ditek orratio.

Besteak:

– Izokia ona izango dek; baiña au ere...

Kanpaiak leku geitxotara zabaldu ziran, Erramonen pekatua ixilik gordetzeko. Apaltzen ari zirala, illuntze batean, guarda Arantzabe'ko atarian: *Dan! Dan!*

Etxeko danak:

– Nor ote da?

Iriki dute atea ta poz gutxi eman lezaken gizon serioa. Onela dio:

– Ez da garai egokia besteren etxera etortzeko; baiña eginkizunak dira lenengo, biar goizean ere goiz erten bearra daukat-eta.

– Zer berri dakarkizu, ba?

– Erramon etxean al da?

Amak onela zion berekiko:

– Orain ere badiagu berri ederren bat!

– Bai; pasa aurrera.

Erramoni begira, guardak:

– Begira, Erramon: leku segurutik jakin det Ganga'ko erreka zuk erre zendula joan dan asteartean, da kalte izugarri oien errudun zerala.

– Nik ez det orrelakorik egin! Ori nundik jakin dezu?

– Leku zuzenetik, ta alperrik ukatuko dezu.

– Nik esango dizut ezetz. Nere inbiritan bizi dan jende asko dago erri ontan. Ni galdu nai nauan txotxoloren batek esango zizun.

– Alperrik ukatuko didazu.

– Amorraizalea ni bakarrik naizela uste al dezu?

– Ori, zalea ez-ezik, kriminala izatea ere bada.

– Nik esan dizut nerea, ta nai dezuna egin.

Amak:

– Emen ez degu amorrairik ikusi.

Aitak, naiko asarre:

– Zuk zer uste dezu: gure mutilla bakarrik dala gaiztoa?

Guardak:

– Nik nere egitekoa bete det. Ortik aurrera, zuek atera kontuak. Gau on igaro.

– Berdin.

Ala, aldegin zun guardak, ta amak Erramoni:

– Egitan al diozu ezetz?

Erramonek:

– Nik esan dizkiot nereak. Ez daukat geiago esan bearrik.

Aitak:

– Egiak balio dik emen, egiak!

Txomiñek:

– Bateonbat izango da, ba, ori erre duna ere.

Erramonek:

– Erre dunari artu dezaiola kargu guarda txotxolo orrek ere. Obe luke, tabernan denbora gutxiago pasa ta errekak obetoago zainduko balitu. Ortarakoxe ordaintzen diote soldata; ez bestetarako.

Aitak:

– Estutu nauk, guarda ikusi dedanean. Ala ere ez dek ezer.

Era ortako mutilla zan Erramon. Etzitzaion azalik edozein moduz aldatuko.

Baña zer gertatu zan? Guardak guardizibillai parte eman zien, ixtori guztia kontatuz, ta auen eskuetan jarri zuan auzi guztia.

Iñor konturatzerako, goiz batez *berdeak* artu zuten Arantzabe'ko jira. Atea jo zun bateg: *Tan! Tan!*

Azkar pentsatu zun Erramonek zer gertatzen zan. Baita etxe-atzeko atetik igesi abiatu ere. Baiña berandu zan. Azkar bota zioten: *¡Alto!* Elbia armiarma-sarean erortzen dan bezela erori zan Erramon guardizibillen eskuetan. Azal lodikoa baldin bazan ere, mudatu zitzaizkion koloreak. Etzeukan ezer egiterik. Eskuak lotu zizkioten da, zegon be-

zelaxe, bi guardiren erdian, Tolosa'ko kuartelera eraman zuten.

Erriko jende geienak ikusi zuten. Bazan andik aurrera zer esana. Etxekoak, berriz, ortik onerakoak. Aitak:

– Arek ezetz esaten zun; baiña or zeozer izango da.

Amak:

– Jaungoiko maitea! Zer ikusteko ote gaude?

Txomiñek:

– Guarda naiko seguru etorri zan.

Aitak:

– Naiago nuke Amerika'ra aldegingo balu. Pasajea pozik ordainduko nioke. An ere ez litzake zuzen ibilliko. Baiña ez genduke jakingo beintzat bere pausorik eta kito!

Amak:

– Arek gezurra kolorerik aldatu gabe esaten du. Ni naiko bildur naiz.

Etzan jan-edanerako ta lanerako gogo aundirik Arantzabe'n. Aita, erropa txukun batzuk jantzi ta kuartelera, ea zer pasatzen zan jakin nairik. Kapitanak oso jator artu zun Juan Antonio ta onela esan zion:

– Zuen Erramonek aitortu du egindako pekatua. Jakiñaren gaiñean geunden bera zala; baiña berak esatea komeni zan. Oraintxe eraman dute Tolosa'ko kartzelara.

Juan Antoniok:

– Denbora luzerako izango al da?

Kapitanak:

– Ori guk ez dakigu. Baliteke Donosti'ra

eramatea. Ta, juizioa egiten diotenean, jakingo degu zenbat denborako zigorra dun. Nik ezin nezake geiago esan.

Juan Antoniok:

– Zer egin liteke, ori ateratzeagatik?

Kapitanak:

– Esan dizut justiziaren eskuetan dagola ta guk ezin genezakela ezer egin.

Juan Antoniok:

– Barkatu ta agur.

Kapitanak:

– Agur.

Triste erten zan Juan Antonio. Nola ez? Biurria baldin bazan ere, semea zun. Zer pentsatuko, ta etxera baiña lenago erriko alkatearengana joatea bururatu zitzaion. Alkatea dana jakinda zegon. Juan Antonio atean ikusi orduko, pentsatu ere bai zer mandatu zekarren.

Juan Antoniok:

– Agur, alkate jauna. Zurekin itzegin nai nuke, ea esku bat luzatzen diguzun.

Alkateak:

– Badakit zer berri dakarkizun. Zuek, amorrai goxoak diranean, ez dezute nere bearrik; baiña estuasun bat etortzen danean, orduan bai.

Juan Antoniok:

– Gizona, etzaitz orrela jarri. Guk egin-dako gaitzik ez dezu beintzat, nere ustez.

Alkateak:

– Exeri ta esan ditzagun gure gora-beerak.

Juan Antoniok:

– Begira: gure Erramon kartzelan dago. Guardizibil-kapitanarekin itzezin det. Justiziaren eskuetan omen dago guztia.

Alkateak:

– Nik mirariren bat egitea nai al dezu?

Juan Antoniok:

– Zuk gizon aundiakin izango dituzu artu-emanak. Guk itzegiten ere ez dakigu. Zuk, ordea, asko dezakezu. Gure seme ori ateratzen saiatuko baziña, portatuko nintzake ni ere.

Alkateak:

– Erramonek oker aundia dauka egiña. Ori ez da amorrai batzuk sarez edo eskuz arrapatzea. Erreka guztiari bizia kentzea gogorra da. Baiña alegiñean saiatuko naiz.

Juan Antoniok:

– Esan bezela orduan. Ea alegiñak egiten dituzun. Badakit zer prenda dan; baiña semea det.

Alkateak:

– Ondo da. Beste bat arte.

Juan Antoniok:

– Agur.

Malko mardulak boteaz agurtu zan aita. Alkatea gizon zakar samarra izanagatik, biotza samurtu zitzaion da buru-belarri asi zan Erramonen arazoa zuzendu nairik. Juan Antoniok esan zizkion gizon aundiakin itzegiten asi ere bai.

Urrengo egunean, ama joan zan kartzelara, etxeko puskarik goxoenak artuta. Ama

beti ama izan. Amaika aldiz esandakoa zertorkion gogora:

– Zer ikusteko ote gaude?

Andik bi egunera, alkatea Arantzabe'ra. Azkar atea zabaldu zioten.

Anttonik:

– Zer berri degu, alkate jauna? Zer berri?

Guk merezi añaan portatuko zera orain ere.

Alkateak:

– Alegiñak egiteko gaude beintzat.

Anttonik:

– Danen bearrak izango ditugu. Izan ere, gure mutil orrek, zer ez luke egingo? Izango ditu deabrukeri danak; baiña biotz ona ere badu, ba.

Alkateak:

– Dana txarra dunik ere ez da, ta dana ona degunik ere ez. Itzegin det ustez gizon itxurazkoakin.

Juan Antoniok:

– Aurki ertetzeko moduan ote da?

Alkateak:

– Gauza naiko itxusi zegon; baiña pixka bat itxuratuko degu, zuek nai badezute beintzat.

Amak:

– Guk nai? Bai, gizona, bai! Ori ez dago galdetu bearrak ere.

Alkateak:

– Erramon kartzelatik ateratzeko modua egingo genduke; baiña diru puska bat bear da, segituan gaiñera.

Juan Antoniok:

– Zenbat eskatzen dute?

Alkateak:

– Biar goizean biok joango gera, ta an esango digute. Aurrezki-Kutxako kartilla ere ar zazu, bada ez bada ere.

Urrengo goizean, or dijoaz biak Tolosa'-ko abogadu batengana. Onek argi ta garbi esan dizkie kontu guztiak eta nola dagon gauza: amar milla pezta depositatu nai badi-tuzte, urrengo egunean mutilla kanpoan zala.

Eskupeko ederra zan; baiña aitak etzun zalantzik egin. Diruak diru, semea nai zun etxean. Aurrezki-Kutxara joan, esandako sorta ori artu ta lajster zan abogadurenean.

Etixeratu zanean, emazteari esan zion ix-tori guztia, ta onek:

– Erramon erten dedilla beintzat. Ta zer esan dizute geiago?

Aitak:

– Egin dizkioten salaketak egiak ez badi-ra, jirako dizkigutela diruak.

Amak:

– Leku ederrean! Diru oiek ez ditugu be-rriz ikusiko. Amorraire garestiak erten zaizkio gizarajoari.

Aitak:

– Ari ez; baiña guri bai.

Amak:

– Gauz ori ez dago geiago aitatu bearrik. Eginda dago egin bear zana. Atzeari utzi pa-kean, da aurrera begiratu dezagun.

Urrengo egunean etxean zan Erramon. Berriro mundua bere esku zeukan, nai zun

bidea artu. Naiko arpegi illunak ikusten zintun etxean. Baiña erritik etzioten egiten, ikusi baizuten alperrik zala. Erramonek ala zion berekiko:

– Guardak eta guardizibillak ez dute errurik. Aiei parte eman dienak!... Aiei parte eman dienak!... Baneki zein dan, ikusiko luke bi ta bi zenbat diran.

Berriz ere zerbait pentsatu bearrean zangure mutilla. Dirurik gabe ez baitzion iñork ezer emango. Gurasoen aldetik naiko agortuta zegon iturria ta or ziran komeriak. Langille-eskea zegon nunaitik, basorako bezela etxegintzarako. Illabete baiño geiago etzun pasako, ez, asten zan lekuan. Baiña ala zi joan denbora, ta soldaduzkako garaia etorri zitzaion.

USTE GABEKO DEIA

Kuarteleko deia baiño lenago, beste bat izan zun, ordea; ta orduan ziran komeriak. Amak esana amaika aldiz:

– Txomin da Juan Mari santuen pareko dira. Au nundik erten zaigu olakoa? Zer oker egin ote gendun?

Neska gazte bat ama izateko zegola zabaldu zan errian. Ez kasta amutsekoa, gaiñera. Petraren alaba, alajaiña. Mingain luzeak bazuten zertaz itzezin: Alakorena izango zala; bat baiño geiago bazirala or ibilliak; etzala arritzekoa; ta abar.

Goiz batean, seiretarako, ate joka zan Petra Arantzabe'n. Anttoni jeiki berria zan. Sua pizten ari zan, kafea berotzeko. Atera erten zanean:

- Zer berri, Petra? Egun on Jaungoikoak.
- Egun on.
- Goiz zabilta.

- Ibilli bearako.
- Okerren bat edo?
- Zuzena ez beintzat.
- Nik ez dizut, ba, asmatuko.
- Erramon etxean al da?
- Oiean. Aurki jeikiko da. Goazen sukaldera.

Sukaldera sartu ta laister ziran Erramon da gaiñerakoak ere. Konturatu baitziran nor zan ate ondoan. Arantzabe'ko ardi beltza pekatari gendun orain ere; baiña etzegon ixilik gelditzeko.

Petrak:

- Zurekin itzegitera etorri naiz, Erramon.

Erramonek:

- Zer degu, ba, orren goiz ibiltzeko?

Petrak:

- Ibilli bearako, zu lenago ibilli ziñan-da.

Erramonek:

- Berriketak utzi ta azkar esan esan bearrekoa. Oiean ederki nengoana, zuregatik jeiki naiz.

Petrak:

- Loak aztuta ibillia zaude. Badakizu gure Madalen aurdun dagola; ta, sendagilleak esan dionez, iru illabete barru jaioko da, errurik ez dun aurtxo ori.

Anttonik, eskuak burura eramanez:

- Jesus, Maria ta Jose! Au ere bai? Zer bendizio du gure mutil onek? Joan adi inpernura ta ibilli nai deken bezela! Artaraka pakea izango diagu!

Aitak:

– Nik ez diat geiago lagunduko. Or konpon adi, nai dekena egiñez.

Erramonek:

– Ta zeñek esan dizu nerea dala?

Petrak:

– Ara berriz beste arta beroa! Zeñek esango zun? Berak, Erramon, berak!

Erramonek:

– Beste iñorengana ez al zera joan?

Petrak:

– Ez daukat joan bearrik.

Erramonek:

– Or azari geiago ere badira gero.

Petrak:

– Utzi ditzagun berriketak, Erramon. Okerra eginda dago ta zuzentzen saiatu bear degu. Ori bere bidean dator.

Erramonek:

– Bere bidean badator, ez dago zuzendu bearrik.

Petrak:

– Zure apellidoa eman bearko diogu beintzat. Soldaduzkatik etortzen zeranean, ezkonduko zerate. Bitartekoa egingo degu. Ez det uste gaizki esan dizutenik.

Erramonek:

– Apellidoa? Ez, ez. Nik ez diot nere apellidorik emango.

Petrak:

– Zu ez al zera sanoa edo zure odoleko landare bati ukatu bear al diozu nortasuna? Okerrera asten bagera, ez gera obeak izango.

Erramonek:

– Asi, nai badezu. Baiña geienaz ere nik letra bat emango diot.

Petrak:

– Ori ere entzun bear gendun! Erotua al zaude? Orrelakorik iñun etzan pasako orratio. Letra bat!...

Erramonek:

– Erotua? Or ibilli diran danak letra bana ematen badiote, apellido luze askoa izango du, etxekoandre.

Erramonek, ori esanda, alde egin zun, ez dakit nora. Etzan armoni ederra gelditu Arantzabe'ko sukaldean.

Petrak, erdi negarrearan da etxekoandreari begiratuz:

– Ori gaztea ta eroa egotea ez da arritzeko. Baiña zu ere ixildu egin zera. Bateonbategen luzatu bearko du eskua, errurik ez dunak dana ordaindu ez dezan.

Anttonik:

– Zuk badakizu ondo, nik ez dakitela nor dan errudun. Ez dakina ixilik egotea izaten da onena. Badakit gure Erramon santua ez dala; baiña geiago ere badira ollo-saldazaleak, ta ontaz aurrerako kontuak alperrikakoak izango dira.

Petrak:

– Alperrikako kontuak esateko gogorik ez daukat nik, ta ikusiko degu zer gertatzen dan.

Ala, aldegin zun Petrak, bere aotik armoni ederra zeriola.

Urrengo bixita erriko erretore don Brauliorengana egin zun.

Erretoreak:

- Zer degu, Petra? Zer berri?

Petrak:

- Zurekin itzegin bearrean naiz.

Erretoreak:

- Exeri patxaran, da esan ditzagun esan bearrekoak.

Petrak:

- Badakizu: ez da beste munduko gauzik.

Erretoreak:

- Esan, esan.

Petrak:

- Begira, erretore jauna: lenago ere gertatu izan dira-ta, gure alaba Madalen aurdun dago, ta sendagilleak esan digu iru illabete barru jaioko dala. Berak dionez, Arantzabe'ko Erramonena du. Gaur goizean izan naiz basarri ortan, da Fernando Amezketarraren ipuiakin artu ez naute, ba? Orrelakorik!... Nik ez daukat berriketako gogorik. Zuk asko dakizun eskero, arazo au nolabait konpontzea nai genduke.

Erretoreak:

- Mariaren alaben Kongregazioko Jauna artzeetara etorritz, dantza garbietan ibilliz, erretiro onak egiñez bizitzen dan neskatzak, ez du orrelako arazorik ekartzen. Apaizaren esanak txorakeritzat artu ta gero erretorearengana, pertza konpontzera! Etsaia iñoiz ez dago lo, ta atea ixtea komeni zaigu barrura

sartu baño len, kristau on baten biziera eramanez.

Petrak:

– Arrazoi dezu; baiña emen danak pekatariak gera. Ta, okerra eginda dagon ezkerok, zuzentzen daukagu saiatu bearra. Erramon ori jabetzea nai nuke nik, berea dun ezkerok.

Petrak ez uste arren, erretorea jakinda zegon, Madalenen berri sendagilleak esanda. Erramon bakarrik etzala pekataria ere bai.

Erretoreak:

– Begira, Petra: Arantzabe'tarrak pamili on bat badira ere, tartean badute ardi beltza, ta ori Erramon da. Arekin geiegi ez kontatu. Gaiñera, orain soldadu joan bearra du. Gauz auetan kontuz ibilli bear da, oiña nun jartzen degun dakigula. Bestela, oker bat zuzentzen asi ta aundiagoa egiteko arriskuan gaude. Esan zaiozu Madaleni nigana etortzeko ta itzegingo degula.

Petrak:

– Esango diot. Noiz etortzea nai dezu?

Erretoreak:

– Goizeko amarretatik aurrera, nai du-nean.

Ala etxeratu zan ama. Naigabetua, baiña itxaropen puska bat ere ikusten zun: Don Brauliok nola edo ala zerbait ere egingo zurenarena.

Alabari esan zizkion artutako enkarguak, ta urrengo goizean joateko erabakia artu zun Madalenek.

Amak:

– Ixilka ta ezkutuan ibiltzeko garaiak joan dira. Gauza dan bezela esan, da ea illunpe beltz ontatik ertetzen geran.

Alabak:

– Bai, bai. Nik egiak esango ditut.

Urrengo goizean, Madalen zintzo zan erretore-etxean, iñoiz txarteletara joan oi zan baiño zintzoago.

Erretoreak:

– Begira: atzo zuen ama zan amen. Arek esan zizkidan zure berriak. Orain, berri oiek al dan bide onenetik eramatea dagokigu, baiña borondate ona danok jartzen degula. Nere galderai egi-egitan erantzun bear diezu, aitor-keta batean bezela. Bestela alperrik gabilta.

Madalenek:

– Bai, jauna, bai.

Erretoreak:

– Zuk sabelean dezun da aurki jaioko dan aurtxo errugabe ori, noren bitartez ernea degun jakin bear degu.

Madalenek:

– Arantzabe'ko Erramonena.

Erretoreak:

– Besterik?

Ixilik gelditu zan Madalen, da erretoreak jarraitu zun:

– Begira: errugabeko baten etorkizuna jokatzen degu. Lizunkerri edo irristada batetik sortua bada ere, Jaungoikoaren seme edo alaba da. Zenbat urtean tratatu dezu Erramonekin?

Madalenek:

– Bi urtean.

Erretoreak:

– Erabat?

Madalenek:

– Erabat ez; alditxoak pasatzen zizkidan etorri gabe.

Erretoreak:

– Ta alditxo oietan, etxean egoten al zifan?

Madalenek, pixka bat gorrituta:

– Etxean ez; lagunekin da festara joaten nintzan.

Erretoreak:

– Ta etxerakoan?

Madalenek:

– Beti izaten zan norbait.

Erretoreak:

– Orduan batekin baiño geiagorekin ibilli zera, ta esan zaizkidazu garbi danen izenak, nik esatea baiño ohea izango da-ta.

Madalenek:

– Begira: nerekin geiena ibillitakoa Arantzabe'ko Erramon da. Baiña baita ere partea badute Altube'ko Austiñek, Mendiburu'ko Juan Joxek, Izotzeta'ko Andresek ta Txillardegik'ko Axintxiok:

Erretoreak:

– Demontre! Etzera batekin konpormatzekoa! Baiña ori eginda dago; ta, besterik ez badezu, etxera joan zifnezke. Zer berri ditudan, berriz ere esango dizutet.

Naiko buru-auste jarri zitzaion Don

Brauliori. Urrengo illuntzerako bost mutillai deitzea pentsatu zun.

Erramonek, deia artu zunean, Madalenen gora-beera izango zan susmoa artu zun. Lais-ter jakin ere bai zein ziran biltzekoak erretore-etxean. Don Braulio rengana baiño lenago alkartu ziran mutillak. Onela zion Erramonek:

– Petra atso ezpain-luze orrek jarritako saltsak zebiltzak emen. Obe zin, bere garaian alabari ondo kontu egin balio.

Altube'ko Austiñek:

– Gu izan gerala ez diat ukatuko. Baiña festetan emen azaldu zan txulo kale-ume lepo-igar ura, purgatoriotik animak ateratzen ibilli al zan?

Erramonek:

– Arri-jasaren berri ere ederki ikasita joan uan orratio.

Txillardegi'ko Axintxiok:

– Ura ez da Lizarreta'ra berriz etorriko, ez.

Izotzeta'ko Andresek:

– Bere ametsak bete izango zizkin neska txatxu orrekin, da orain gu eltzea konpontzeko.

Orrelako azpi-armoniak zebilzkiten alkarrekin gure mutillak; baiña zintzo bildu ziran esandako ordurako erretore-etxean. Don Braulio serio azaldu zitzaien da onela zion:

– Mutillak, arazo latz bat zuzendu bearean gatxaudek. Muniategi'ko Madalen aurdun zegok, zuek ondo dakizuten bezela. Be-

rak esan didanez, bostak zerate zer ikusi daukazutenak. Okerra egitea gizonarena dek; baiña baita zuzentzea ere, ta ortan saiatu bear diagu.

Mendiburu'ko Juan Joxek:

– Gu bostak bakarrik ibilli al gera?

Erretoreak:

– Berak dionez, bai. Ontan, berak esaten dunak dik indarra ta arrazoi osoa. Zuen ezezkoak ez dik balio.

Naiko estu ta larri jarri ziran mutillak, alkarri begiraka.

Erretoreak:

– Emen bi bide zeudek: Madalenekin norbait ezkondu, aur orren jabetza ezagutuz, edo danen artean legeak agintzen dun dirua osatu, errurik gabe mundura datorrenak irtenbidea izan dezan.

Don Brauliok gela itxi batean banan-banan artu zitun. Danak ezkontzaren ezezkoa eman zioten. Orduan, erretoreak etxera joan zitezkeela esan zien, da beren gurasoai dei egingo ziela, diru kontu ori osatzeko.

Izotzeta'ko Andresek:

– Diru ori osatzen badegu, gurasoak ez daukate zertan sarturik.

Erretoreak:

– Egia. Barkatu: nik uste nin etziñatela ortarako gai.

Erramonek:

– Ta zenbat diru bear du?

Erretoreak:

– Orain ezin nezake esan. Denbora asko

baño len bai, ordea. Etxeratu zaitezte. Badakizute zer daukazuten, da gogoan izan: larrosarik ez, arantzarik gabe.

Gure mutillak naiko kezkatu ertean ziran erretorearen etxetik. Erantzunik etzun galdera egiten zioten alkarri:

– Zenbat diru ote da?

Txillardegi'ko Axintxiok:

– Asko moduzko diru-pilla artzen badu atso zikin orrek, ez dek izango asarre. Berriz ere alaba bialduko dik larrera.

Altube'ko Austiñek:

– Orrelako okerrak batek bakarrik ere ordaindu izan dizkik; ta guk bosten artean ez ote diagu, ba, egingo?

Mendiburu'ko Juan Joxek:

– Zer esana pranko jarri diagu errian. Emakumeak, zertaz itzezin ez dakitela ez dituk izango.

Erramonek:

– Ori pasako dek aixena. Naiago nitek dirua baneuka.

Izotzeta'ko Andresek:

– Danon artean zerbait egingo diagu.

Mutillak diru-pentsamentu orrekin zebiltzala, Don Braulio Muniategi'n zebillen, trato itxurazko baten gauzak jartzen. Onela zion Madaleni ta onen amari:

– Zuk aitaturako bost mutillak bildu nitun etxean, da itzezin bear ziranak itzezin ere bai, ta ezkontzarako iñor ez da aurreratu. Beraz, ortik jai daukagu.

Petrak:

– Ta zer egin bear degu orain? Bateonbati galtzak kenduko dizkiot orratio nik!

Erretoreak:

– Lasai, etxeoandre, lasai! Beste bide bat ere badago, ta ori dirua da. Jaioko dan aurorrek gastu batzuk dauzka: jaiotze, jantzi, mantendu, eskola ta abar. Beraz, diru ori mutillak ordainduko dute. Baiña bi bide daude ortarako ere: dana batera edo illeko aïnbesteko bat, mugatzen dan urte artara arte.

Petrak:

– Nik dana baterako ori nai det. Illeroko orrek saltsa luzea ekarri lezake.

Erretoreak:

– Askoz garbiagoa da. Trato batera irixten bagera, ura ordaindu ta andik aurrera ba-koitza bere aldetik.

Petrak:

– Lotsagabe lizun oiek ez dira, ba, bi peztarekin libratuko!

Erretoreak:

– Zuek esan bear dezute lenengo itza ta asiko gera.

Petrak:

– Zuk ez dakizu ume bat zenbat kostatzen dan, lanean asi bitarte; baiña nik bai. Ta ogei ta bost milla duro bear ditugu gutxienez. Barkatu nere ausardia.

Erretoreak:

– Mingaiña neurri ere ez du ondo ematen. Danok errudunak geran ezkeru, kontzientzi batean itzegitea degu onena.

Petrak:

- Zu ere mutillen alde al zaude?

Erretoreak:

- Apaiz bat naizen aldetik, eta danon serbitzaria, ezker-eskubi berdin erreparaten det. Zuzentasunak utzita dabillenari, Jaungoikoaren kastigu bat ere etorri lezaioke.

Petrak:

- Guretzako kastigua etorria dago.

Erretoreak:

- Bai; Jaungoikoaren legetan ibiltzen ez geralako. Baiña entzun ondo: zigor ori biarko frutu izan liteke. Baita ere aur ori zuen salbatzallea. Jaungoikoaren bideak eta pentsamentuak iñork ez dakizkigu. Ark arrokeririk ez du maite; biotz apal ta suprituak bai, ordea.

Petrak:

- Zu erriko maisu ta artzai zaitugun ezker, zuregan uzten degu arazo guztia; ta Jaungoikoak nai duna gertatu dedilla.

Erretoreak:

- Begira: uste det amabost milla duro inguratuko ditudala mutil oiengandik, da nere kontzientzirako oso ondo dago. Beste bi gertakizun berdintsuak ezagutua nago, ta diru gutxiagorekin konpondu ziran.

Ama-alabak alkarri begiratu zioten, da konporme baleude bezelako itxurak egin ere bai. Gaiñera, alako diru-sortarik etzuten sekula etxean ezagutu.

Erretoreak:

- Konporme orduan?

Petrak:

– Baietz esan bearko degu, ta ea al dan azkarrena ekartzeko moduak egiten dituzun.

Erretoreak:

– Saiatuko naiz, ta laister arte.

Ama-alabak:

– Agur, agur.

Erretorearen urrengo lana mutillak biltzea izan zan. Auek naiko kezkatu inguratu ziran, zer entzun bear ote zuten. Erriko sasi-jakintsu oiek ari baitziran ainbeste izango zala ta ainbeste bear zala.

Erretoreak:

– Begira, gazteak: Muniategi'ko tratoak eginda daude. Badakizute Jaungoikoak pekatu rik aundiena ere barkatzen dula, damutu ezkeru. Baiña orren ordaiñez penitentzi bat, suprimentu bat, eskatzen du. Ta zuek egin dako pekatuaren penitentzia, amabost milla duro osatu ta pagatzea dezute.

Erramonek:

– Arraioa! Ori zazpi errosario esatea baiño okerragoa da.

Altube'ko Austiñek:

– Dirua pagatzeko penitentzirik ez degu izan oraindio baiña.

Erretoreak:

– Jaungoikoaren kontra bakarrik egiten danean pekatu, arek ez dik diru bearrik penitentziz. Baiña zuen gertakizun ontan famili bat dago naigabetua ta gastu batean sartua, ta ortarako dirua bear. Ori ulertzeko, ez dik asko jakin bearrik. Lenago esan dizutet amabost milla duro. Geiago nai ziteken; baiña

itzeginda konpontzen dituk gauzak, ta azke-
nean ortan gelditu giñun. Pekatari bakarra
izan balitz ere, alaxe bearko zin. Baiña bost
bazerate, eta amabosna milla pezta botata li-
bre zerate. Alde ortatea dezute.

Mendiburu'ko Juan Joxek:

– Noizko?

Erretoreak:

– Al dan azkarrena det ordena. Ni ere
orren aldekoa nauk: lenbailen bukatu auzia,
ta erriko marmarrak ere bai.

Erramonek:

– Ori da gutxienekoa.

Erretoreak:

– Beste ori ere osatu bearra zegok. Kon-
tuarekin etzegok ertenbiderik. Lagunak ere
ortarakoxe izaten dituk. Baxo-erdiak edate-
ko, edozein dek lagun. Baiña egitazko lagu-
nak olakoetan ezagutzen dituk. Ta esatekoak
esan dizkiagu ta orain obe dezute zintzo
etxeratu.

Mutillak:

– Bai, bai. Gau on pasa. Laister arte.

Erretoreak:

– Berdin zuek ere.

Bazuten zertaz itzezin gure mutillak,
erretore-etxetik erten ziranean. Erramon ez
beste danak, diruz osatzeko moduan ziran.
Baiña au xentimorik gabe arkitzen zan, da
etxe aldetik, berriz, etzun arrera ona itxaro.
Onela zien bere lagunai:

– Zuek moldatuko zerate; baiña nik? Ez
dek pekatu merkea neska zikin orrek egin

arazi diguna. Ukatu izan bagendu, libre gitxoan. Soldaduzka pasata banengo, Frantzi'ra iges egingo nikek, ta emen geratuko ituzkek Madalen, Petra ta sorgin guztiak.

Izotzeta'ko Andresek:

– Orain ere aldegin ezakek. Artaraka, soldaduzkatik ere libre agoke.

Erramonek:

– Bai; baiña geiago etortzerik ez. Ori ere tristea dek.

Altube'ko Austiñek:

– Ik ukatu esan dek. Ori etzegok ukatzerik. Bistan dagon gauza dek, eta ez al dakik berak esan dula zein geran? Eskatzen duten dirua eman beste biderik etzegok.

Erramonek:

– Ez daukanari kenduko dionik ez uan jaioko orratio.

Txillardegiko Axintxiok:

– Ori ala dek, ta guk geurekin zeukeagu naiko lan. Baiña i ere ez ago trantze ederrean. Pagatu gabe gelditzen baaiz, kapaz dituk soldaduzkara parte emateko. Militarra serioa izaten dek gero.

Erramon, lenaz gañera, asko estutu zan. Egiñalak egingo zitula, zion, diru billa.

Tolosa'ko amorrai-jale edo jauntxo oien-gana joan zan lenengo. Danak ezetza eman zioten, zer traste zan bapo ezagutzen zutenda.

Aitari umil-umil eskatzea pentsatu zun. Aita belardian bakarrik ari zan batean, onela esan zion bereganatuta:

– Aita, badakizu zer oker eginda gauden neska zikin orrekin.

Aitak:

– Orain al dezute zikiña?

Semeak:

– Don Braulio ibilli da orko tratoak egiten. Agidanean, bost mutil bagera partea degunak.

Aitak:

– Don Brauliok egingo zin trataoa; baiña zuek ordaindu bear. Ortarako izango dek ire inbusteri guztia, ez da?

Semeak:

– Amabosna milla pezta jarri bearrak dauzkagu, soldaduzkara joan bearrik ez banu, ez nuke oien bildurrik baiña. Gaiñera, nere lagunak diotenez, militarrai parte eman-go baliere, pagatu ez dedalako auskalo zer pasako litzaken.

Aitak, ixillune baten ondoren:

– Ona baaiz, txarra baaiz, semea aiz. Lenaz gaiñera, ezin jarriko diagu ixkanbilla geiago, ta datorren astean izango dituk amabost milla pezeta. Baiña soldaduzka ortan nola ibilli, erorrek pentsatuko dek, gure etxe-ko doteak ederki jasoak izango dituk-eta.

Ori entzun zunean, etzan asarre gure Erramon. Arnaskada ederrak bota zitun. Onela zion berekiko:

– Soldaduzka pasako diat, bai, nik.

Urrengo ostegunez, erretore-etxean ziran bost gazteak esandako diruarekin. Baiña aurrez tentazio txiki batzuk izan zituzten.

Erramonek:

– Aldegingo al degu bostak diru guztiarekin?

Txillardegi'ko Axintxiok:

– Ori egingo genikek errezena. Ta diruak gastatzean, zer? Kartzelara...

Erramonek:

– Bitartean ondo pasako genikek beintzat.

Altube'ko Austiñek:

– Idea ederrak dauzkak ik orain ere. Entregatu ditzagun al dan azkarrena, ta aztu gaitezen betiko.

Baiña mutillak naiko goibel ziran, sekulan beren eskuetan ikusi etzuten pilla baitzan.

Amabost milla duro Don Braulioren eskuetan utzi zituztenean, onek konseju on pranko eman zizkien gure gazteai, aurre-rantzean bide zuzenez ibiltzeko ta abar esanez.

Gure erretorea, esandako sortarekin zintzo joan zan Muniategi'ra. Etziran asarre ama-alabak. Onela zion Petrak:

– Endredo pranko ibilli dezu, gu geralako medio; ta zenbat ordaindu bear dizugu?

Erretoreak:

– Ezer ez! Ezer ez! Gu ortarakoxe gaude: gorputz-animai laguntzeko.

Petrak:

– Zu bezelako gizonak balira danak, mundu au askoz obetoago ibilliko litzake.

Erretoreak:

– Mundua danon artean konpondu bear degu, pixkana-pixkana gaiñera, bakoitza al degun neurrian saiatuz.

Petrak:

– Ezer asko ez da; baiña tori ogei duroko au. Meza pare bat edo zerorrek derizkiozuna atera gure suerte onerako.

Erretoreak:

– Ondo da! Ondo da! Eskerrik asko! Ea gauzak nai bezela ateratzen zaizkizuten.

Onela bukatu ziran Muniategi'ko artuemanak.

AFRIKA'RA

Arantzabe'ko auzorik gertuena Zumiztegi zan. Bertako nagusi jauna gripe txar batek artu zun mendean. Oraindik famili gaztetxo zutelarik, estu ta larri gertatu ziran, da etxe-koandrea or dator Erramonengana laguntza-eske, bear zun soldata ere ordainduko ziola esanez.

Etzan asarre gure Erramon. Xentimorik gabe zegon da aurki soldadu joan bearra, ta etxeko artzekoak artuak zeuzkan.

Sekulan platera bat autsi gabea balitz bezela saiatu zan gure soldadu-gaia. Ogei egun barru txisportu zan nagusi jauna. Baiña Arantzabe'ko mutikoak, deia etorri zitzaion arte, bertan jarraitu zuan.

Martxoaren azken aldera etorri zitzaion soldadu joateko deia. Afrika'raño, alajaiña.

Eskupeko ederra eman zion Zumiztegi'ko etxekoandreak. Erramonek etzun ainbesteko

rik espero. Zoriontsurik iñor bazan, zoriontsu zan. Gaiñera, kartak eskribitzeko esan zion, oroituko zala-ta.

Amak jarri zizkion erropak eta gaiñerakoak txukun asko. Gurasoa beti guraso izaten da ta agurtzerakoan dirua ere bai. Loteria egokitu balitzaio bezela joan zan gure mutilla.

Onela zion amak:

– Soldaduzka txarra omen da; baiña gure Erramonentzako mesedegarri izan liteke. Ea pixka bat zuzentzen duten. An ez da aita-amarekin bezela libratuko. Ez orixe!

Aitak:

– Len baiño okerragoa etortzeko ere... Militarrak espiritu santuak dirala uste al dezu?

Amak:

– Ederki gaude orduan!

Txomiñek:

– Berak aterako ditu bere kontuak.

Ogei bat egunera izan zuten Arantzabe'n Erramonen karta. Onela zion:

«Nere guraso ta etxeakoak:

Bost egun dira Afrika'ko leku parregarri auetara iritxi giñala. Oso ondo etorri giñan da ori da bearrena.

Emen ez dago Euskalerriko konturik. Au dana miseria da. Madrid'en pasa gendun egun bat, eta Algeciras'en bestea. Bide oietan ez degu eskalea besterik ikusi. Danak ijitoak ote diran ematen du. Españi'ko uriburuan, jenderik ezin da kabitu, lur azpitik eta

gaiñetik ibilli arren. Algeciras'en, berriz, itxas-portua danez, mobimentu izugarria dago.

Alkazarkibir ontara ez giñan nai orduko iritxi. Ordu-mordo bat pasa gendun itxaso txarrarekin, da olakoetan penagarria izango da barkua. Barrunen genitun danak bota genitun. Etzan ibillaldi motza, arranek ezik!

Emengo au, berriz, bizimodu latza da. Bi-bote zorrotzak dauzkate militar auek. Agi aldeko pagadian arrapatuko banu emen dabilen kabo kaxkar au, ikusiko luke *uno-dos* zenbat diran.

Jana, berriz, oso gaizki ematen digute. Olioaren partez ura ibiltzen dutela esango nuke. Aragia, berriz, usteldutako zaldi zarren batena izango da.

Kale aldeko berri ez dakigu askorik, pasiora ertetzen oraindik ez digute utzi-ta. Baiña moro zikin oiek izan bear dute ugari.

Eguraldia, berriz, orko aldean beroa. Orain onela ta udaran ez da giro izango.

Euskaldunak ere bagera lagun-mordo bat. Oraindik badet dirua; baiña urrengo kartan eskatuko dizutet. Lau anai ta lauak soldadu joan bearra ere egokitu izan da etxe askotan. Gu bagera iru; baiña kastigu au neretzako bakarrik izango da gure etxean. Txomin libratu zan. Beste praile ori, berriz, onuzkero seguratua izango da. Obe nun nik ere Arantzazu'ra joan izan banintz. Praile-jantzi ori ez da ederra; baiña emen dabilkigun au ez da ohea.

Beste konturik ez det. Ondo izan, aita ta ama, senide ta gaiñerakoak. Eskumiñak dainai, ta zuenaren zai gelditzen naiz, zuen seme: Erramon.

Nere señak auek dira: Erramon Zubillaga Iriberry, *Grupo de Regulares, Larache n° 4, 10ª Cía. Alcazarquivir, Marruecos.*»

Arantzabe'tarrak poztu ziran, karta ori irakurri zutenean. Onela zion amak:

- Militarrak txarrak dirala? Zerbaiten bearra ere bai arek. An guraso zorrotzak izango ditu.

Aitak:

- Aurki diru-eske degu, artzeko asko baleuka bezela. Lau anai ta lauak joan bearra izaten dutela... Etxe askotako bost ta sei ez al dira obeak, alako bakarra baiño?

Txomiñek:

- Arek eskatzen dun guztietan bialtzen badiogu, txuri egingo degu, Tolosa'ko Bankurik aundienean dauden guztiak derrotxatuko lituzke-ta.

Amak:

- Jaungoikoak danok neurtzen gaitu, asko dituztenak asko dituztelako, ta gutxi ditugunak, berriz,... Erabateko zorionik daukanik ez da izango munduan.

Aitak:

- Bai; baiña neurriak guk artu bear, ta Erramon bezelakoari, berriz, geiago.

Aurreruntz ere izan zituzten, -nola ez?-, artu-eman ugari karten bidez, nai aiña diru bialtzen ez bazioten ere.

Arantzabe'ko senar-emazteak oso gustora zebiltzan beren seme zaarrenarekin nekazari munduan.

Erramonen berri txarrik ere etzuten, da aurrera. Gazte denbora txoroa izaten da. Badira gerora zentzatutako ugari. Itxaropen orizuten Arantzabe'ko biurriarekin ere.

Juan Mari, berriz, oso ondo zijoan praille-bidean. Etxera idatzi zun karta batean, au zion:

Latiña eta griegoa menderatu zitula; Filosofia eta Teolojia falta zitzaizkiola; meza emateko gero ta gogo geiago zeukala; ta, Jaungoikoak nai bazun, ura mixio-lurraldeetara joango zala.

Au zion amak:

- Arantzazu urruti dagola esaten degu? Bere asmo oiek egi biurtzen badira, ez da Gaztelu'n edo Lizartza'n geldituko, alajaiña!

Aitak:

- Dabiltzela, dabiltzela! Aspertuko dira, bai!

Txomiñek:

- Auek aiñako parajerik ez dute billatuko. Erramoni ere emengo parrandak gogortuko zaizkio.

Amak:

- Borondate onarekin dabillenari, Jaungoikoak lagunduko dio.

Beste lagun batzun bidez jakin zanez, Erramon iñoiz ibilli zan zintzoena zebillen. Kabo izatera ere iritxi zan, da oso istimatua gaiñera.

Lengo bertsolari batek ziona: patrikan dirurik etzuna zala mutillik zuzenena, ta orixe gertatzen zitzaion Arantzabe'koari.

Erramonek naiko ondo ikasi zun Afrika aldeko berri. Emengo aldean gauz merkeak ere ikusten zitun. Aiek an erosi eta emen salduz, irabazia bazegon. Baiña dirurik ez gizarajoak.

Lizentziatzeko garaia etorri zanean, danak aztu zitun Erramonek: Afrika, soldaduzka ta abar. Euskalerria zun amets. Ala zion berekiko:

– Emen geldituko dituk militarrek, moroak eta gaiñontzekoak. Nai dutena egin dezatela. Jaungoikoak osasuna ematen badit, izango diat, bai, dirua nik ere.

Gure mutilla soldaduzkan zuzen ibilliko zan. Baiña etxeratu orduko asi zan bere barrabaskeriakin, da etxekoen lotsarako geientan. Amak mantenua emango zion. Baiña Erramonek dirua bear zun, da or zitun bere komeriak.

Gaiñera, bolaraz diru asko dantzatzen zun. Onela zioten erritar geienak:

– Nola demontre sortzen ote dik orrek dirua? Guk baiño meritu geiago zeukak.

Diru asko etzun ibilliko, ez, poltsan. Baiña zun guztiari azkar ematen zion erteera. Ta Lizarreta'n, geienak ain zintzoak izanik, ori nabarmen gertatzen.

LAZOAN

Agoztuaren 30'an bukatu ziran, oitura bezela, Lizarreta'ko festak. Gazteen egunarekin ain zuzen.

Urrengo egunean ere, belar-giro ederra zan, da astelena. Arantzabe'koak azken belarrak palta zituzten etxeratzeko, ta Erramon ez beste danak Sorgiñeta'n ziran, izardi ederrak boteaz.

Arratsaldeko zazpirak alde ortan, karrasi izugarriak entzun zituzten naiko urrutian. Alkarri begiratu ta:

– Zer ote da?

Etxeratu ziranean jakin zuten berria: Bordaberri'ko Joxe Mari il zutela, Telleri'tik beeraxeago, seguru asko lapurren batzuk.

Bazan zer esana, ta tristura ederra jarri zan Lizarreta ta inguruetan.

Zer dala-ta il zuten? Joxe Marik, perizalea izanez, astelen gutxi igaroko zitun To-

losa'ratu gabe. Aldi ontan, berriz, iñoiz baiño motibo geiagorekin aurkitzen zan: bere pariente indiano bat, etorri berria, Tolosa'n bizi baitzan.

Esandako astelen ortan ere, alkarrekin ibilli ziran; da, Pelipanean amaiketakoa egiñez, diru-mordoska bat eman dio Bordaberri'ri dalako amerikanoak. Ta lapurrak, begietan makarrik gabeak diranez, an egokitu ta bai ederki ikusi ere.

Joxe Marik, esandako diru oiek, arrantxoa egin zuten tabernan bertan eman zizkion bere ezagun bankero bati, etxean oraingoz aien bearrik etzeukala, eta urrengo astelenean bilduko zirala Bankuan da pape-rak zuzenduko zituztela alkarri esanez.

Gertakizun ori lapurrak etzuten ikusi, ta ortatik etorri zan okerra. Andik aurrera bai: bapo zaindu zuten Bordaberri'tarra.

Amaiketako-bazkari ori eginda, beste jira bat eman zuten perian adiskide miñak, gazte denborako ta Ameriketako kontu ugari esanez.

Sagardotegi batean egarriak kendu ondoren, arratsaldeko seirak inguruan, etxeruntz abiatu zan Joxe Mari, jakiña, oiñez, txoria baiño kontentuago. Etzun asko pentsatuko atzetik nortzuk zebilzkin zaintzen da zer zertorkion.

Lizarreta'ra iritxi baiño lenago, naiko leku bakartian, eldu diote bi gizonek, bota dute erreka-bazterrera, ta labanaren antzeko

batekin sastaka-sastaka azken arnasa eman arazi diote, ain pozik zetorren gizonari.

Beartsuaren pozak gutxi irauten dula dio esaera zaarrak, da orixe gertatu zitzaion Joxe Mari gizarajoari ere.

Uste gabekoa gertatu zitzaien gaizkille bildurgarriai ere: alako azioa egin da pezeta batzuk bakarrik patrikan. Usteak ustel auentzat ere.

Oso urruti gabe, Martin Birauz tratalaria zetorren, bei eder batekin, etxera. Onek ikusi zun nola bi gazte belardian gora igesi zijoazten. Baiña besterik ez.

Guardiazibillak laister asi ziran iltzallearen billa, jo batera ta jo bestera.

Goiz batean, Arantzabe'ra Erramonen billa, alajaiña. Onen susmoa ere norbaitek emango zien noski. Lenaz gaiñera bazan naiko naigabe etxe bedeinkatu ortan. Artu dute gure mutilla eta kartzelara.

Bere guraso eta senideak naiko naigabe izanak ziran len ere Erramonekin. Baiña oraingo onek danak autsiko zitun. Arantzabe'ko mutilla gizon-iltzalle ote da? Erabaki sendo bat artu zuten: Gertatzen zana gertatu zedilla; baiña iñoiz etxera etortzen bazan, seme ta senide bezela ez ezagutzea.

Milla iritzi zebiltzan errian. Baiña geienak, Erramon etzala izango Joxe Mari il zuna zioten. Arantzabe'tarrak etzula orrelakorik egin. Arkume edo ardiren bat paltatu izan balitz sikira, sinistekoa zala. Baiña...

Kontuak kontu, iritziak iritzi, Erramon itzalean zeukaten, da ama gaixo ura egunero, ta egunean askotan gaiñera, otoitzean Ama Birjiñari ta beste ainbat santuri. Ama bakarra izaten baita munduan.

Zortzi egun barru, iñork uste etzula, Erramon berriz ere etxera. Etxetar danak poztu ziran.

Amak:

– Baiña, seme: Bordaberri'ko Joxe Mari ez uan ilko orratio?

Erramonek:

– Ama, mundu xelege au orrelaxe dago, errurik ez dunak pagatzeko. Zuen aurrean da Jaungoikoaren aurrean ere berdin esango det: nik ez dedala iñor il. Guardiazibillak baiño erru geiago dutenen batzuk badaude gure erri ontan. Aiei nork esan die ni izango nintzala seguru asko? Jakiten badet zein dan, jakingo det zer egin. Errudun izan banintz, onen azkar libratzea uste al dezu? Ertetzerakoan, garbi asko esan zidan juezak, erru txikienik ere ez nula ta barkatzeko; gaizkillea arrapatuko bazan, onelakoxe jokabideak bear zirala. Ta nik au esan nion: «Or pasatu dedan denbora ta sufritu ditutenak, nork ordaindu bear dizkit?» Ala erantzun zidan juez txotxolo arek: Aurretik santua izan banintz, etzala orrelakorik gertatuko, ta kontentu egon nintekela egun oiengatik; ugariago paseak asko izaten zirala; Jaungoikoak, berriz, danak ikusten zitula, ta oraindik ordainduko zidala suerte onarekin.

Amak:

– Nolabaitekoa baldin baaiz ere, irixten zaizkik ederrak. Baiña juez ark egia pranko esan zin. Erri ontan edo inguruan zerbait pasatzen bada, berriz ere etorriko dituk ire billa. Jabetzen al aiz, ona izatetik gaiztoa izatera zer alde dagon?

Erramonek:

– Santuak aldarean bakarrik ikusten ditut orratio nik...

Amak:

– Naikoa diagu. Etorri aiz beintzat-eta.

Zer gertatu zan? Leenago esan dedan bezela, Joxe Mariren iltzalleak igesi nola zijoazten, atzeragotik zetorren Martin Birauz'ek ikusi zitun. Erritarrak etzerala ere ziartu zegon.

Erramonen berri jakin zunean, azkar joan zan alkate jaunarengana. Ondoren, erriko agintaria ta biak Tolosa'ko kuartelera zuzendu ziran, Erramon etzala Joxe Mari il zuna ta motiko ura errurik gabe zeukatela esanez.

Erriko erretore jaunari ta abar eskatu ziztuzten inporme geiago guardiazibil oiek, ta garbi ikusi zuten Erramon erru gabea zala.

Ala, askatu zuten gure Arantzabe'tarra.

Orain ikusiko degunez, Joxe Mariren iltzalleak Amerika'raiño joateko modu egin zuten, emengo zigor-bildurrez noski. Andik urte-mordo batera, eriotzako ordua iritxi aiei ere, ta trantze estu artan aitortu omen zuten Joxe Mari aiek il zutela; ta, aien erruz iñor kartzelan baldin bazegon, askatzeko.

Joxe Mari il zuten leku ortan bertan, arrizko gurutze bat jarri zuten pamilikoak, gertakizunaren oroigarri ta otoitz bat eskatuz. Ta gaur ere antxe dago, iñork nai badu ikusi.

BERRIZ ERE ZER PENTSA

Berriz ere zer pentsa zebillen gure Erramon. Eltzekirik etzitzaion palta etxe aldetik. Baiña orrekin bakarrik etzan konporme gure mutilla.

Ala zebillela, Naparro'ko Zugarramurdi'ra jira bat egitea pentsatu zun. Soldadu lagun bat zun erri ortan, da ark esanda ondo zekizkin ango berriak: kontrabandoko bizitza, alegia; ta diru orrek ematen zion inbiri.

Naiko bero zegon gure mutilla. Baiña nappar lagun orrek oraindik geiago berotu zun. Begi argiak lo batzuk galdu ezkeron naiko diru irixten dala esan ez dio, ba? Gaiñera, lagun orrek, aitzakitarako, morroi-leku bat biilatuko ziola esan zion.

Laister bota zitun zalantzak. Etxera etorri ta gurasoai esan zien zer asmo zitun. Da soldaduzkako maleta berriz ere erropaz bete ta

anka egiteko prest jarri zan, «Alakoren batean azalduko naiz» esanda.

Amak:

– Joan adi, joan adi ta suerte ona izan zak.

Aitak:

– Kontrabandoan ibiltzeko-ta aproposa aiz. Illargiak eta izarrak bazekitek ire berri len ere. Baiña beldur nauk bestē norbaitzuk ere ez ote duten jakingo.

Txomiñek:

– Guardiazibillakin ere lagun aiz eta konpondu adi nai dekan bezela.

Erramon joan zanean, amak:

– Nun dago Zugarramurdi ori?

Aitak:

– Elizondo'tik gora joanda, Prantzi'rekin muga-mugan.

Txomiñek:

– Ori Paris alderaiño joango da orain-goan.

Aitak:

– Dijoala ta utzi dezaigula guri pakean.

Erramon berealaxe zan bizi-leku berrian. Naiko morroi-toki polita gaiñera, muga pamatu ortara arrikada bat bide zula.

Nagusiak onela esan zion:

– Bazekiat i morroi bakarrik ez aizela etorri. Orregatik, ire soldata, mantenua ta oia izango dek. Lana, berriz, ardi ta beor oiek zaindu, negurako egurra preparatu ta bada-kik basarrian zer lan izaten diran, gutxi gorabeera. Emen, ire edadeko mutillak, geienak

kontrabandoan ibiltzen dituk. Batzuk beren kontura ta besteak nagusiren baten kontura. Nik baiño obeto esango dizkik kontu oiek soldadu lagun orrek. Ori ez dek makala lan-tegi ortan.

Erramonek:

– Bai; illuntzean erriko ostatura joateko esan dit, ta an itzegingo degula.

Esan bezela, esandako lekuan bildu ziran arratsean. Lagun zaar ori naiko zakur zaarra zan gaueko negozio oietan. Gure Erramon aren esanetara jarri zan, morroi-tokia ere be-rak billatu zion-da.

Naparro'ko bizitza ortan bi nagusi izango zitun andik aurrera: bat basarrikoa ta bestea kontrabandokoa.

Billera ortatik naiko pozik etxeratu zan. Onela itzezin baitzion lagun zaar orrek:

– Begira: nere esanak ongi entzun itzak. Lantegi ortan, egunez lo puska bat egitea ko-meni dek. Bestela, gaua astuna ta pisua izan-go dek. Pentsatu karabiñero ta guardiazibil oiek argi izango ditugula ta anka bizkorrak sarri astindu bearrean izango generala. Baiña kontrabandistaren alderdirik onenak ixilla izatea ta galdezka asten danari gezurrez erantzutea dituk. Ta denborarekin ikasiko dituk gaiñontzeko tranpak.

Erramonek:

– Ta gauean ibilli aundiak egin bear al ditugu?

Soldadu lagunak:

– Ez. Ainhoa edo ingurutik artuko diz-

kiagu paketeak da abar. Batzutan, Elizondo'-raino eraman ibillaldi batean. Urrena, emengo mendi-tarte auetan gorde, urrengo ekiñaldian bear dan lekuraiño eramateko.

Erramonek:

– Mugatik onuntz pasa ezker, ez al da naikoa?

Soldadu lagunak:

– Auek erri txikiak dituk, ta auetan nabarmenkeririk ez dek komeni. Elizondo, berriz, mobimentu aundiko lekua izanik, errez pasatzen dituk gauzak. Kontrabandoarekin ibiltzeko, zenbat eta bide txarragoa, obe. Pentsatu bear dek leku ederrean eta paso onetan karabiñeroak ere aixago ibiltzen dirala, ta alderdi auetan naiko ugari. Orain kontu danak esatea alper lana dek. Oiek denborarekin ikasiko dituk. Baiña aste onen azken aldera joan bear diagu Sara'ra, ango lagun batzuk ezagutu itzaken. Gaiñera, nerekin beti ez aiz ibilliko, aldika-aldika Paris'era joan bearra ere izaten diat-eta.

Erramonek:

– Ta nola ez, pakete edo diranak dirala, astoakin edo beorreakin ibilli?

Soldadu lagunak:

– A gizarajo zaarra! Ez dek ikusten, guardirik egokitzen bada, al dan azkarren aldegin bear dala, lekurik izkutuenean paketeak botata? Ta eguna argitu baiño leenago ondo gorde, inguruan guardirik ez badek beintzat. Ibilli oietan zigarro eta poxpolorik piztutzea

ere ez dek komeni. Neurri danak ere gutxiegi izango dituk askotan.

Erramonek:

– Eta iñoiz arrapatuko baniñute?

Soldadu lagunak:

– Orrelakorik balitz, edorri egin ere bu-ruaren jabe ta beste iñoren izenik ez eman, zartakoren batzuk artu bear badituk ere.

Erramonek:

– Guardi oiek jende asko lotu izan al dute?

Soldadu lagunak:

– Lan ortan ibiltzen geran jende-pillaren konpormidadean, oso gutxi. Ta arrapatu dituzten geienak, beren erruz, txotxoloak diralako. Zenbait, bi pezeta patrikan ikusi orduko, ezin egonik eta berritxu utsa jartzen dek. Orrelakoak obe likek kontrabandoa utzi ta ikazkintzan astea. Bere bizitza eguzkirik ikusi gabe igarotzeko arrisku ederra zeukak. Gaiñera, emen bururatzen etzaizkigun gauzak gertatu litezkek. Norberak jakin bear bere burua babesten, da opizioak erakusten dik nola jokatu. Leen ere emen gertatu uan: Gizona gaua pasa ta bazetorrek goizean etxera, zakua bizkarrean dula. Ala-moduzko jantziak ere izango zizkin, ta bera etorri-zai guardiazibillak ezkaratzean. Atarira baiño leen, ikusi dizkik nola dauden. Erabaki bat azkar artu bearrean uan. Igesi abiatzen bada, bera nabarmentzen dek. Zer egingo ta, eska-lea balitz bezela, ate ondora etorri kerik egin gabe ta eskean asi aita-gurea errezatuz. An-

dreak limosnatxoa eman, ezagutu ez balu bezela. Ta gure gizonak, emandakoa apal-apal artu, eskerrak eman da anka, guardiazibillai ziri ederra sartuta. Ikusten al dek senar-emazte aien eskola? Aien patxara ta argitasuna, trantze estu artatik ateratzeko? Kontra-bandoan, orrelako edo antzeko teatro asko egin bear izaten dek.

Erramonek:

– Arraioa! Unibersidadean ibilliak ez itun izango, baiña ez makalak ere. Ja, ja, ja! Guardiazibillak izurratu zizkiteken ederki.

Soldadu lagunak:

– Tontoak iñorako ez dik balio, ta bearrak erakusten dizkik emen eskolak.

Erramonek:

– Or aruntzan dauden kueba edo ar-zulo oietan ibilliko uan kontrabandista pranko?

Soldadu lagunak:

– Ez diat esango ibilli ez danik. Baiña zulo oiek leku jakiñegiak dituk lantegi ortarako. Jende askok dakin ziza-larretik ez dek ziza onik aterako. Leen ere esan diat bide ez-kutuak eta arriskutsuak komeni dirala or. Ta oraintxe erretiratzeko garaia ere badiagu. Beste *likar* bana artu dezagun, Erramon, da goazemak bakoitza geuren etxetara. Nik deituko diat. Bitartean lasai. Ta gau on igaro.

Erramonek:

– Berdin. Eta zai egongo nauk.

Onela bukatu zan arrats artako billera. Erramon pozez txoratzen etxeratu zan.

Ikusi zun bere soldadu lagunak dirua

ur-aparra bezela zebilkila; ta au, Afrika aldean ibilli zanean, Erramonen antzekoa zan, poltsa aldetik beintzat.

Astelen-arratsalde batean deitu zion soldadu lagun Jeronimok Erramoni, illuntzeko seiretarako alako lekutara azaltzeko.

Geroztik ibillera pranko egin zuten alkarrekin. Gure Erramon ari zan opizioa ikasten da oso pozik bizi zan. Orrelako diru-pillakin ibilli bear zunik ez baitzun iñoiz pentsatu.

MEZA BERRIA TA EZKONTZA

Udaberri artan berri pozgarria jaso zuten Arantzabe'n Arantzazu'tik. Alegia, urrengo udaran meza berria emango zula Juan Marik, Jaungoikoa lagun; da aurki etorriko zala eguna aukeratzera, ta nola moldatu nai zan itzegingo zutela.

Etziran asarre gurasoak. Onela zion amak:

– Berri txarrak bakarrik ez ditugu izaten orratio... Nork esan bear zun praile eskale ark orrelako miraririk egin bear zunik? Gizarajoa bizi balitz... Zerutik ikusiko al gaitu ta gaitz erdi.

Aitak:

– Bai; berri pozgarria. Baiña bestelakoa pranko izan degu aspaldian. Alde ederreko semeak erten zaizkigu, arranek ezik!

Amak:

– Bai. Baiña gauz garratzak gozatzeko

azukrea jarri zun Jaungoikoak. Ta, garraztasun oiek pazientziz eraman ezkeru, etorriko da zoriona, orain guri etorri zaigun bezela. Gaiñera, gure Erramon esango nuke arrastuan sartu dutela Zugarramurdi alde ortan. Aspaldian ondo dabillen berria besterik ez degu beintzat, eta dabilela. Urteak ere ez dira lagun txarrak arrastuan sartzeko.

Aitak:

– Ala izan dedilla! Ala izan dedilla!

Beste erabaki pozgarri bat ere artu zuten Arantzabe'tarrak. Txomin seme zaarrenak bi urte andregaiarekin zeramazkin, da au ezkondu ta besteak meza berria eman egun batean egitea ederra izango litzakela bururatu etzaie, ba?

Zorioneko egun ori San Inazio eguna aukeratu zuten. Erretore ta alkate jaunarekin izketatu ziran noiz eta nola egin gauzak. Aide edo pariente danai parte pasazieten. Iñoiz bada, Lizarreta'rako, ta batez ere Arantzabe'rako, egun gogoangarria zetorren. Errian etzan bestetzaz itzegiten.

Iritxi zan pare gabeko egun ori ere. Eliza ta erriko plaza ere txikiegi gertatu ziran. Elizaren sarreran idatzi au zegon jarria:

– Bat, Jaungoikoaren da gizonaren bitarteko; bestea, ondorenak sortzeko.

Meza-denboran, txorabiatu ta lurrera eroriak ere baziran. Olakorik!...

Meza Nagusi ondoren, txistulariak eta apaiz gaztearen lagunak kanta-aldi eder bat eman zuten erriko plazan. Eztarriak bapo

urratuko zituzten. Salda beroa ta tragoxka batzuk artzeko, ai zer sasoia jarri zitzaien!

Ondoren, basarriko mandio zabalean, bazkaria. Zekor eder bat illa zuten lau egun leenagotik. Naparro'tik ardoa ere ekarria zeukaten, da etzan gose-egarririk.

Bazkal ondoko umorea ikusi egin bear zan. Bazirudin zerua bertara jetxi zala.

Erramon ere, sekulan baiño pormalago, alajaiñetan. Ala zioten askok:

- Orain ez dala miraririk egiten? Bai, mutillak, bai! Ori dek aldaketa! Ta dirua ere sekulan baiño geiago zebilkik. Zugarramurdi'ko sorgin oiek etziotek kalterik egin.

Nai baiño leenago etorri zitzaien illunabarra, ta jende geienak beren etxeetarako bidea artu zun.

Ezkon berriak ere Zaragoza alde ori ikusteko asmotan erten ziran, ainbeste aldiz amestu zutena beren eskuetan zeukatela pentsatuta.

Erramon ere etzan etxean egoteko ona. Altzo'n festak ziran, da Amezketan morroi ibilli zanean egindako lagun zaarrak ikusi nai zitun.

Aita-amak beren seme praile egin berriarekin gelditu ziran etxeko sukalde-txokoan. Etzuten besterik bear. Itz aspertu bat patxaran egiteko ere, aspaldian etzuten orrelako aukerik izan.

Arantzabe'ko nagusi-etxekoandreak danetik izan zuten egun ortan. Pozezko malkoak eta naigabezkoak ere bai. Indietara mixiolari

joateko asmo sendoa azaldu baitzien seme praile berriak.

Onela zion amak:

– Gure etxe ontara naigaberik gabeko pozik ez da etortzen beintzat eta...

Semeak:

– Larros guztiak arantzadunak, ama.

Aitak:

– Ala izango dek, bai. Ala ere, gure Txomin da errain berri ori ondo etortzen badira ta suerte pixka bat baldin badegu, moldatuko gera.

Zortzi egun pasa zitun praile berriak aita-amarekin. Erramon, berriz, urrengo goizean erten zan Zugarramurdi'ra, bere opizioan jarraitzera.

Aita-amak naigaberik etzuten, ordea, pozik gabe. Orain Txomin ta bere emazte berria noiz etorriko zai zeuden.

Etorri ziran ezkon berriak, ezti-kutsutan da irripartsu, gauza ugari kontatuz.

Praile berria ere, etxetar danak agurtuta, Kuba'ra egatu zan.

Erramon, berriz, etzebillen edozeiñi kaso egiteko moduan. Iñoiz Lizarreta'ra etortzen zanean, arritzen zitun emengotarrak. Ala zioten bere erriko lagunak:

– Gure erri ontatik ertetzen dan guztia aurrera joaten dek. Obe genikek gu ere norabait ertengo bagiña. Gure bei txar auekin etzegok miraririk.

NEGARREZ

Ain zoriontsu bizi zan familia, gau batez geratu zan lur jota.

Udazken batean, apal ondoko gaztain egosiak eta urte artako lenengoak jan da oeratu orduko, zerbait nabarmen entzun zuten ganbaran. Nagusi zaarra jeiki zan. Bai zer pasatzen zan azkar ikusi ere: sapaia sutan zegon. Ango orruak eta deadarrak etzuten azkenik.

Berak bezin azkar konturatu zan auzoko mutil zaarra. *Tenpora*-garaia izaki ta gaueko amabiak arte zer aize-klasek jotzen zun zaitzen baitzegon. Gogor sinisten baitzun, batzuk sorginkeria deitzen dioten auekin.

Laister joan zan erriko kanpai-jotzaillearengana. Bai onek astiñaldi ederra eman ere. Bereala zan erri guztia Arantzabe'n.

Belar ondu mordo bat ganbaran zeukate-

larik, suak errez arrapatu zun nun lan egin. Ganaduak eta erropa geienak eta sukaldeko ontziak atera zituzten. Baiña gaiñontzean ezer ere ez. Belar gozo bikaiñik eta arta-pilla ederrik auts biurtu zan. Minutu gutxitan goiak lur jo baitzuten. Esan zitekean Arantzabe'ko paretak ere su egiten zutela. Zer zan ura?

Iñork nai ez dunean, arrigarrizko indarrak baidituzte urak eta suak. Beste esaera au ere gogoan artzekoa da: «Sua ta ura, morroi onak, baiña nagusi txarrak».

Nola sartu zan ain gaizkille amorratua? Geienen iritziz, tximinitik. Aspaldian garbitu gabea zeukaten; da gaiñera, arrats artan, gaztaiñak egosteko ta abar, su bikaiña egin zuten.

Pamilikoak negarrez. Erritar guztiak triste. Danak, laguntzeko asmo sendoarekin. Etzegon atzera begiratzerik. Suak eginda zeukan berea ta ari etzegon ezer esaterik.

Arantzabe'koak etxetik urruti gabe bazuten borda bat. An antolatu zituzten ganaduak eta sukaldea, naiko ondo gaiñera, etxe berria egin bitartean. Arantzabe berriz zutitzeko asmoa, erre zan gau artan bertan artu baitzuten. Juan Antonio ez baitzan kokildu ta atzera begira egoteko oietakoa.

Etzan errian eskean asi bearrik. Eskatu gabe, danak bazekarkiten zerbait: bat, auzolanerako prest zegola; besteak, artoa edo belarra emango ziela; urrengoak, baso bikaiñak bazeuzkala ta etxe berria altxatzeko etzirala

egurraren paltan geldituko... Dirurik palta bazuten, ura an zegola serbitzeko esan zuna ere bazan. Ain baitzan pamili maitatua.

Basarri berri bat altxatzea, ordea, ez da gero auntzen gaueko eztula. Juan Antonio bereala asi zan erriko Udaletxera ta arkitekoko ta abarrengana joaten. Seguru-etxeetara ere bai. Alegin guztiak gutxiegi izango baitziran.

Bi lekutan aseguratuta zeukaten basarria, ta etzitzaien damutu. Tolosa'n zeukatenetik, diru-mordoska polita jasoko zun. Errikotik, berriz, auzo-lana ta basarritar bakoitzak bi puska; au da, bi zugaitz ederren materialak.

Zugarramurdi'ko semeari bereala deitu zioten. Au bai azkar etorri ere, ta kontrabando-kontu orrekin naiko aspertua zegola aitortu zun, gaiñera. Iñoiz arroago etorri izan zan.

Gauzak ondo erten ezkeru, dirua errez irabazten zala. Baiña bizia arriskatuz ibilli bear askotan. Oraindik orain, Urdazubi'ko mendietan, gau batean guardiazibillak alto emanda, paketeak al zun lekura bota ta igesari eman zionean, bost tiro tira omen zizkioten. Balak aize ederra pasa zutela, zion, bere ondolik.

Gaiñera, beste lantegi askotan bezela, nagusiak irabazten zutela dirua, ta segurutik. Kontrabandoko mutilla, frentean dabillen soldaduaren antzekoa zala.

Aitak onela esan zion:

– Motell, ik ere ez dauzkak emezortzi urte, burua txoriakin ibiltzeko. Ta, etxe be-

rria altxatu arte, emen izango dek zer egin.

Erramonek:

– Eskean ere asi bearko degu, ba.

Aitak:

– Gure erri ontan etzegok eskean asi bearrrik. Emen eskatu gabe ematen zigutek. Ez nin uste orren jende onik zegonik. Puska bateko zorrak egingo dizkiagu. Baiña erritik kanpora eskean ibiltzeko aproposa aiz ta itzegingo diagu.

Seme praileari, oraingoz beintzat, kaso ez egitea erabaki zuten, naigaberik ez ematearren. Abisatuta ere, onek ez baitzien laguntzik egingo, otoitzarekin izan ezik.

Onela zion Erramonek anai prailearengatik:

– Oiek itz ederrak; baiña besterik ez. Orain ere, zer laguntza daukagu arekin? Urrena etortzen danean, urdai azpiko ederrak eta arrautz preskoak jatekoa. Gaiñera, Kuba'raiño joan bearrrik bai al zegok, jendea zuzentzeko? Emen ere bagatxek premi ederrekoak. Ixiltzea obe det eta...

BASARRI BERRIA

Jendearen laguntzeko gogoia ta Arantzabe'ko aita-semeak zuten ausardiarekin, jo ta ke asi ziran basarri berria altxatzen.

Orretarako, Udaletxe aldetik ere erreztasun osoak eman zizkien alkate jaunak.

Arkiteto bat ere, bere ama Lizarreta'koa zuna, utsean prestatu zan proieitoak egiteko ta abar.

Erretore zaarrak ere, egundoko sermoia egin zun meza nagusi batean, Arantzabe'ko erreketara gai artuta:

Gaur auzoan deguna, biar etxean izan dezakegula, ta alkarri laguntzea bezelakorik etzala zerua irabazteko. Jesusen azkenengo agindua au zala: «Maite zazute alkar, nik maite izan zaituztedan bezela».

Lenez gaiñera sutu ziran Lizarretarrak. Etxe berria egingo etzuten, ba? Baita katedrala ere.

Erri batean danetik izan oi da. Baita an ere. Gorrotorik gabeko ipuiak, jakiña. Latxe'ko Karramarro'k au zion, apaizaren sermoia entzun ondoren:

– Lagundu egin bear dala, baiña bera ez dek asiko auntzarekin mortero-karraio, ez. Gu ibilli bearko diagu izerdi ederrak boteaz. Bukatzen degunean bai: joango dek bedein-kazio-aitzakian bapo bazkaltzera. Oiek ditek eskola, oiek!

Aldamenean zegonak:

– Zertarako ez intzan apaiz egin?

Karramarrok:

– Apaiz joango niñuan ni. Baiña amaika urterekin morroi bialdu nitxiaken. Ura izan uan nere seminarioa.

Amaiketakoa egin ondoren, orrelako piparra zuten alkarrizketak izaten ziran erriko ostatuan.

Auzo-lana ona da, baiña iru edo lau opiziale bear eskarmentuzkoak: argin, arotz, igeltsero ta abar. Auek Naparro'tik ekarri zituzten, da gizon jator indartsuak gaiñera, argitik argira lan egiteko konporme zeudenak.

Pixkana-pixkana, etxe berria altxatzen zi-joan. Baita Arantzabe'ko pamili naigabetuaren penak arintzen ere.

Onela zion Altube'ko Austiñek:

– Errian diran etxe guztiak berritu bear dizkiagu. Zer dek, ba, illabete pare bat emen auzo-lanean pasatzea? Gure basarri zaar oietan etzegok bizitzerik.

Arrazoi osoa zeukala esan bear. Alkarta-

sunean baitago indarra. Baiña betikoa: orrelako estuasun bat eta bearra etorri-ezean, iñor ez asten lantegi ortan.

Negu beltza ere igesi zijoan. Zozoak eta birigarroak kantari asiak zeuden. Baita Arantzabe'ko pamilikoak ere, tristurak alde bat utzita, alaitasunean sartuko ote ziran itxurak zebiltzan. Beste amabost egun barru, ezeren okerrik ez dala, tellatua emango zioten; eta, estalia eman ezkeru, esan zitekean seguratuta zirala.

Onela zion nagusi jaunak:

- Tellatu onen gallurrean erramua jartzen degunean, lasaituko nauk. Andik aurrera etzegok ajolik. Emen legorra dek bearezkoa, legorra. Ortik aurrerakoa moldatuko diagu. Arkumeren batek edo bestek bizia utzi bearko ditek, baiña apari bikaiña egin bear diagu. Dirua izango dek gero ere, ta guk egin ditugun lanak mereziko ditek zerbait ere.

Au entzun zutenean, argin, arotz ta auzolanekoak poztu ziran lenaz gaiñera. Euskaldunentzako jan-edan festa baita aproposena.

Erramonek, berriz, azkeneko iru illabeteak eskean zeramazkin. Sekulan baiño gus-torago, gaiñera. Etzun orrelako opiziorik arrapatu oraindaiño. Atero, geixeago edo gutxixeago, dirua zeukan, guardiazibillen tiro-bildurrik gabe, gaiñera.

Erriko alkatearen agiria bazeramakin. Erri batean sartzen zanean, bertako alkatearengana joango zan lendabizi. Bi paperak es-

kuetan zitula, gogor ekingo zion txakurrak zaunkaz jartzeari. Izan ere, Arantzabe'n da inguruetan, nor ortarako bera baiño egokia-gorik?

Zortzi egunetik bein-edo etxeratzen zan. Baita diru-mordoska ekarri ere. Danak etzitun zuzen entregatuko, ez. Baiña izana darentzat irixten. Tolosa inguruko erri geienak igaro zitun. Auen ondorenean, Napar alderako ametsak zeuzkan.

Erramonek tontotik etzun ille-izpirik ere. Erri batera joateko, al bazan beintzat, erri artako festa-egunak aukeratuko zitun. Orrela igaro zitun Santa Kruzak Orexa'n, San Juanak Belauntza'n, San Pedrok Leaburu'n, San Permiñak Naparro'ko Azkarate'n da abar.

Azkenengo ontako berri ondo zekin, Amezketa'n morroi ibilli zanetik. Jan zun oillasko-puska ederrik, ta edan ardo beltzetik trago baporik. Ta, aparte, diru-poltsa. Ala zion berekiko:

– Onela bizi bear nunik, sekulan ez nun sinistuko. Au badek Amezketa'n morroi izan nintzan aiñakoa.

Eskean dabillenari, danetatik tokatzen zaizkio. Baita gure Erramoni ere. Basarri bateko etxeakoandre bargasta batek onela bialdu zun aurrean, atea jo ta zertara zetorren esan zionean:

– Etxe erre eskean? Gure au ere erreko ukek, nik su emango banio. Gero berria egin ere bai, atez-ate naiko diru bildu ezkerro. Gaiñera, ik ez dek basarritar piñaren tanke-

rik. Lepondoa daukak guri. Alproja alena! Oa emendik! Bestela...

Atzera begiratzeko betarik gabe aldegin zun gure mutillak, danak ez baitzizkion gezurak esan.

Aberats-etxe batean gertatutakoak ere mezezi du emen jartzea. Fabrika ondo batean bi etxe polit zeuden. Goikoan nagusia bizi zan; bekoan, berriz, bere semea.

Onenera joan zan leendabizi. Nagusi-semeari esan dizkio zer nola dabillen. Da onek, errukituta, milla pezetako papera, alajaiña, Erramonen zakura. Pozik eman zizkion esker beroak. Ala zion berekiko:

– Au dek mauka, au! Nagusiaren semeak ainbeste eman badu, zer emango ote dit aitak?

Pentsamentu auekin inguratu zan aitaren etxera. Jo du tirriña. Baita nagusi zaarra er-ten ere, neskamearen ondoren. Erramonen sermoia entzun ondoren, amar pezeta bakarrrik eman ez dizkio, ba? Onela dio eskaleak:

– Baiña, nagusi: zure semeak milla pezetakoa eman dit; eta zuk, au besterik ez?

Nagusiak:

– Bai. Gure semea millonario jaio zan; baiña ni ez.

Ala ere, etzan asarre Arantzabe'ko erro-mesa, egun ura baiño txarragoak asko izango baitzitun.

Ainbeste amestutako tellatua jarri zioten Arantzabe'ri. Baita Urka'ko zulotik ekarrita-ko erramu-adar ederra ere.

Aparia Martxoko azken igandean egin zuten. Mandio zabalean bildu ziran etxegintza ortan parte artu zuten guztiak. Ura alaitasuna ta poza, berriro ere etxea bazutela ikusita!

Zer apari zuten? Asierako, arkume-odolarekin egindako tortilla. Ondoren, naiko arkume erre. Ta, postretarako, mamia. Kolo-reak gorritu ziran. Etzirudin Garizuma zanik. Etzegon munduan gauza eziñik. Ura erronka jo bearra!

Ala zion Izotzeta'ko mutil zaarrak:

– Erri guztia erretzen baldin bada ere, berria egingo diagu guk.

Nagusi jaunak:

– Motell, motell! Erronka geiegirik ere ez dek, ba, komeni. Ni oso gustora natxiok. Baiña guk pasa degun trantzea, pasa egin bear zin.

Udaberria izan arren, izotz ederra egin zun gau artan, da apaldarrak ertetzerako goizeko ordubata bazan. Kafe ondorengo bertso zaarrak naiko etzirala, musean asi baitziran, alkarri begiak atera bearrean. Bazan enbido ta ordago ederrik, ta karrera onek luzatu zien apalondoa.

Erramua busti bear bazan, bai busti ere. Etxerakoan ziran komeriak.

Antonene'ko Santik, beti ur mearra izaten zan arri baten gaiñean jarri du oiña, ta or dijoa ankaz gora. Izotz madarikatua! Lagunak eldu ta altxa dute. Kopetetik odol-tantak erortzen zaizkio. Bildurtu dira.

Ondoan dagon Zelaizabal basarrian atea jotzea pentsatu dute. Etzegon jo bearrik. In-guruetako atari-zakur guztiak asi baitziran zaunkaz. Bertako etxeoandre Terexak, be-rak iritxi baiño leen zabaldu zien atea. Nun-dik zetozen ere etzeukan galdetu bearrik, bere gizona ere apari ortan baitzan, urrengo egunean Tolosa'ko mataderira txekorrarekin joan bear zulako goiz erretiratu bazan ere.

Pasa dira sukaldera. Ur epelarekin garbi-tu dio arpegia gure Santiri. Ez du estutzeko-rik. Oker txikienarekin izan bailiteke aundie-narekin aiña odol, da au nabarmena izan. Gaiñera, gau artan graduak igota izango zi-ran ederki.

Zelaizabal'eko etxeoandrea txukuna ta maratza gendun kura-kontu oietan. Uztao belarraren orri eder bat, olio gordiñarekin igurtzi ta zapi-tira baten laguntzarekin, poli-ki asko jarri zion.

Terexak:

– Au bi egun barru sendatua daukazu.

Santik:

– Ez da ezer, baiña eskapa ederra egin det.

Manuk:

– Orixe besterik ez genin falta: etxe be-rria egin da gero elbarritu.

Terexak:

– Geiago izango ez dalakoan edaten de-zute, ta gero orrela ibilli bear.

Santik:

– Izotz madarikatu orrek ditu kulpak.

Terexak:

– Zure barruan ez dago izotzik.

Manuk:

– Emakume danak berdiñak. Or pasa ditugun egarri ta jandako auts-pillak, ez al dute ezer merezi?

Terexak:

– Gure gizona etorri zan garai politean.

Manuk:

– Etxekoa ona beti. Guk ere obe gendun, biar txekorrarekin joan bear bagendu. Gibelpuska bat ekarriko balu ere, ez litzake gaizki etorriko.

Terexak:

– Zuk prailea bear zendun.

Santik:

– Utzi ditzagun berriketak eta goazen etxera.

Esker beroak jaso zitun etxekoandre argiak, ta bakoitza etxeruntz abiatu zan.

Santik, emazte ta etxekoai zer esan edo okerra nola moldatu pentsatu bearra zeukan. Bai azkar bururatu ere. Onela zion, urrengo goizean andreak zer pasa zitzaion galdetu zionean:

– Arantzabe inguru ortan badago obratik sobratutako egur-puska ta abar. Aietako batean estropozo egin nun da ankaz gora, alajaiña. Izan ere, oso illun zegon. Ez da ezer, ala ere.

Andreak:

– Esaten det, ba, nik, lanetik askoz obe-

toago etortzen zeratela, parrandatik eta festatik baiño.

Gizonak:

- Tira, tira. Naikoa degu.

Urrengo goizean etzan iñor auzo-lanera joan. Ala erabaki baitzuten bezperan. Argin-arotzak bakarrik jardun ziran nagusi-semeen laguntzarekin. Gaiñera, estuasunik aundienak paseak zeuzkaten.

Baiña tarteka-tarteka joaten ziran. Auzo-landarrak ortarako erriko aguazillak zuzentzen zitun.

Premizko gauz geienai amaiera iritxi zitzaien: sukaldea, ikulluko ganbelak, komona, lo-gelak partitzea ta abar.

Etziran asarre Arantzabe'tarrak. Ezeren okerrik etzala, San Juanak alderako etxe dana bukatua izango zuten. Garai batean nork esan olakorik?

Leenago esanda nagon bezela, Kuba'ko seme praileari etzioten beren etxeko okerraren berririk bialdu, naigaberik ez ematearren.

Onek jakin zun, ordea, nonbaitetik, eta karta serio-antxa etorri zan Arantzabe'ra. Etzuten orrelako askorik uste. Ara nola:

«Guraso maite, senide, koiñata, lagun ta adiskide guztiai, Kuba'tik:

Leenengo, nere agurrik maitekorrena biotzez, ta oso pozik nabillela urruti auetan, Jaungoikoari eskerrak, orain orko berriak oso goibeldu banau ere.

Asko pentsatzen ez nun albistea jakiña naiz; ta ez jakin bear nun lekutik. Txori txiki

baten bitartez, alajaiña, notizia: gure kabi goxo kuttuna suaren mende, betiko auts biurtzeko.

Baiña naigaberik aundiena, neretzako izan dezuten ixiltasuna izan da. Praile egin nintzan ezkerero, ez ote naiz orkoa ta zuen semea? Edo itxaso zabal orrek maitasunezko kate guztiak apurtuko ote ditu? Nik beintzat ez det orrelakorik pentsatzen.

Badakit urruti auetatik ezer gutxi egin nezakela. Baiña otoitzak ez ote du indarririk? Zuek izango dezute galtzak bete lan. Baiña bi letra idaztea ain zaila eta neketsua ote zan?

Gaiñera, basarri bat erretzea ez da leenengoa Euskalerrian. Asko dira erreak, ta zuen ori ez da azkenengoa izango. Beti, besterena gauza naturala iruditu izan zaigu. Etxera ere etorri egiten, ordea. Salbea jarri zunak, «negarrezko balle» jarri zun. Bai bapo asmatu ere.

Munduan suketa izugarriak izanda daude, baita lege zaarrean ere, Jaungoikoaren kastingu bezela. Ta nork daki zuen ori ere?

Bai, enetxoak, bai. Ta Jaungoikoak lerro okerretan badaki zuzen idazten, da ez kokildu, ez bildurtu. Jaso biotzak!

Jakin det kalte izugarriak izan dituzutela. Jakin det etxe berria egiten asi ta ari zeratela, ta jendea ezin da obeto portatzen ari zaizutela. Onuzkerero, nere iritziz, tellatua urrean bear du. Etxe berri baten jabe berealaxe zeratete.

Zorrak egingo dituzutela? Oiek ere bearezkoak izan litezke, ta gaur dituzuten nagabe ta buru-austeak biar frutu ederra eman go dute. Ortan ziur egon. Zuek ondo dakizuten bezela, gari-aleak usteldu ta auts biurtu bear du, gero galburu bikaiña izango bada.

Kuba alde ontan dauden mixeriak ikusiko bazeniztuzte, zer esango ote zenduteke? Emengo askok orko txabolak pozik artuko lituzteke. Emen otzik ez du egiten. Bero izugarriak bai, ta ortik bururatzen zaie jantzi ta etxe onegirik ez dutela bear.

Gaiñontzean oso jende ona da. Baiña Arantzabe bezelako etxe bat auzo-lanean ez luteke bereala zutituko.

Lurralde au garai batean Españi'rena zan, gerra baten bidez galdutakoa. Ori dala-ta, amaika euskaldun bada emen ibillia ta betiko lurperatua. Ori etxea erretzea baiño okerragoa izango zan. Orain euskaldun askorik ez det sumatzen. Noizik eta bein arrastoren batzuk jakiten ditut. Baiña gaiñontzean ezer ez.

Leengora nijoa berriz ere. Ez estutu. Jaungoikoak aideko txorien ardura baldin badu, nola ez du izango bere antz eta irudiko gizonarena?

Ta ia aztu zitzaidan: Erramon aproposa dezutela eskerako. Zeozertarako balio ez dunik ez omen da, ta ori ortarako pare-parekoa, diru-kontuak zuzen ibiltzen baditu.

Emengo kontu geiago urrengoan jarriko dizkizutet. Baiña au artzen dezuten bezin az-

kar erantzun zaidazute mesedez orko berri danakin. Etxekoengandik jakitea ez al da ohea izango, kanpoko txori oiengandik baiño?

Besterik gabe, besarkada bero bana, ama, aita ta senideak. Zuenaren zai gelditzen naiz. Zuen seme: Juan Mari.»

Etzuten asko pentsatzen guraso maitagarri aiek, urruti aietan beren semea ainbeste gauz ta ezbearretzaz jakiñaren gaiñean izan bear zunik, berak abisatu ezean.

Ain zuzen, karta ori artu zutenean, Erramon ere etxean egokitu zan, da diru-zaku ederra ekarria zeukan. Naigaberik aundienak igesi zijoahten. Baiña Kuba'ko albiste orrek eman zien bere eztenkada.

Ala zion amak, erdi negarrez:

– Esaten nizuten nik karta-punta bat egitea obe gendula. Kasorik etzenidaten egin, da orra...

Aitak:

– Salatari mingain luzeren bat iritxi araiño ere...

Erramonek:

– Praileak aparaju onak! Oiek mundu guztiko berri berealaxe jakiten dute. Auzolanera ez dira etorriko, ez. Baiña kontuak jakin? Baita inpernuko deabruarenak ere.

Txomiñek:

– Guk ditugu erruak, guk. Berri onak bakarrik bialdu bear al zaizkio ari? Txarrak ere, guk bezelaxe jakin da pasa ditzala.

Txomiñen andreak:

– Egia. Amak arrazoi osoa zeukan. Kasorik ez genion egin; da orain, bidezkoa danez, berak naigaberik aundiena.

Aitak:

– Oker ori zuzentzea, egiten ari geran zorrak ordaintzea baiño errezago izango dek. Ez dezaiogun jira geiegi eman.

Erramonek:

– Arrazoi dezu. Neronek egingo diot ulertzeko moduko karta. Jaungoikoa, otoitzaren indarra, kastigua, su ta abar, naiko erretolika aitatzen du. Oiek errezo ugari egingo dute, baiña eskera etortzen dira orratio. Eskerako proposa naizela? Ta nik bildutakoarekin al dago kezkatu? Ark emandakoarekin ez degu tranparik egingo. Artzeko obeak gaudegu, emateko baiño. Gaiñera, txori albistari orrek zer kontu esan ote dizkio? Madarikatua!

Amak:

– Motell, i karta idazten asten baaiz, gauz onik ez dek egingo. Azkena jarri bearrekoa jarriko dek aurrena, ta leenaz gaiñera naigaberen bat izango dik. Karta ori Iñaxik egingo zioke ondoena, ta ik jarraitu zak eskean, danen bearrak izango dizkiagu-ta.

Iñaxi, Txomiñen andrea zan. Onela izan zan Arantzabe'ko erraiñaren karta Kuba'ra:

«Agur, Juan Mari:

Zure koñata dan Iñaxik egiten dizu karta au, guraso ta senide guztien izenean.

Uste gabeko karta zuk egin diguzuna. Zuk naigabe aundiak dituzula? Bai guk ere.

Leenen esan bear dizugu, zuri naigaberik ez ematearren zala gure ixiltasuna. Ta orain pena aundia artu degu, zuk kanpotik jakin bearra. Batez ere amak. Baiña okerra eginda dago ta orain barkazioa eskatzen dizugu.

Ara nola izan zan gure ezbearra: Agorren 22'an, beti bezela erretiratu giñan, lo gozo bat izateko asmoz. Leku ederrean! Gaueko amabiak alde ortan, ganbaran zerbaiten otsa sumatu gendun. Aita jeiki zan zer gertatzen ote zan, da etxea sutan ikusi zun.

Auzoan oraindik bazan oeratu gabekoa, *tenporak* zirala ta etzirala leiotik begira zegona. Aiek gu baiño leenago konturatu ziran, Arantzabe sutan zegola. Andik aurrera bazan kanpai-otsa, jendea ta ixkanbilla.

Ezbear danak izango dira txarrak. Baiña nik esan bear banu, etxe erretze ori azkenen-goetakoa izango da. Ura ez dago karta batean adierazteko. Ura ikusi egin bear zan.

Gaiñera, ganbara dana belar onduz betea zegon. Ortik atera kontuak. Arriak ere su egiten zuten, alajaiña.

Ikulluko ganaduak justu-justu atera ginitun. Arritzekoa da ganaduaren joera: sua zegon tokira joan nai zuten danak.

Erropa-mordo bat salbatu gendun. Sukaldeko traste geienak ere bai. Ta gaiñerako guttia an austu zan betiko.

Sua nola sortu zan? Seguru asko tximinitik. Naiko zaarra ta zikiña zegon da ara ondorena. Orain damua alperrik.

Xenpelarrek bertso batean au dio:

«Gaitzak gerade umiltzen». Ez gera gaitzak, ez. Arroak umiltzeko ez dago denbora askoren bearrik.

Euri-jasaren ondorenean ateri izaten dan bezela, naigabearen atzetik poza ere izaten da, ordea. Ta guri orixe gertatu zaigu. Esaera da, Jaungoikoak estutu bai, baiña ez dula itotzen. Negarra bakarrik izan degunik ez dizut jarriko. Poza ere badegu. Jendearen borondatea ta laguntzeko gogoia, sinistu ezin alakoak dira. Egia esan bear bada, ez gendun uste onenbeste jende on zegonik.

Etxea erre zanean, goiko bordan antolatu genitun sukaldea ta lo egiteko lekuak. Gana-duak, berriz, auzoetan. Orain etxe berrira aldatu gera danak, eta artu degu lasaitu ederra.

Erramon, berriz, Zugarramurdi'ko kontrabandoarekin aspertu zan, da orain etxe-erre eskean dabil. Zuk diozunez, zeozertarako babilio ez dunik ez da, ta ortarako egokia dala esan bear. Napar alde ortan dabil, ta aldika-aldika diru-mordoska polita ekartzen digu.

Laguntza oiei esker, etxe berria laister degu. Egia da iñoiz ordainduko ez ditugun zorrak egingo ditugula. Zor guztiak ez baitira diruz ordaintzekoak. Baiña Jaungoikoa danen gaiñetik dago ta guk ezin ditugunak berak konponduko al ditu.

Esan bezela, aita ta ama ari dira pozten. Ezin sinisturik daude ikusten dutenarekin.

Oraindik baneukake zer jarria pranko. Baiña berririk aunditxoena jarri dizkizutela uste det. Berrero barkamena eskatzen dizugu,

egin gendun anka sartzeagatik. Baiña etzan izan asmo txarrez.

Bukatzer a noa. Ondo-ondo izan, da ea noiz etortzen zeran etxe berria ikustera.

Letra auek idazten ari naizenean, nere ondoan daukat ama, ta esaten dit etxe berria zuk bedeinkatzea ondo legokela. Gaixoak, onek Kuba Arantzazu inguruan dagola pentsatuko du.

Etxeko danen partetik besarkada estu-estubat, eta zurea arte: Iñaxik.»

ERRAMON ESKEAN

Erramon, bere bizitzan arrapatu zun opiziorik onenean zebillen. Berarentzat parepareko lana egokitu baitzitzaion eske-kontu ori. Leenago ere, eskean geiago ibillitakoa baitzan, ematen baiño. Egia da etxera dirumordoska polita ekartzen zula. Baiña beretzat ere, pentsatzen zun ainbat gordetzen zun, da iñork kargu artzerik ez.

Naparro'ko euskaldun erri ta errixka danak pasatzen zebillen. Bai festa pranko ere.

Leen esan bezela, erri batera joaten zan bezin azkar, alkatearengana joango zan. Oni Lizarreta'ko Udaletxeko agiria erakutsizion, gezurretan etzebillela adierazteko. Beste baimen bat jasoko zun, sartu zan erri artan ibiltzeko, ta kito.

Etzitun ateondo guztietan arpegi alaiak ikusiko. Baiña bost ajola. Urrena zegon etxera azkar. Galerik etzeukan; dana irabazia.

Erramon ijito aundia zan, da eskean ibilitako erriko tabernetan da abar zur ta zintzo jokatuko zun. Naiko negar kontatuz itzezin ere, zebilkin karrera lur jota gelditu etzedin. Baiña Tolosa aldera etortzen zanean, etzan giro izaten. Ura kafe, kopa ta diru banatzea!

Ezagutzen zutenak ala zioten:

– Deabru au nunbait ere eskean ibilliko dek etxe-erre aitzakian, da ara nola dabillen. Oni dirua ematen jardun diran etxeakoandreak ikusiko balute, galtzak kenduko lizkioteke, ta ondo egiña. Lotsagabeentzat dagola mundua esan zunak, bapo asmatu zin.

Onela zijoazten asteak eta illabeteak. Baiña bidezkoa zanez, diru-iturri ori agortzen zijoakion gure Erramoni. Leen ibilitako lekuan etzeukan berriz anka sartzerik; eta, leku berraren billa zebilela, urrutiratzen ari zan. Lizarreta etzutela ezagutzen da ateondo prankotatik bialdu zuten esku utsik.

Arantzabe'ko obrak bukatu zituzten; da, eskalea etxera etorri zan batean, onela zioten etxeakoak.

Amak:

– Begira, Erramon: ire bearra izan diagu. Aproposa atera aiz. Baiña etxea eginda zegok, zorionean. Da oraindik eskean jarraitzea kontzientziko karga izango dek, noski.

Erramonek:

– Zuekin asmatzen ez dago erreza. Dirua ekarri ta ala ere keja.

Aitak:

– Ori ala dek. Baiña gauza guztiak beren neurrian ematen ditek ondo.

Txomin eta Iñaxi ere aita-amaren alde er-ten ziran.

Aitak:

– Bazekit, iñork ematen diken arte, ez aizela esketik geldituko. Baiña or konpondu adi, guk esanak ez dik balioko-ta.

Erramonek:

– Diru eske asiko banintza, zer esango ote zenduteke? Beste onenbeste ez degu iñun entzun. Ezer onik ez ote det nik?

Aitak:

– Ez adi asarretu. Bazekit etxe berri onen puska aundi bat iri esker dala. Baiña edorrek jakingo dek nundik nora abillen. Ate-ondo guztiak arpegi beltzez ikustea tristeza izango dek gero. Ta, jarraitzen badek, leenago edo geroago, ori etorri bear zaik. Esaera zaarra dek: «Denboraz erretiratzea garaipen bat dala».

Itzaldi onek naiko pentsakor jarri zun Erramon ere. Bazekin, aitak esan bezela, mauka bukatu bear zitzaiola. Ta gero? Morroi joateko gogorik etzeukan. Ain gutxiago kontrabandista. Fabrika edo taller bateko etorkizuna motz ikusten zun. Etxean, berriz, «seme sobratua».

Gaiñera, naiko gaizki oitua zegon: iñoren aginduetara makurtu bearrik ez; gutxi edo geiago, jatekoa seguru ta dirua patrikan. Zakur-mordo baten zaunkak entzun bear. Gaiñontzean, erregekume baten inbiririk gabe

bizi zan. Baiña etorkizuna ikusten zun beltz.

Gauzak etziran ola gertatu, ordea. Txirrita bertsolariak indiano batengatik kantatuzuna kantatu genezake Erramonengatik ere:

Azkenerako lagundu dio
gure Jaun amorusuak.

ERRAMON GAIKO-ETXERA

Esan bezela, oso napar eginda zebillen gure Erramon, da etorkizunaz pentsatzen ere bai.

Urritza ta Muskitz aldean zebillela, jakin zun Agorraren 8'an festak zirala Goldaratz'en. Etzun bi aldiz pentsatu bearrik.

Larraun'go ballaran dagon gallur polita da Goldaratz: Lekunberri'tik amabi kilometro Iruña aldera, kamio jeneraletik bi kilometro ta erdi eskubira. Amabi basarri guztitara alkarren inguruan, ollo-lokarekin dabilzan txiten antzera. Zazpireun ta amairu metroko altura itxas gaiñetik. Pronto ederra, elizaren pareta aprobetxatzen dala. Kanposantua edo illerria ere bertan. Artaldeak ugarri, mendiz inguratuta dagonez. Aurrez-aurre Trinitade mendia, «ni emen natxiok» esanez.

Alako toki lilluragarri batean, festak ere alaiak izan bear. Etzan asarre gure eskalea.

Jan zun ollasko-puska ederrik. Bai trago ederrik egin ere.

Etxe ordeko belar-pilla batean izan zun leenengo gaueko ostatua, oso goiz joan ez bazan ere. Goldaratz ain altu dagonez, urte-sasoi ortarako asten da aize otza agintzen. Ala ere, Erramonek etzun otz-bildurrik.

Naiko lo egin zunean, palta zitzaizkion lau etxe pasatzea gogoratu zitzaion. Etzeukan bezperako argitasunik. «Gauak alai, goizak triste» dio esaera zaar batek.

Ala, iritxi da Gillenea basarrira. Erdi lotan zijoalako-edo, sartu da etxe-atarian aurreratxo. Ateratzen zaio zakur aundi asarre bat, ta izterretik eldu ez dio, ba? Ez utzi nai, gaiñera. Nunbait, Erramon aiña ollasko jan gabe izango zan bezperan.

An ziran komeriak eta ixtiluak. Galtzak puskatzea zan gutxienekoa. Odola *zarrazarra* belaunetik beera. Erten da nagusi jaunna:

– Zakur madarikatua! Zu atzo festan zinan?

Erramonek erdi negarrez:

– Bai. Etxe-erre eskean nabil.

Nagusiak:

– Leku ederreña etorri aiz eskera.

Erten da etxekoandrea ere, zer gertatzen dan galdezka. Sartu dute sukaldera. Galtzak kendu dizkiote. Odolik ez geratzen...

Etxekoandreak, armiarma-sarea dala ona odola geratzeko ta senarra ikullura bialdu

du, azkar ekarri dezan. Ikulluan izaten da jenero ortatik aukera. Ala ere, Gillenea'koan ez ainbeste. Oitura bezela, festa aurretik garbitasun ederra egiña baitzeuden basarriari.

Armiarma-sarez tapatu diote zakurrak ozka egindako lekua. Maindireari kendutako zerrenda batekin bai ondo lotu ere.

Odola geratu zaio. Baiña Erramon, da gaiñontzekoak ere bai, naiko kolore txuri ta kez-kati daude. Etxekoandreak, itxu-mustu batean kafea berotu ta eman dio:

– Jesus, Maria ta Jose! Au ere gure etxean gertatu bear zun. *Toni* zikin ori!...

Zakurraren izena zan *Toni*.

Nagusiak:

– *Toni*'k ez du errurik. Ori etxeari kontu egiteko ez dago, ba? Gizarajo au ere aurreaegi sartu da. Au ez da gero erriko taberna.

Etxeko alaba bakarra auzoko lagunarengana joanda zegon, *iji* eta *aja* bezperako kontuak esanez.

Etxekoandreak:

– Datorrela Pantxika lenbailen. Or da auzoko Karmengana joanda. Atzo ez ote zuten naikoa itzegin?

Nagusiak azkar ekarri du bere alaba, etxean zer gertatzen zaien esanda.

Pantxikak:

– Gure festak orixe merezi al zuten? Baiña mutil au atzo plazan zan, alkarrekin dantzan ibilli giñan-da. Gaiñera, Lizarreta'koa zala esan zigun, da etxe-erre eskean zebillela.

Nagusiak:

- Orain ez dago berriketarako denborik. Beorra preparatu dezagun da mutiko au, al dan azkarrena, Iruña'ko gaixo-etxe batera eramatea izango degu onena.

Etxekoandreak:

- Lekunberri'n ere izango da sendagillea.

Nagusiak:

- Bai. Lekunberri'n badago. Baiña bearbada ez dago etxean. Eiztaria ere amorratua da. Ta gaur erbitarako giro ederra dago, berri. Ta, ura etxean ez dagolako, aren zai gaudela, odola asten bazaio, bertan odol-ustu liteke, ta damuak alperrik izango dira gero.

Erramonek ere, al dan azkarrena gaixo-etxe batera naiago zun. Bukatu zitzaizkion festak eta ateondoko itzaldiak.

Bere galtzak puskatu ta odolez zikindu zitzaizkiolako, nagusi jaunarenak jantzi arazi zizkioten. Beor gaiñean jarri zuten da kamio jeneralera. Aita-alabak jetxi zuten. Emen, leenengo etorri zan kotxea gelditu arazi zuten; da alaba Pantxikak lagundu zion, Iruña'ko parte zaarrear dagon gaixo-etxe bateraiño.

Aitak enkargu au eman zion alabari: Sendagilleari esateko gauzak, ziran bezela; ta bere etxera ta gaiñontzekoetara berak deitu zezala.

- Egiten degunarekin uste det naikoa egin diogula.

Ala, partitu ziran aita-alabak. Nagusia etxera etorri zanean, etxekoandreak:

- Ondo jetxi al dezute edo ondo joan al dira?

Nagusiak:

- Bai. Ondo jetxi gera ta berealaxe kotxe bat gelditu degu, ta an joan dira. Festa-biaramon ederra egokitu zaigu. Esan diot Pantxikari esan dezaiola sendagillari dana, ta or konpondu dedilla. Guk naiko zopa izan degu.

Etxekoandreak:

- Etzaitetz jenio-txartu, gizona, gu baiño okerrago dago ura-ta. Etxea erre ta eskean, da orain au. Aren amak ere esango du zerbait. «Zakur plakoari, arkakosoak».

Nagusiak:

- Entzun dezu Pantxikak nola esan dun atzo dantzan alkarrekin ibilli zirala. Agidanean, etzeukan naigabe aundirik. Eskera datozen guztiakin ez da errukitu bear gero. Gipuzkoa alde ortan jende trapu asko dala jakingo dezu, ba.

Etxekoandreak:

- Zu beti orrela zera. Gazteak dantzan egitea arritu egiten al zera? Guri ere, garai batean, soiñua entzun ezkeru, etxeko kontuak aztutzen zitzaizkigun. Nik kezka bat daukat: zakurrak eldu diolako, ez al zaigu okerrik etorriko?

Nagusiak:

- Besterik ez degu bear!... Jakingo dezu, ba, zakurra bere lekuan zegola. Atzo bai festan ederki. Baiña gaur begiak lainotsu, ta

gure *Toni* atzo parrandik egin gabea egon. Orixe da guztia, etxeoandre.

Etxekoandreak:

– Pantxika etorriko da illuntzerako, ta ea zer berri ekartzen dizkigun.

Esan bezela etxeratu zan alaba, Gilleana'n aita-amak apaltzen aстера zijoaztela. Bazan zer galdetua eta zer erantzuna.

Amak:

– Etorri al aiz? Zer berri?

Alabak:

– Bai; etorri naiz. Ta gose ederrarekin, gaiñera. Ogi-tarteko pixka bat jan det gaixo-etxeke ondoan dagon taberna batean, da arekintxe nago.

Amak:

– Neska, goseak kenduko dizkiñagu. Ta zer esan diote sendagilleak?

Alabak:

– Sendagille bat berealaxe etorri zaigu; au da, gaixo-etxean sartu orduko. Gizon jatorra, gaiñera. Gu bezelaxe, euskalduna. Mikelarena bere apellidoa. Gertatutako guztia esan diot. Iztarra ikusi dio, trapuak askatuta. Ta ea zeñek lotu dun ura ala. Ez pentsatzeko santa sekulan armiarma-sarerik eridan jartzetik, beneno utsa dala-ta. Edozein gaitz etorri litekela ortik.

Amak:

– Guri ala erakutsi ziguten, ba.

Alabak:

– Bai, bai; esaiozu sendagille ari ta esango dizu.

Aitak:

– Odol geratzeko zerbait egin bearke giniñan, ba. Odol-ustu izan bazan, ohea izango al zan?

Alabak:

– Tira, tira! Sendagilleraren eskuetan geratu da beintzat eta gizarajoa sendatuko al dute.

Amak:

– Ta nungoa da edo zer pamili edo?

Alabak:

– Tolosa ondoan dagon Lizarreta'koa. Joan dan udazkenean basarria erre omen zitzaien. Ikulluko ganaduak eta trasteren batzuk salbatu omen zituzten justu-justu. Baiña gaiñerako guztia auts biurtu zala zion, begietan malkoak zitula.

Amak:

– Naiko lan izango den orduan an ere.

Aitak:

– Ta etxera deitu al dute-edo?

Alabak:

– Ori dana sendagilleak egingo dula esan dit. Zuriz jantzitako emakume bat etorri zai-gu, ta arek artu dizkio seña guztiak. Neri ere eman dizkit. Oi ederrean jarri dute. Beste oiean aiton bat zegon.

Aitak:

– Ta basarrian lanean jarduten al zan-edo?

Alabak:

– Kontuak esateko gogo aundirik etzeukan. Erramon du izena. Etxean baiño, kan-

poan geiago ibillia ote dagon traza eman diot. Anai zaarragoa omen dauka etxera ez-kondua. Beste anai bat, berriz, prailea Ameriketetan. Mutil jatorra ematen du. Etzekin nola eskertu guk egin dioguna. Beste jira bat egingo diotela nola dagon ikustera ta abar, esan diot; eta eskertuko didala eta joateko.

Aitak:

– Ondo zegon! Ondo zegon! Baiña or konpondu dedilla.

Alabak:

– Baiña, aita: nola zera olakoa? Guri orrelakoren bat gertatu ezkerro, laguntzea naiko genduke ba.

Amak:

– Bai, bai. Ta apaldu dezagun da errosarioa esan dezagun, lenbailen sendatu dedin.

Alabak:

– Nik dantzara joan bear det al dan azkarena, ama. Urrengo ill ori da errosarioarena, ta Erramon sendatuko da. Ez dago esku txarretan.

Urrengo egunean, asko pentsatzen etzute-la, gizon bat Gillenea'ko etxe-atarian, zaunkaka ari zan *Toni*'ri begira. Nagusi jauna atera zaio ta zer dabillen galdetu.

Kanpotarrak:

– Ni Iruña'ko Juzgaduko enpleatu bat naiz. Zakur onek eldu al zion Erramoni?

Ikaratu ziran nagusi-etxekoandreak.

Enpleatuak:

– Ez ikaratu! Ez ikaratu! Ni galdera

batzuk egitera etorri naiz, legeak ala agintzen
dulako. Ez da besterik.

Nagusiak:

- Zer galdera dituzu, ba?

Enpleatuak:

- Erramon Zubillaga etxe ontara etorri
zanean, zakur au lotuta al zegon? Zakur au
da noski, Erramoni eldu ziona?

Nagusiak:

- Erramon onera goizeko amarrak aldean
azaldu zan. *Toni* bere txabolan lo zegon, da
mutilla uste baiño aurrerago sartu. Ta ortxe
gertatu zan gertatzekoa. Guk zakur au etxe-
guardirako daukagu, ta uste det ondo bete
zula bere egitekoa.

Enpleatuak:

- Oraingo kate onekin al zegon?

Nagusiak:

- Bai. Urte guztian onekin izaten da.

Enpleatuak:

- Zakurraren izena?

Nagusiak:

- *Toni*.

Enpleatuak:

- Ondo da.

Nagusiak:

- Ta Erramon ori zer moduz dago?

Enpleatuak:

- Ori sendagilleak esango dizute.

Agur ta agur esanez aldegin zun Iruña'ko
Juzgadutik etorri zan mandatariak, bear zi-
tun apunteak artuta.

Etxekoandreak nagusiari:

– Orixen gizon legorra etorri zaiguna!

Nagusiak:

– Onekin ez gera asko lasaituko. Juezeta-rako modukoa izango da ori.

Iruña'ko gaixo-etxetik deitu zuten Arantzabe'ra ere, Erramon nola zegon da zer gertatu zitzaion esanez.

Ostera uste gabeko berria Arantzabe'n. Ara nola izan zan sukalde artako alkarrizke-ta.

Amak:

– Gure Erramoni tokatu zaio orain ere berea. Jesus, Maria ta Jose! Esan liteke inper-nuko deabru danak berekin ditula.

Aitak:

– Gaizki dabillenak, gaizki bukatu bear derrior.

Txomiñek:

– Bere garaiean esan genion eske-kontu ori uzteko. Kasorik etzigun egin da orain or konpon dedilla.

Aitak:

– Jaungoikoa bere bidean dabil. Orrelako-rik gertatu ezean, ura etzan esketik geldituko, ta ara.

Amak:

– Iruña'ra joan bearko dezute, ba, nor-bait?

Aitak:

– Egia da etxe ontarako laguntza aundia ekarri digula. Baiña orrek ematen dizkigun buru-austeak ez dute berdiñik. Txomin, ik

joan bearko dek Iruña alde ortara, ea zer berri degun.

Txomiñek:

– Biar goizean joango naiz, Tolosa'tik trena izango da-ta.

Amak:

– Joan adi! Joan adi, babarrun biltzeko ere giro ederra izango dek baiña. Azken aldi ontan, etxe berririk egingo bagendun, bere bearra ere izan diagu-ta.

Ala, atera zan urrengo goizean Txomin Iruña aldera. Erramon gaixo-etxeko zegon gelan sartu zanean, Txomiñek bere anaia erropak jazten arkitu zun etxera etortzeko, sendagillearen aginduz.

Sendagilleak zionez, arriskutik kanpo arkitzen zan Erramon. Deskantsua komeni zitzaion, erida sendatu arte. Ta esan zion, sendatzen zanean, erriko sendagilleak edo praktikanteak puntuak kenduko zizkiola ta kito.

Bi anaiak txoriak baiño pozago etorri ziran etxera. Iruña'ra joan ziran ezkerro, kajakada bat maats ekarri zuten gurasoen pozgarri.

Erramonek zeatz ta meatz eman zien geratutakoaren berri.

Amak:

– Ala ere, ala ere, ori besterik ez danean, pozik. Baiña ez al dek pentsatzen Jaungoikoaren kastigua izan dekela?

Erramonek:

– Jaungoikoaren kastigua? Ta, etxea erre

zanean, zu ere larri ziñan, e? Ura ez al zan Jaungoikoaren kastigua?

Amak:

- Ik badek danentzako erantzuna. Orain, gaiñera, asko korrituta ago ta...

Okerragoko zerbait pentsatzen zuten Arantzabe'n Erramonengandik eta etzan denboralerik zakartu.

Okerrena, andik bi egunera etorri zan kontua izan zan. Gaixo-etxekeo gastuak, alegia. Ta, aita-amak ta gaiñerakoak arritu baziran ere, Erramonek bere poltsillutik ordaindu zitun. «Urak ekarria, urak eraman» dio esaera zaarrak, eta orrelako zerbait gertatu zitzaion Erramoni ere.

Esan bezela, bereala sendatu zitzaizkion zakurraren aginkadak. Puntuak kendu zizkion erriko sendagilleak, eta leen bezelatsu jarri zan gure eskale erromesa. Zer pentsa jarri zan berriro; baiña aguro artu zun pentsatutakoaren erabakia.

Eske-konturik etzun geiago entzun nai. Baiña Goldaratz'ko Gillenea'ra joatea pentsatu zun, eskerrak emanez ta abar.

Bai joan ere. Ezin da obeto artu zuten, zer moduz zan, orren azkar sendatzerik etzutea uste ta gaiñerako milla galderakin.

Erramonek ere etzun erdoirik mingaiñean, da uste baiño etxe obean egokitu ote zan iruditu zitzaion. Ainbesteko izketaldia-
ren ondoren, Arantzabe'ko ta Gillenea'ko berriak jakin zituzten. Egun batzuk bertan

igarotzeko erregutu ez diote, ba? Erramonek etzun besterik nai.

Toni'k begiratu zorrotza egiten zion leenengo bi egunetan. Baiña irugarrena ezkerro, engañatzen zun, ogi-puska batzuk emanaz ta abar. Ortarako izan gure Arantzabe'tarra.

Baiña ez pentsa Erramon *Toni*'rekin bakarrik egin zanik adiskide. Baita alaba bakarra zan Pantxikarekin ere.

ERRAMONEN EZKONTZA

Esan bezela, Erramon eta Pantxika maite-mindu ziran. Gillenea'ko aita-amak ere ondo ikusten zuten artu-eman au. Alabatxo bakarra zan etxerako asmoz zeukatena, ta sui-gai egokia iruditzen Erramon.

Zortzi egun aundi igaro zitun Goldaratz'en. Onela zioten Arantzabe'n:

– Gure mutilla berriz ere eskean asia izango da.

Aitak:

– Ematen dioten arte, arrazoi du.

Amak:

– Ez pentsa, ark ekarritako dirurik ikusiko degunik, e? Gaixo-etxeko kontuak berak ordaindu zitun, da aiek min emango zioten. Beste zakurren batek eldu arte, or jarraituko du arek.

Aitak:

– Izan ere, orain zer egin bear du, eskeari uzten dionean?

Txomiñek:

– Berak ikusi bearko du, ba, arek ere. Bestela, dijoala Kuba'ra Juan Marirengana. An bai omen dago naiko lan.

Amak:

– Ura praile-zale kaskarra dek, motell.

Arantzabe'tarrak esames oietan zebiltzan bitartean, Erramonen burua ere lanean zebillen. Zortzi egun pasa ta etorri arren, laister joan zan berriz ere Goldaratz'ko gallurrera. Ain etxeko ta begi onez ikusten zuten Erramon Gillenea'tarrak. Bertan morroi geratzea erabaki zuten. Pentsatu ta egin. Andik aurrera, Goldaraztarra zan gure mutilla.

Arantzabe'n, berriz, pozik zeuden, bistan etzeukatenean da pakean uzten zienean.

Erramon da Pantxikaren arteko artu-emanak, berriz, aurrera zijoazten. Paradisoan bizi ziran bi aingeru ziruditen. Nagusi-etxekoandreak onela zioten:

– Onelako sui-gairik eta morroirik izan bear gendunik, nork esan garai batean? Ta dana, *Toni* dalako bitarte. Zakur onek ere merezi du bazkari bat ona.

Goldaraztarrak ere maite zuten Erramon. Ala zioten:

– Gipuzkoar auek gu baiño bizkorragoak dituk. Etxe-erre eskean etorri, etxe berria egin, da beste etxe baten da andrearen jabe egin gaiñera. Arrapa zak anketik!

San Simonak pasa ziran da negua ingu-

ratzen ari zan Goldaratz'en. Trinitate'ko mendi-gallurra zuri ikusten zan. San Martiñetarako ardi zaarra iltzeko oitura zuten Gillenea'n. Eguberritarako, berriz, zerri gizen bat. Naiko pago-egur txikitu bazuten etxe ondoan. Bei ta ardientzako jana ere bai. Zer geiago bear zuten, zorientsu izateko?

Ta, ori gutxi balitza bezela, Pantxika ta Erramonen arteko maitasuna. Ala zioten sarrri:

– Negua igarotzeko ta arpegi emateko, gu baiño okerrago izango da norbait.

Gau luzeko apalondo batean, gaztain erreak janez zeudela, alkarrizketa au izan zan Gillenea'ko sukaldean:

Etxekoandreak:

– Oso ondo bizi gera. Zuek ere emen zabiltzate *iji* ta *aja*. Baiña ezkontza pentsatzen ere asi bearko degu, ba. Gaiñera, andregaiaren etxean gizongaia morroi denbora askoan, ez du ondo ematen. Orixe esan zidan lengoan Don Josek.

Erramonek:

– Apaizak ere gure gora-beeretan sartu bear al du?

Nagusiak:

– Arritzekoa zan.

Etxekoandreak:

– Ez asarretu, Erramon, ez asarretu, onez-onean esan zidan-da.

Erramonek:

– Onez-onean, baiña arek bota...

Etxekoandreak:

– Ondo esandakoa, ondo artu, Erramon. Gaiñera, arrazoi zula esan nion. Nik etzaitut morroi ikusi nai, nagusi baizik.

Nagusiak:

– Alde batera arrazoi du. Gero egin bear dan lan bat, zertan ez egin al dan azkarrena?

Pantxikak:

– Prestaketarako denbora bearko degu, ba...

Erramonek:

– Oso ondo ari zerate izketan. Baiña nik ere lau egi esan bear ditut, ba.

Etxekoandreak:

– Esan, esan.

Erramonek:

– Badakizute zenbat ezbear izan dan gure etxean. Neuzkan diru guztiak, etxe berria egiten gastatu ditut. Orain aruntza ez dago dote billa joaterik, eta eztaietarako uste det diru dexente bearko dala.

Etxekoandreak:

– Ori, zuk esaterako pentsatzen gendun. Gauzak, etortzen diran bezela artu bearrak daude. Zuen etxea erre ez balitz, zu etziñan emen izango, seguru asko. Jaungoikoak badauki arrasto okerretan zuzen idazten.

Nagusiak:

– Zuen eztaiak ordaintzeko lain diru bada gure etxean; da, ez bada, berriz, urren-go udaberriko arkumeakin izango degu. Guk gutxiago gendun, ezkondu giñanean.

Etxekoandreak:

– Orixe! Baiña diru-kontu ori utzi zazute

alde batera, ta asi gaitezen ezkontza prestatzen.

Izketa onek alaitu zun Erramonen biotza. Etzan gutxiagotarako. Izan ere, etxekoandreak esan zion, morroi ez, baiña nagusi ikusi nai zula, ta gogoan artu zion.

– Zorioneko etxe-erretzea ta zorioneko zakurra! –esaten zun berekiko.

Pixkanaka-pixkanaka ezkontza prestatzen asi ziran, da noizko erabakiko ta urrengo Pazkoetan lenengo pregoia izateko. Bereala zabaldu zan Goldaratz guztian berria.

Erramonek eta Pantxikak ere aukeratu zuten Arantzabe'ra etortzeko eguna, gurasoak ezagutu ta berriak emateko ta abar.

Emen ezer etzekiten da or sartu zaie beren seme biurria, neska gazte eder bat ondoan dula. Bazkaltzeko bilduta zeuden unean sartu ere. Aoa bete ortzakin gelditu ziran danak. Izketan ere ezin zuten asmatu.

Argi ta garbi azaldu zituzten beren asmoak eta gaiñerako berriak. Bazkari ura ederra zan Arantzabe'n.

Itz aspertu bat egin ondoren, inguruko bazterrak ikusiz, aldendu ziran maite-minduak, ezkontzeko eguna ta lekua ziartu jakiten zituztenean berriz etorriko zirala esanez.

Erramonen amari, aldegin zutenean leenengo erten zitzaizkion itzak, auek izan ziran:

– Onek atera zizkiguk eltzetik babak.

Etziran asarre Arantzabe'tarrak, aurki ez-taietan zirala-ta.

Arantzabe'ko nagusiak:

– Etxe-erretze onek egin dizkigun mirariak! Badegu Jaungoikoa eskertzeko motiboa.

Etxekoandreak:

– Bai, alajaiñetan! Fede geiago bear genduke Beragan. Aspaldi esan zun: «Eskatu ta emango zaizue».

Ezkongaiak, ezkontzako egunak eta orduak jakin zituztenean, etorri ziran berriz ere Arantzabe'ra. Oraingoan denbora gutxi pasa zuten, ain presaka zebiltzalarik.

Udaberria etorri zan, negu latza pasa ondoren. Egun dizdiratsuak, gaiñera, Arantzabe ta batez ere Gillenea basarrirako.

Beti bezela, Txomiñen emazte Iñaxik idatzi zion Kuba'ko praileari.

Au ere arritu zan. Baiña bere idatzian jartzen zunez, Jaungoikoa bere bidean dabil, ta ito ez dula iñor egiten, estutu bai, bearbada gure arrokeriak umiltzeko.

Lizarreta'n da Goldaratz'en ezkontza orretzaz itzegiten zan, da alaxe etorri zan ezkontzeko egun ameslaria ere.

Goldaratz'ko elizatxoan ezkondu ziran, guraso ta senidez inguraturik, aldameneko pago baten adarretan kukua kuku jotzen ari zala.

Andik aurrera, Erramon morroi ez, baiña nagusi gazte zan Gillenea'ko etxe aldean. Ikullu-alde ederra, artaldè bikaiña ta bizi-modu inbirigarria; ta esan zitekean Arantza-



be'ko «ardi beltza» zuritu zala, ta noizbait
Txirritak kantatu zun bertsoaren asiera ere
ondo letorkela:

Nola etxean esposatuta
nagusitzen dan morroia,
Erramonentzat daukagu orain
Gillenea basarria.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.

141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I). (*Aitua*).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II). (*Aitua*).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III). (*Aitua*).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.
182. *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan (II).
184. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (I).
185. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (II).
186. *A. Zavala*: Neska-Mutillen arteko bertsoak.
187. *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
188. *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
189. *Ataño*: Eltzaorra.
190. *Pablo Zubiarain*: Ia kantatuz bezela.



AUSPOA
LIBURUTEGIA